# Su-etena pozez eta zuhurtasunez hartu dute ibarrekoek

**ONA** Debagoieneko eragile guztiek diote albiste ona dela; itxaropena eta ilusioa dira sentimendu hedatuenak, eta orain lanerako unea dela esaten dute

**POLITIKARIAK** Ordezkari politikoen arteko adostasunak eta elkarlana eskatzen dute ibarrekoek, eta ahots eta alderdi guztienganako errespetua

**HERRIA** Gizarteak prozesua babestu behar duela iritzi hedatua da. Eskuzabaltasuna eta guztion eskubideen errespetua eskatzen dira



### Rafael Gomez

AL ANDALUS ELKARTEA

**1.** Nahiago nukeen ETAk behin betiko armak uztea iragarri izan balu, baina zalantzarik ez dago aurrerapauso positiboa dela su-etena "iraunkorra" izatea. Askoz ere lehenagotik martxan egon beharko lukeen eztabaida hasiko da orain, eta ea zer-nolako emaitzak ekartzen dituen; izan ere, itxaropentsu egoteko arrazoiak ditugu.

**2.** Bakerako ezinbesteko lehen baldintza alde guztien borondate ona da. Eztabaidari heltzeko unea da orain. Euskal Herriaren pentsamendua eta nahia kontuan hartu beharko da. Ordua da mehatxatuta bizi direnen askatasun falta eta presoen egoera konpontzekoa, guztiok herrialde honen alde lan egiteko aukera izan dezagun.



### Mireia Gabilondo

AKTOREA

**1.** Oso gustura hartu dut albistea. Lanean nengoen, eta norbaitek proposatu zuen xanpain botila bat erostea, ospatzeko; beste batek esan zuen tilarekin topa egin beharko genukeela… Tira, oso pozik nago, eta uste du momentu ona dela aurrera egiteko eta toki onera iristeko.

**2.** Orain nahiko nukeena da gainerako eragileek maila horretan jartzea, eta erronka serio har dezatela, ez daitezela orain has gaizki egin dena argitara ateratzen eta horretaz hitz egiten. Bestalde, egia da gizartea ere hor dagoela. Hasteko, politikariek eutsi behar diote orain lanari, eta azken erabakia euren eskuetan dago, baina geuk, gizarteak, hor egon behar dugu behar dena egiteko.



### Jose Luis Angulo

DEBAGOIENEKO OSPITALEA

**1.** Pozarekin hartu dut iragarpen hau, mehatxatuta bizi direnek hartuko duten lasaitasunarengatik; itxaropenarekin, bakea egiteko eta adiskidetasunerako aukera dagoelako; eta ilusioarekin, gazteak konkordiazko eta elkarlaneko giroan hazi ahal izango direlako.

**2.** Gatazka honetako biktimen senitartekoak kontsolatu behar ditu orain gizarte osoak; eta gizarteak eskuzabal izan behar du hil dutenekin eta horretan parte hartu dutenekin. Bake iraunkorrera iritsi ahal izateko behar diren baldintzak eman daitezen, politikariek egin behar dute lan, eta espero dut politikariek gauzak behar bezala egiteko behar den trebetasuna eta neurritasuna izan dezatela.



### Juanjo Alvarez

UNED

**1.** Itxaropen eta ilusioarekin hartu dut. Izan ere, nahiz eta aurrez esan su-etena egongo zela, gertatu arte ez dizu benetan morala jasotzen.

**2.** Prozesu demokratikoa errespetatu behar da. Hau tenis partidu bat bezala izan da, eta batek atera duenez, besteak erantzun egin behar du orain; baina nik nahiko nuke erdian dagoen sarea bota dezatela. Argi dago hau ez dela inork asmatutako gatazka bat. Orain pauso bat emanda dago, baina politikariek erakutsi behar dute ez dutela bertigorik; ETAk, bestetik, Euskal Herriak dioena onartu behar du. Eszenatoki hori errespetatzen bada, bake prozesuak aukerak ditu. Hau ez dadila ika-mika bat izan, hori espero dut.



### Txerra Bolinaga

MUSIKARIA ETA GAY MUGIMENDUKOA

**1.** Oso albiste garrantzitsua da, eta luze esperotakoa. Ikusten da atzetik egindako lanak eta Anoetako proposamenak emankorrak izan direla eta aldaketa politikoaren aurrean gaudela.

**2.** Tentuz jokatu behar da, afera ez delako honekin bukatzen. Estatuak hitzetatik ekintzetara joan behar du: izan ere, ez da ulertzen bere biolentziazko fronteei eustea, orain azkeneko izan diren kartzelaratzeekin, epaiketekin… eta beste mota bateko biolentziak hor daude, hala nola; Alderdien Legea, 18/98 makrosumarioa eta presoak herrira ez gerturatzea. Elkarrizketa mahaiak osatu behar dira, eta berba egin behar dute, eta Euskal Herriak erabakitzen duena errespetatu behar dute guztiek.





SIMPLY CLEVER

**Škoda**Fabia **berria** SPIRIT

DEN-DENA DAUKA, 9.500 EUROGATIK.

1. Aire girotua. 2. CD irrati 8 bozgorailuduna. 3. ABS + MRS. 4. Airbag bikoitza. 5. Ixte sistema zentralizatua, urrutiko kontrolagailuduna. 6. Aurreko beiren igogailu elektronikoa. 7. Bost ate. 8. Abiadura kontrolagailua. 9. Konputagailua. 10. Eskularru kutxa girotua. 11. Latak gordetzeko hozkailua, bolantearen azpian. 12. Altuerari dagokionez, egokitu egin daitekeen gidari eserlekua. 13. Atzeko eserleku eta horien bizkarralde tolesgarriak eta 1/3, 2/3 zatituak. 14. Altuerari eta sakonerari dagokionez, egokitu egin daitekeen direkzio zutabea. 15. Karrozeriaren koloreko atzerako ispiluak. 16. 14"ko altzairuzko hagunak, 185/60 R14 pneumatikodunak. 17. Karrozeriaren koloreko kolpe leungailua, babes moldura beltza duena.

**Škoda**Fabia 1.2 64 ZP Spirit. Penintsularako eta Balearretarako gomendatutako salneurria. Garraioa, zergak, eskaintza honen beherapena eta Prever plana barne. Serie mugatua, 1.000 ale. 1.2 64 ZP eta 1.9 SDI 64 ZP motorreko modeloak. Fabia gamaren batez besteko kontsumoa: 4,0-7,5 l/100 km. $CO_2$ isurketak 122-180 g/km. Irudiko modeloa ez da iragartzen dena.

Bezeroarentzako arreta: 902 45 65 75, www.skoda.es

cayenne

UDALAITZ Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

## 1. Zer deritzozu ETA erakundeak su-etena iragartzeari eta iraunkorra izateari?

## 2. Zer baldintza behar dira bakeak eta normalizazio politikoak aurrera egin dezaten?



**Izaskun Moiua**
EMAKUNDE

**1.** Oso berri pozgarria da ETAk su-eten iraunkorra iragarri izana. Zoriondu nahi ditut hau dena posible egiteko lanean atzealdean jardun dutenak eta baita albiste honekin pozteko aukerarik ez dutenak, gure artean ez daudelako.

**2.** Batetik, alderdi politiko guztiak, baita muturrean daudenak ere, mahaiaren bueltan biltzea; bestetik, gizarteak berrestea mahai horretan adostutakoa, behin betirako konponbide demokratikoa lor dadin.



**Miguel Lazpiur**
CONFEBASK

**1.** Confebask-ek poztasunez hartu du albistea; edozelan ere, beharrezkoa da, baita ere, zuhurtziaz hartzea; eta espero dezagun honekin buelta bako egoerara iritsiko garela.

**2.** Indarkeria, mehatxu eta estortsio modu guztiak desagertu egin beharko lirateke. Eta gure ordezkari instituzionalek Euskadik eta euskaldunek horrenbeste behar duten bake iraunkorra lortzeko ahal duten guztia egingo dutela espero dugu.



**Rufina Olasagasti**
EKIN EMAKUMEAK

**1.** Berri pozgarria eta apustu handia da, Euskal Herria organizatzeko pentsaera diferenteak elkarrekin hitz eginez eta hitz egindakoa errespetatuz entendi daitezkeela onartzen duelako.

**2.** Bakeak eta normalizazioak elkarren onarpena eta errespetua suposatzen du, eta helburu diferenteak dituztenen artean elkarbizitza asmatzea eta bideratzea. Guztiona da eginkizun hau, legeak egin eta biolentzia administratzen dutenena bereziki.



**Martin Garitano**
KAZETARIA

**1.** Oso albiste pozgarria da. Iraunkortasun horrek erakusten du ETAren borondatea borroka armatua aurrera ez eramateko. Aldi berean, erakusten du ETAk ez duela desagertzeko asmorik.

**2.** Baldintzak aspaldi daude mahai gainean: batetik Euskal Herriaren nortasuna eta gure herriak erabakitzeko eskubidea duela aitortzea. Bestetik, prozesua martxan jartzeko alderdi zein eragile sozialen arteko eztabaida beharrezkoa da.



**Nekane San Miguel**
EPAILEA

**1.** Edozein pertsona normalek duen iritzia daukat: poza eta itxaropena.

**2.** Azken hilabeteetan entzun eta irakurritakoa gogoratu ondoren, ez dirudi iragarpen hau bat-bateko zerbait izan denik, ongi heldutako erabakia baino, eta horretan dihardutenek jakingo dute zeintzuk izan diren adostutako baldintzak. Irekitako bidea guztion mesedetan joango delako, alde guztietatik malgutasuna egongo delakoan nago.



**Iñigo Biain**
OÑATIKO GAZTELEKUA

**1.** Balorazioak derrigorrez positiboa izan behar du. Norbaitek fitxa mugitzea beharrezkoa zen eta ETAK eman du pauso hori. Iraunkorra izatea ezinbestekoa zen berriketan hasteko.

**2.** Partida Madrilen eta ETAren artekoa dela ematen du. Baina euskal herritarrok izan behar dugu subjektu politiko. Gure esku egon beharko luke aurrerako pausoak zeintzuk izan behar duten erabakitzeak.



**J. M. Velez de Mendizabal**
EUSKO IKASKUNTZA

**1.** Madrilen hartu nuen albistea, eta ingurukoek ilusioz eta itxaropenez hartu zuten, neronek bezala.

**2.** ETA sortu zela 50 urte dira; horregatik, ez da egun batetik bestera desegingo. Eraiki dena deseraiki egin behar dugu, polikipoliki, eraikina gainera eror ez dakigun. Zuhurtasun eta esperantzaz osoz jokatu behar dugu gizarteko sektore guztiok, berdin eskuin zein ezkerrekoek.



**Joxe Arantzabal**
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**1.** Poztu egin naiz, albiste ona delako, ez beharbada onena –ETA desegin dela–, baina bai ona, eta hori abiapuntu egokia izan daiteke ona dena hobea izan dadin.

**2.** Pazientzia izan beharko dugu, eta odol hotza, probokazioak etorriko baitira, bake bidea oztopatu guran. ETAk pauso bat eman duen legez, Espainiako eta Frantziako gobernuek beste horrenbeste egin beharko lukete, presoekin adibidez.



**Leire Lardizabal**
LORAMENDI ELKARTEA

**1.** Ondo dago; alde batek pauso bat eman du, baina lan handia dago egiteko.

**2.** Euskal herritar guztion eskubidea errespeta dadila, eta Anoetako proposamenaren bidetik jarraitzea, hori azpimarratzen dut; eta herriak orain du garaia bere eskubideak aldarrikatzeko. Politikariek aukera hau aprobetxatzeko ahalegina egin behar dute. Su-etena ez da azken helburua, pauso bat baizik.

centro
salgai
945 12 80 60

Residencial Beroa-n azken etxebizitza, lokal eta garajeak. Aretxabaleta.



**Maria Agirre**
KAZETARIA

**1.** Pozik jaso dut albistea. Bakerako bidean pauso garrantzitsua da. Politikariek "sukaldeko lana" egin arren, gizartearen garaipena dela uste dut. Gizartea egoera berri honen zain zegoen. Irrikan zen.

**2.** Baldintzetaz hitz egin beharrean, sen ona eskatuko nieke politikariei. Esaten dute ez dela erraza izango, baina orain arte bizi izan dugun egoera ere zaila izan da. Eskubide politikoekin hasi beharrean, giza eskubideak kontzentzetik hasiko nintzateke, prozesua asko erraztuko baitu. Gaurtik aurrera, asko bizkartzain gabe ibiliko dira. Presoen egoera ere hobetu beharko litzateke.



**Espe Elizondo**
TABERNARIA

**1.** Oso pozik hartu dut. Baina lehenago ere zapuztu dira halako beste bi saiakera eta gurako nuke oraingoan, nahiz eta pitin bat kostata izan, bide onetik joatea.

**2.** Ni neu presoek asko arduratzen naute, haien egoerak, eta pentsatzen dut presoekin lotuta mugimenduren bat egin beharko dutela bakeak aurrera egin dezan. Familiei sufrimendu handia eragin izan die eta eragiten die presoen egoerak, eta zerbait egin beharko lukete. Guk ez dugu ezagutu horrelakorik, baina ea bada, etorkizunean, gure ilobek lasai bizi izateko aukera duten.



**Inazio Arregi**
GOIENA

**1.** Poza eta zirrara sentitu dut. Bereziki, historiaren zati honetan bidean geratu direnengatik, alde batekoak izan nahiz bestekoak, eta Euskal Herri txiki honetan guztiok ezagutu ditugu batzuk. Gaur ezin dira gure artean egon.

**2.** Zapatero jauna jendaurrean saltzen duen irudikoa bada, azkar egin beharko du mugimenduren bat. Alderdien mahaiak etorriko dira; hori antolatzeko denbora beharko dute. Baina Estatuak orain arte presoekin edo Batasuna legez kanpora eraman duen bidean atzera egin beharko du luze itxaron gabe.



**Jose Mari Zezeaga**
PILOTARIA

**1.** Gure belaunaldikook arazo honekin bizi izan gara, eta bada ordua gatazka politikoari konponbidea bilatzeko. Bakea lortzeko aurrerapauso inportantea da ETAk su-etena iragartzea. Hobe litzateke iraunkorra baino behin betikoa izatea, baina urrats garrantzitsua da, zalantzarik ez.

**2.** Alde guztiek amore eman beharko dute akordiora iristeko. Nahiz eta prozesu luzea eta zaila izan, eutsi egin behar zaio, eta herritarren interesei lehentasuna eman. Alderdien interesen gainetik, herriaren eta bakearen aldeko lanari eman behar zaio lehentasuna.



**Koldo Lasa**
SUKALDARIA

**1.** ETAren su-eten iraunkorraren iragarpena poz handiz hartu dut, herri honetako jendearen gehiengoak hartu duen bezala. Gertakari honek ongizatea bakarrik ekar diezaguke denoi. Oso gustura nago albistearekin, bai.

**2.** Bake prozesuaren aurrean gaude, eta oso delikatua izango dela deritzot; baina politikarien eskuetan dago, batik bat. Nire ustez, orain ordezkari politikoen arteko akordioak beharrezkoak izango dira. Guztiondako ona izango den irtenbide negoziatua behar da, eta hori lortzeko, politikarien arteko adostasunak behar dira.






## Tere Gabilondo

BERGARAKO DENDARIEN ELKARTEA

**1.** Zoragarria da eman diguten albistea. Su-etena iragartzeko momentu hau aukeratu dutenerako, aurrez ongi landutako erabakia dela uste dut.

**2.** Baldintza nagusia gai hauen gainean lasai berba egitea da. Politikoek pisu handia dute, dudarik gabe, baina herritarrok, kaleko jendeak, hitz egin behar dugu denok elkarrekin. Ezinikusiak ahaztu eta elkarri barkatuta bake bidean aurrera egingo dugula iruditzen zait.



## Jose Riviere

ERRETIRATUA

**1.** Albiste bikaina da, ezin delako beldurrarekin bizi; aurrera egin behar da, ahalik eta on handiena sortuz norberarendako eta besteendako.

**2.** Mota guztietako biolentziak bukatu egin behar du, kalean eta kartzeletan, eta politikariek erakutsi behar dute herriaren ongizaterako daudela hor, eta ados jarri. Ideia bat alderdi batek ematen badu, edozein alderdi izanda ere, ideia hori ona baldin bada, buru-belarri eutsi behar zaio.



## Elena Laka

ABOKATUA

**1.** Su-etena iragarrita, ETAk beharrezkoa zen pauso bat eman du konponbidearen prozesuan sartzeko. Bukaera baldintzarik gabeko eta bukaera datarik gabeko su-etena da, eta beraz, balio handiduna dela iruditzen zait.

**2.** Gizartearen adostasuna, alderdi politikoen konponbiderako borondatea eta Euskal Herriari errespetua dira ezinbesteko baldintzak. Eta hori guztia ondo gestionatzeko eta bideratzeko gaitasuna.



## Arantza Jaka

MOJA

**1.** Oso albiste ona da Euskal Herriarendako eta mundu osoarendako.

**2.** Zuhurtasunez jokatzeko unea da. Bidea irekita dago, baina luzea izango da; prozesuan, pertsona askok eta egoera askok parte hartuko dute. Horien guztien arteko adostasuna bilatu beharko da, errespetu handiarekin jokatu, orain arteko egoera buka dadin nahi badugu. Politikariek buru-belarri lan egin beharko dute, baina denon babesa behar dute.



## Ana Toledo

EUSKALTZAINA

**1.** Berebiziko berria da, eta bizia eragin du herriarengan. Itxaropenari leihoa da, aberrigintzari, kulturgintzari, euskalgintzari aukera berriak ematen dizkio. Denok asmatu behar dugu gizarte berria eraikitzeko oinarri sendoak jartzen. Guztion esku dago.

**2.** Prozesuak aurrera egiteko, bi baldintza ikusten ditut: batetik, indarkeria behin betiko uxatzea; bestetik, euskal herritarron gogoari eta borondateari jaramon egin diezaiotela.



## Asier Altuna

ZINEMAGILEA

**1.** Poztasun handia ekarri dit ETAren iragarpenak. Hau gerta zedin sekulako gogoa genuen guztiok, eta azkenean gertatu da.

**2.** Gure esku dago bake prozesua bide onetik joatea; ez dago beste irakurketarik. Politikarien, Estatuen eta egoera honetan erantzukizuna duten guztien esku dago, baina baita gizartearen esku ere. Lehengora buelta gaitezkeen beldurra dago, eta bake prozesuak gure ahalegin guztia behar du.



## Iratxe Aranburu

KIROL TEKNIKARIA

**1.** Une historikoa da hau, baina prozesu luze baten ondorioa da, bideko puntu bat. Aurrera goaz, eta baikor izateko arrazoiak daude, horregatik harritzen naute ezkor izan nahi dutenek.

**2.** Borondatea eta hori nola gauzatzen den eta bakoitzak zenbaterako borondatea duen bi gauza desberdin dira. Orain ikusiko da zenbateko aitzakia dagoen soro honetan ezer ez jartzeko. Aitzakia aitzakia dela ikusiko da.

### **1.** Zer deritzozu ETA erakundeak su-etena iragartzeari eta iraunkorra izateari?

### **2.** Zer baldintza behar dira bakeak eta normalizazio politikoak aurrera egin dezaten?



## Pello Zabala

FRANTZISKOTARRA

**1.** Lehenengo pausoa da, beharrezkoa, eta asko jarri dute jokoan. Baina bidea luzea da: hemendik urte askora oraindik autodeterminazioarekin ametsetan jarraituko dugu askok.

**2.** Alderdi bakoitza erretratatu egingo da orain. Herriaren gogoak eta ametsak gauza bat dira eta batzuen interesak gurdi hau mugitzek beste bat, eta gurdi hori lokatzean kokatuta geratuko zaigu askotan.



## Ines Osinaga

MUSIKARIA

**1.** Oso positiboa da iragarpen hau Euskal Herriarendako. Alde batek eman du pausoa, baina bi alderdien eskuetan dago kontua; beraz, politikariek eutsi behar diote orain enbidoari.

**2.** Borroka armatua eten arren gatazka politikoak bere horretan dirau. Beraz, ezinbesteko baldintza dira, besteak beste, euskaldunoi hitza ematea, presoak etxera ekartzea, giza eskubideak errespetatzea...

Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta
Euskadi

**LANGABETUEI ZUZENDURIKO IKASTAROAK** (%100EAN SUBENTZIONATUAK)

INEM-EKIN ELKARLANEAN FSE-ren dirulaguntzarekin

UNIÓN EUROPEA Fondo Social Europeo
INEM

| IKASTAROA | ORDUAK | DATAK | ORDUTEGIA |
|---|---|---|---|
| AJUSTATZAILE MEKANIKOA | 419 | 06/04/10-06/09/29 | Apirila, Maiatza 14:00- 19:00<br>Ekaina, Uztaila 08:00-14:30 |
| MAKINA ERREMINTAREN OPERATZAILEA | 444 | 06/05/31-06/11/15 | Apirila, Maiatza 14:00- 19:00<br>Ekaina, Uztaila 08:00-14:00 |
| MANTENIMENDU MEKANIKOA | 409 | 06/04/10-06/07/24 | Apirila, Maiatza 14:00- 19:00<br>Ekaina, Uztaila 08:00-14:30 |
| CNC BITARTEZ MAK-ERREM. PRESTATZAILE PROGRAMATZAILE | 444 | 06/05/12-06/11/03 | Maiatza, iraila, urria, azaroa 14:00-19:00<br>Ekaina Uztaila 08:00-14:30 |
| MANTENIMENDU ARGIKETARIA | 349 | 06/06/19-06/10/18 | Ekaina Uztaila 08:00-14:30<br>Iraila, Urria 14:00-19:00 |

**Praktikak enpresetan, ikastaroa bukatu ondoren**

Tel.: 943.74.41.32 Eli Pozo. Ordutegia: 08:00-13:00 / 14:30-17:30 Faxa: 943.74.41.53 Azkue auzoa 1, ELGOIBAR e-posta: eli@imh.es Izena emateko azken epea: 06/04/11

**INGURUMENA** > ARAZTEGIAK

# Uda ostean hasiko dira Epeleko araztegiarekin

Dagoeneko eskuratuta dute lurzorua araztegia egiteko, Roneo lantegiaren ondoan

48 hilabete dituzte lanak bukatzeko; Dragados y Construcciones enpresak eraikiko du

UBANE MADERA > ARRASATE

Bi gune izango ditu Epeleko araztegiak: bata, Roneo lantegiaren ondoan. Han pabilioiak eraikiko dituzte; beste gunea, berriz, autobidearen ordainlekutik gertuago eraikiko dute. Han ur biltegiak eraikiko dituzte. Hala adierazi digute Espainiako Iparraldeko Ur Konfederazioan; izan ere, Estatuko Gobernuak eraikiko du Epeleko araztegia.

Halaber, jakinarazi digutenez, lanok egiteko 26,3 milioi euro ditu Dragados y Construcciones enpresak eta lanak hasi ostean, lau urte izango ditu guztia bukatzeko.

**INGURUKO UR GUZTIAK BATU**

Epeleko araztegian garbituko dituzte Eskoriatzako, Aretxabaletako, Arrasateko eta Oñatiko ur zikinak. Hain justu ere, Leintz ibarreko herrietako urak zuzenean eramango dituzte Epelera. Eta horretarako, azken urteotan ur zikinak batzeko kolektoreak eraikitzen ibili dira herri horietan. Horren harira, Eskoriatzan eta Arrasaten oraindik lantxo batzuk egitea falta zaizkie.

Oñatiko ur zikinak eramateko, berriz, Zubillaga-Epele artean kolektore edo hodi bat eraikiko dute. Hodi horrek Elorregitik Arrasaterainoko mendia tunel bitartez gurutzatuko du. 2.007 metro luze izango da ; 1.375 metro hodi sartuko dute tunelean, Arrandiburu mendian zehar.

Aurreikuspenen arabera, Epeleko araztegiak 1.520 litro ur segundoko hartuko ditu.

**MEKOLALDEKO ARAZTEGIA**

Bestalde, Deba ibaia garbitzeko beste araztegi bat eraikitzen dabiltza. Kasu horretan, Jaurlaritza dabil lanok egiten, eta Mekolalde auzoa aukeratu dute kokagune moduan. Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailetik jakinarazi digutenez, obrak bide onetik doaz, eta, ezustekorik ezean, "aurreikusitako epeak beteko ditu". Horrek esan nahi du 2007ko uztailerako bukatuko dutela araztegia. 11.513.000 euroko aurrekontua dute lanok eta Pridesa eta Amenabar enpresek osatutako aldi baterako enpresaelkartea dabil eraikitze lanak egiten. Hain zuzen ere, orain, besteak beste, hasi dira han eraiki behar duten zubi berriaren aurreneko lanak egiten.

Jaurlaritzatik jakinarazitakoaren arabera, 40.000 erabiltzaileren (pertsonak eta industria) ura batu eta garbituko du Mekolaldeko araztegiak; bestela esanda, Antzuolako, Elgetako eta Bergarako urak garbituko ditu.

Jakinarazi digute, baita ere, araztegi horrek merkatuko metodo berrienak erabiliko dituela; esaterako, energia lortuko du berak sortzen duen bio-gasa erabilita. Era berean, Mekolalde baserria berritu eta han ipiniko dituzte araztegiaren zenbait instalazio.

DATUAK BEGI BISTAN

**> LEINTZ IBARREKOAK EPELEN**

Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñatiko urak garbituko dituzte Epelen. Estatuak eraikiko du araztegi hori eta uda ostean hasiko dituzte lanak. 26,3 milioi euroko aurrekontua dute eta lau urteko epea bukatzeko. 1.520 litro ur segundoko hartuko ditu.

**> BERGARAKOAK MEKOLALDEN**

Mekolaldeko araztegian Antzuolako, Bergarako eta Elgetako urak garbituko dituzte, 40.000 erabiltzaileren (pertsonak eta industria) urak. Lanak 2007ko uztailerako bukatuko dituzte. 11.513.000 euroko aurrekontua dute. Jaurlaritzak eraikiko du.




Servimasa
Sukalderako altzariendako osagarriak
FAGOR
etxetresna elektrikoak
• Kooperatibistentzako banatzaile espezializatua
• Baldintza ezin hobeak
Tel.: 943 76 19 95
BERGARA

**Edozein premiatarako:**
• Antzutasuna
• Erditzeak
• Antisorgailuak
• Menopausia
• Ekografiak (4D)
• Titietako gaixotasunak
• Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
• Hezur dentsitometria

**Zure zerbitzura:**
• Antonio Estomba
• Fernando Cristobal
• Alfredo Otalora
• Jose M. Gomez
• Maite Albizu
• Domingo Murgiondo
• Miguel Gabarain
• Maria Jose Ruiz
• Fatima Azkue
• J. Rodriguez
• Mikel Gorostidi

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO

Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE**
**Zerkaosteta 17**
**943 79 20 18**
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88



**ERLIJIIOA** > ARANTZAZURA IBILALDIA

# Apirilaren 8an egingo dute urteroko ibilaldia Arantzazura

## Arantzazuko errepidea 08:30ean itxiko dute ibilgailuendako; autobus zerbitzu berezia egongo da

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Apirilaren 8an, Erramu Zapatuan, egingo du Donostiako Elizbarrutiak Arantzazura ibilaldia. Juan Mari Uriarte Gipuzkoako gotzaina joango da ibilaldiaren buruan.

**ZORTZI KILOMETRO OTOITZEAN**

*Kristau elkarteak berritzen* goiburua aukeratu du aurten Donostiako Elizbarrutiak urtero egiten duen Arantzazuko igoerarako.

Igoera 09:30ean abiatuko da Soraluze hotelaren paretik. Zortzi kilometro ditu igoerak eta otoitz eta kantu giroan egingo dituzte elkartuko diren lagunek. Amaia Agirreren bertsoak entzungo dituzte eta isilean joateko momentuak ere egongo dira. Kalkulatu dute martxa 11:45ak aldera iritsiko dela Arantzazura, eta hango zabalgunean otoitza egingo du Uriarte gotzainak. Amaitu aurretik, mezu bat adieraziko die Donostiako apezpikuak ibilaldia egingo dutenei.

**165 BOZGORAILU ETA AUTOBUSAK**

Ibilaldia hasi baino ordubete lehenago itxiko dute Arantzazura doan errepidea, 08:30ean. Igoerak dituen zortzi kilometroetan 165 bozgorailu jarriko dituzte antolatzaileek eta joango diren autobusen antolaketa ere lotuta dute. Oñatira jaisteko autobus zerbitzu bereziak egongo dira egun horretan.




> KONPONBIDERAKO DEIA

## Herritar talde batek konponbide demokratikoaren aldeko manifestaziora joateko dei egin du

Debagoieneko herritar talde batek Bilbon apirilaren 1ean egingo duten manifestazioan parte hartzeko dei egin du, asteon Arrasaten egindako prentsaurreko baten. Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoa sinatu duten 55 eragile politiko, sindikal eta sozialek deitu dute manifestazioa.

Manifestaziora joateko dei egin dute, "Euskal Herrian bizi dugun gatazka politikoa konpontze bidean jarri gura dugulako, gatazkaren konponbideak kontsentsu demokratiko zabala eskatzen duelako". Prozesuari buruzko informazio txostenak aldiro-aldiro argitaratzeko ardura hartu du Bilboko manifestazioa deitu duen konponbidearen aldeko taldeak.




Arrasaten egin zuten prentsaurrekoa. DEIANE ARRIETA

> GAMEI

## Gameiko langileek esker ona erakutsi nahi diete lantegiaren etorkizuna bermatzen lagundu dutenei

Publikoki azaldu nahi diete esker ona, batetik, lantegiko akzioen %96,22ren jabe ziren akziodunei, euren akzioak ematearren irabazi ekonomiko barik eta gutxieneko akziodunen akzioak erostearren, langileei trabarik ipini ez dietelako.

Horrez gainera, bereziki eskerrak eman gura diete "Gameiren jarraikortasunaren konponbide bakarra Fagor Arrasate zela hasieratik ikusi zuten gehiengo akziodunei". Gaineratu dute haiek pertsonalki arduratu direla Fagor Arrasaterekin egin duten negoziazioarekin eta haiei esker, burokrazia kontuak gauzatu eta gero, etorkizun hurbilean Fagor Arrasatek Gamei bereganatuko duela, enpresaren eta lanpostu gehienen jarraikortasuna bermatuz.

> UDALEKUAK

## 7 eta 17 urte bitarteko gazteendako udalekuak antolatu ditu Aldundiak aurtengo udarako

7 eta 17 urte bitarteko gazteendako udalekuak antolatu ditu aurtengo udarako Gipuzkoako Aldundiak. Euskara eta ingelesa ikasteko udalekuak ere antolatu ditu. Zazpi, hamar edo 15 eguneko egonaldiak izango dira eta ordaindu beharreko kopurua aukeratutako egonaldiaren araberakoa da. 7 eta 13 urte bitarteko gazteek martxoaren 30etik apirilaren 7ra bitartean eman behar dute izena eta 14tik 17ra bitartekoek apirilaren 20tik 28ra. Udalekuen kopurua mugatua da, eta zozketa egingo dute. Interesatuek Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza, eta Oñatiko gazte bulegoetan jasoko dute behar duten informazio guztia eta hantxe emango dizkiete azalpen guztiak.

> AHT GELDITU!

## AHT gelditzeko dauden mila arrazoien artean nork berea emateko kanpaina abiarazi dute

Gasteiz eta Madrilgo gobernuek sinatu dute protokoloa Abiadura Handiko Trenaren obrak hasteko. Nafarroako Gobernuak ere eraiki gura du, eta AHT Gelditu! Elkarlanak kanpaina bat abiarazi du proiektua gelditzeko. Egitasmo hori gelditzeko dauden mila arrazoien artean nork berea emateko kanpaina da eta martxoan, apirilean eta maiatzean egingo dute. Eta martxan dago kanpaina dagoeneko. Helburua da AHT proiektuak dakarren ondorioen inguruan eztabaida soziala bultzatzea, proiektua gelditzeko indarrak metatzea eta herritarren, elkarteen, sindikatuen eta kaltetuen aldetik jarrera aktiboa izatea proiektua gelditzeko. Sinadurak batuko dituzte eta gizarteko kide guztiei euren arrazoia eta konpromiso txiki bat eskatuko zaie.

gure artekoak

**GOI SOLUTIONS** > Esperientzia handia dute multimedia eta komunikazio arloan, baina bi hilabete eskas dira enpresa berria abian ipini zutela. Arrasaten dute bulegoa eta batez ere Debagoienean egiten dute lan.

Asier eta Unai Etxebeste

# "Komunikazio eta teknologia proiektuak garatzen ditugu"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

**Teknologia berriak gero eta esparru gehiagotara iristen diren honetan, Goi Solutions enpresakoek komunikazio lanak egiten dituzte enpresa zein erakundeendako, gaur egungo baliabideak erabilita. Arrasaten dute bulegoa.**


Unai Etxebeste, Cristina Pombar eta Asier Etxebeste lantokian. I.A.

**Nolatan sortu zenuten Goi Solutions enpresa?**

Multimedia arloan ibilbide luzea egin dugu. 14 urte badira komunikazio lanetan dihardugula; teknologia berriekin lotutako komunikazio jardueretan, gainera. Aurrez beste proiektu baten jardun genuen biok, eta gero hura utzi eta denbora batera ekin genion proiektu berri honi.

**Zertan jarduten duzue?**

Komunikazio arloan egiten dugu lan: Interneten eta beste euskarri batzuetan. Web orriak, sareko katalogoak, DVD eta CD bikoizketak... egiten ditugu. Azkenaldian batez ere e-marketing-ean (marketing kanpainak Internet bidez) dihardugu.

Produktuak sortzeaz gain, horien jarraipena ere egiten dugu.

**Nolako bezeroak dituzue?**

Ez daukagu bezero mota zehatzik. Batzuetan AZK agentziarekin elkarlanean aritzen gara (Mondragon Unibertsitatea, JMA, Lana, Goitek, eta abarrendako lanak egiten); bestalde, Eusko Jaurlaritza, Kutxa, Lapitz Digitala eta enpresa txikiendako ere egin dugu lan. JMArendako katalogo bat dugu orain esku artean, eta ilusio handiz dihardugu horretan.

**Zein dira lanaren alde onak eta txarrak?**

Txarra orduak; eta batez ere denboraren aurka jokatzeak. Ona, berriz, egindako lanekin gustura geratzea.

FITXA TEKNIKOA

**> WEBGUNEA**
*www.goisolutions.net* helbidean dago eurei buruzko informazioa.

**> LANGILEAK**
Asier eta Unai Etxebestek eta Kristina Pombarrek dihardute lanean; eta hemendik gutxira beste langile bat hasiko da.

**> LAN ESPARRUA**
Debagoienean egiten dute lan gehienbat; horretaz gain, Nekatur, Kutxa eta Eusko Jaurlaritzarendako ere bai.

etxeko leihotik


**Julen Iriondo** > GOITBko albistegietako arduraduna

# Gatazka da, iraunkorra eta eskubide kontua

Eta ez naiz egoera politikoaz ari. Gatazketan gatazka nagusi duguna konpondu eta gero ere beste hamaika gatazka txikik hor iraungo du, uste dut tamalez.

Iraun bai. Iraunkortasunean irauten duen gatazka iraunkorra da errepideetakoa ere, bizikleta-zaleen eta auto gidarien artekoa. Hemen ere sarri, indartsuena ez dago txikiak txikia izanda ere badituen eskubideak errespetatzeko gertu; eskubidea bai, ze gidariek bizikletan doazenei "beti traban, jarri zaitezte lerroan, bata bestearen atzean!", baina zer dio legeak?

Bide Segurtasun Legeak dio ziklistek badutela taldean joatea, eta eurei aurreratzeko badaitekeela beste erreia zati batean edo osorik erabili, aurreratzea galarazita dagoen tartea izanda ere, arriskurik ez dagoenean betiere.

**"Land Roverrek ere sortzen dituzte ilarak, eta txirrindularien famarik ez dute"**

Prozesua poliki joango omen da, ez Mercedesaren abiaduran, Land Roverrean baizik. Gidari askok ere horixe, Land Roverra irudikatu behar lukete txirrindulari taldea ikusitakoan. Ziur ez dutela ezer sarri bizikletadunek besteko ilarak sortzen dituzten baserritarren aurka. Eurena ere bada bidea, gurea ere bai. Elkarbizitza da gakoa.

**> Iraunkorra** da **irauten duena, edo irauteko joera duena, txirrindularien eta gidarien arteko gatazka beraz. Konpontzea badago, baina borondatea behar da, eta eskubideen errespetua.**

**> Eskubidea** da **bizikletan doazenek taldean joateko dutena, legeak emandako eskubidea. Gidari askok ez du jakingo, baina Bide Segurtasun Legeak dio ziklistek badutela taldean joatea.**

begi-bistan



**Ostadarra Larrinon (Aretxabaleta)**
**2006/03/19**

**Argazkia:** Iratxe Bengoa.
**Testua:** Irati Agirreazaldegi.

*Arrats ostadar, goiz eguzki*, dio esaerak, eta hala gertatu da asteon. Domeka arratsaldean zaparradaren ostean atera zen ostadarra eta astelehen goiza eguzkitsu esnatu zen.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

izen propioak



**Sabina Velez Mendizabal**
MOJA

Peruko Kongresuko urrezko domina jaso berri du Arrasateko Sabina Velez Mendizabal mojak. Urtetan Perun egindako lana eskertu nahi izan dute horrela. 45 urte daramatza Perun, eta arlo askotan egin du lan; batez ere emakumeei eta txiroei laguntzen.



**Asier Altuna**
ZINEMA ZUZENDARIA

Gaur estreinatuko da Donostiako Zinema eta Giza Eskubideen Topaketetan Asier Altunaren *Sarean* film labur berria. Etorkinen gaia landu du Altunak bere azken lanean. Aurrez *Txotx*, *40 Ezetz* eta *Topeka* film laburrak eta *Aupa Etxebeste!* film luzea zuzendu ditu bergararrak.



**Aitor Orueta**
ENTRENATZAILEA

Aloña Mendiko preferente mailako taldearen entrenatzailea da Aitor Orueta. Bere esanetara taldea sailkapeneko lehen tokira iritsi da. Abenduaren hasieratik ez du partidu bat bera ere galdu. Aste honetan hamargarren postuan dagoen Hondarribiako talde izango du aurrez aurre.

Fernando Lete antzuolarra Elkarriren koordinatzailea izan da Debagoienean; Lokarriko kidea da orain. 16 urte zituela hasi zen alderdi baten edo bestean militatzen eta gaurko egoera ez dela berdina ikusten du, jendeak ez duela militatzeko beharrik sentitzen. Berak, ordea, denak animatu gura ditu eta orain arte bezala aurrera jarraitzeko deia egiten die guztiei.

**Fernando Lete** > Lokarri

# "Ondo bukatuko da prozesua, eta bakea Irlandan baino azkarrago helduko da"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

**Aberri eguna baino lehen heldu da su etenaren berria. Orain, bake prozesua beste 13 urte baino lehen gauzatuko den esperantza eta gogoa du, behintzat, Fernando Letek, eskubide historikoen garrantzia gogorarazten duen bitartean .**

**Zelan hartu duzu su-etenaren notizia?**

Oso pozik. Esperantza eta itxaropen handiak ditut, eta prozesua ondo bukatuko den esperantza daukat. Gorabeherak izango ditu, baina Irlandako bake prozesua baino motzagoa izango dela uste dut. Han duela 10 urte hasi zuten prozesua, baina geldi dago orain; Euskal Herrikoa ondo aterako dela uste dut, eta han baino azkarrago gauzatuko dela. Ez da eperik jarri behar, baina ezta atzerapausoak eman ere. Gatazkak sortutako mesfidantza egoerak berreskuratu egin behar dira. Bestalde, iraunkorra dela esaten dutenean, Irlandako deklarazioaren antza du horrek, baina nik serioagoa dela uste dut, sakonagoa dela eta indar handiagoa duela uste dut.

**Ze pauso eman behar ditu orain Espainiako Gobernuak?**

Humanizazio prozesua hasi behar da orain: presoen egoeraren inguruan zerbait egin behar du gobernuak eta gatazkako biktimei ere lagundu behar die. Bestalde, alderdien ilegalizazioa ere hautsiko dela uste dut eta datozen udal hauteskundeetan Batasunak ere parte hartuko duela uste dut; hartu beharko luke, behintzat.

**Ze jarrera hartuko du orain alderdi popularrak?**

Eszeptiko agertu da orain arte, baina normala da, ezin duelako urtetako diskurtsoa egun batetik bestera aldatu. Europan ere hasi dira etorkizunari buruz hitz egiten eta PP ere sartuko da bake prozesuaren dinamikan.

**Lokarriren lana erraztu egin du su-etenaren notiziak?**

Beste prozesu bat gertu sumatzen genuelako sortu zen Lokarri eta behin egoera ofiziala izanda, lana erraztu eta azkartu egiten da, bai.

**Ze lotu gura du Lokarrik?**

Zubigintzan ibili gara eta ez da erraza izan. Euskal Herrian bertan ere ikusi dugu EAJ eta EA eta Ezker Abertzalea banandu zirenean nolako gorrotoa sortu zen. Ez da erraza aldeak batzea, zauriak sendatzea ere kosta egiten da, baina jarraituko dugu bake prozesua indartzen.

**Nola antolatuko da Lokarri?**

Ez dugu egitura lokalarekin, herrialdekoarekin jarraituko, beste modu batean antolatuko gara: sarea, internet, erabiliko dugu, adibidez.

**Aldarrikapen astea da hau. Zein da Lokarriren aldarrikapena?**

Alderdien mahaia ahalik eta azkarren sortzea, biolentzia eza, bazterketarik gabeko elkarrizketa eta bake prozesua hastea. Atzeratzen bada, puskatu egingo da. Prozesua mugatuta dago, hauteskundeak datoz eta; hurrengo udal hauteskundeak baino lehen hasi eta gorpuztu behar da. Epeak luzeak izaten dira, gora eta behera egiten du prozesuak eta hortxe egon behar gara denon artean bultza egiteko.

**Zein zen duela 13 urteko egoera politiko eta soziala eta zein da oraingoa?**

1994an hasi ginen sinadurak batzen elkarrizketa eta akordioaren alde. Orduan, elkarrizketa hitza bera hitz zakarra zen; bai PPk bai PSOEk ETAren aldeko kanpaina egiten ari ginela esaten zuten. Hasiera gogorra izan zen. Egun, elkarrizketa eta alderdien mahaia ia lortuta daudela ikusten dugu.

Duela 13 urteko gizartea ere ez zen oraingoaren berdina. Argeleko negoziazioak bizi genituen orduan. Tentsioa gogorragoa zen eta herriak ere gogorrago erantzuten zuen. Orain, jendeak onartu du elkarrizketa bidez eta esklusiorik gabe egin behar dugula aurrera, errepresioaren eta borroka armatuaren zikloa bukatu dela elkarrizketa bidez aurkitu beharko dugula konponbidea.

**Zer da konponbidea, bakea eta su etena?**

Konponbidea da gatazkari irtenbidea bilatzea. Elkarbizitzarako akordioak egon behar dira gatazka bizi duten alderdien artean eta euskal gizarteak bilatu behar dugu bide bat elkarbizitzarako.

**Politika egiteko ordua iritsi da orduan?**

Bai. Alderdiek hitz egin beharko dute eta baita Espainiako Gobernuak eta ETAk ere; beste akordio batzuk egin beharko dituzte orain.

**Ze puntu adostu behar dituzte bakea lortzeko?**

Eginoko mahaiak egin du bere metodologia lana eta iritsi dira akordio batera baldintza minimoak jasotzen dituena: transbertsalitatea, alderdien arteko akordioak edo zer egin alde batek beti ezetz esanez gero. Puntuak adosteko kontua, baina. alderdi politikoen lana da. Guk metodologia plan bat, Eginokoa, bidali diegu alderdiei alderdien mahaia osatzeko.

**Eta gizarteari, herritarrari, zer eskatzen diozue?**

Lokarrik behatokia egingo du bake prozesua jarraitzeko: 10 lagunek osatuko dute, politikan ez beste arlo batzutan erreferente diren lagunak. Hiru hilabetean behin txostena egingo dute.



O.E.

ANTOLAKETA

**"Lokarrik ez du egitura lokalik izango, sarea, internet erabiliko du antolatzeko"**

BEHATOKIA

**"Bake prozesua jarraitzeko behatokiak txostenak egingo ditu hiru hilean behin"**

ALDERDIEN MAHAIA

**"Ahalik eta azkarren eratu behar da alderdien mahaia; politika egin behar da orain"**



zabalik

Maite Aristegi

# Txorien negarra

Egunsentiko txori-kantuek udaberriaren etorreraz ohartarazi naute. Eguzkiaren argi berriak, haizearen laztanak halako bizi-poz eta askatasun bat ekarriko balute bezala. Edo izango da horren beharrean gaudela? Denon burutan bake-prozesu ikusezin hori (Non dago Wally?), herriaren erabakitzeko gaitasun hori gauzatzeko ametsa…, arnasa sakon hartu eta irakurtzen hastean laino beltz batek ezkutatu ditu eguzki izpiok. Adarrez adar kantari dabilen txantxangorriari begira, kartzela zulotik kartzela zulora dabiltzanak gogora.

Bi berri hauek parez pare. Bata: "Hamabi euskal preso are gehiago urrundu dituzte azken hilean". Lehen eurak ikusteko 5.755 km. luze arriskutsu egin behar, orain 10.125. Eskerrak talanteari! Bestea: "Beste behin, tortura eta tratu txarrak salatu zituen Langraitzeko preso bat bere buruaz beste egiten saiatu da".

Bi urtetan zortzi heriotza. Larrialdietako Plana iragarri zenetik hildako bat eta hiru suizidio ahalegin. Salaketaren batzuk aztertzen ei dabiltza, baina zenbat heriotza, tratu txar eta sexu jazarpenen ondoren? Benetako arazoa ez da eta zuzendari edo funtzionario batzuena, bizitzeko gogoa kentzen duen espetxe sistema batena baizik.

Eta berdin preso politikoekin.

**"Gallizok ez ei dauka aldatzeko asmorik sakabanaketa politika"**

**"Udaberria garai ona da hitzetatik ekintzetara pasatzeko"**

Azkeneko gertaera latzak oraindik gogoan, Gallizo Espetxeetako zuzendariak ez ei dauka sakabanaketa politika aldatzeko asmorik. Eta togadunak, lege guztiak hankaz gora jarriaz presoak usteldu arte barruan edukitzeko erabakiak hartzen! Eta Lakuako alderdiek non erakusten dute Estatuaren indarkeria honekin bukatzeko borondatea? Euren utzikeriak lagunduta espetxe politikak samina areagotzen, erailtzen jarraitzen du.

Udaberria garai ona litzateke, bada, hitz onetatik benetako ekintzetara pasatzeko!

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Leire Kortabarria, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Natali Martinez, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza — Gipuzkoako Foru Aldundia — Arrasateko Udala — Bergarako Udala — Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala — Eskoriatzako Udala — Antzuolako Udala — Aramaioko Udala — Elgetako Udala — Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## ERDI AROKO AZOKA

**Birritan egin dute Arrasaten Erdi Aroko azoka, eta arrasatear batek zera galdetu digu honen harira: Aurten egingo da Erdi Aroko azokarik Arrasaten?**

Arrasateko Udaleko Kultura Zinegotziak esan digu aurten ere egingo dutela azoka. "Maiatzaren 20an eta 21ean izango da azoka eta aurreko urteetako formatua mantenduko du. Postuak Iturriotz kalean, Erdiko kalean, Portaloian eta Seber Altuben ipiniko dituzte", esan digu Ines Aldaik. Iaz parte hartu zuten herriko taldeekin harremanetan jarriko dira egun horretan ekintzak egin ditzaten, eta asmoa da aurten partehartzea handitzea.

## ERRENTA AITORPENA

**Gertu dago errenta aitorpena egiteko garaia eta irakurle batek zera galdetu digu honen gainean. Noiz hasi eta noiz amaituko da errenta aitorpena egiteko epea?**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Sailean eman digute honen gaineko informazioa: "2005eko zerga ekitaldiari dagokion kanpaina 2006ko apirilaren 24an hasi eta 2006ko ekainaren 26an amaituko da. Hala ere, komeni da kontuan izatea auto likidazio proposamenak 2006ko apirilaren 18tik aurrera onartu ahal izango direla, eta errenta mekanizaturako hitzorduak apirilaren 21etik aurrera eskatu.

Gainera, Ogasun Sailak hainbat zerbitzu telematiko eskaintzen ditu *www.gipuzkoa.net* helbidean; errentaren gaineko atalean, hain zuzen ere. Honek ahalbidetuko du errenta mekanizaturako hitzordua eskatzea; zergadun jakin batzuei postaz bidalitako auto likidazio proposamenak onartzea; laguntza programak jaistea; errenta eta ondare aitorpenak internet bidez aurkeztea; itzulketen egoerari buruz galdetzea; gako operatiboa eskuratzea; eta zergen gaineko informazioa on-line izatea.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## NAZIOARTEKO EGUNAK

**Urteko zenbait egun, nazioarteko egun izendatzen dituzte. Noren ardura da egun horiek finkatzea?**

Nazio Batuen Erakundeak zehazten ditu data horiek. Horretarako, Nazio Batuen Asanblada Orokorraren erabaki ofiziala beharrezkoa da. Finean helburu berdintsua duten arren bereizi behar dira nazioarteko eguna eta munduko eguna. Munduko egunetan, gizarteko arlo guztiak inplikatu behar dira kausa unibertsal batekin. Urtarrilean izan ezik gainontzeko hilabete guztietan daude horrelako egunak.

marrazkiz

Alex Ugalde




blog

# Botelloia, amama Kipuletan begixetatik

Leire Narbaiza
www.eibar.org/blogak/leire

Aspertuta nago tontokeri-xak entzutziakin! Ikerketa baten ostian, soziologuak topau dabe botelloian zergaittixa: gaztiak zailttasunak dakez helduen munduan sartzeko. %60k ez dake ez etxerik, ez biharrik, ez bikotekiderik. Hori dala eta, lagun artia bihurtzen dabe basleku, eta botelloia egitten dabe! A!!!!

Oiñ Amama Kipuletan espirituak hartuko nau (gero eta gehixago nabill holan, eta kezkatzen hasitta nago!). Ikasten amaittu nebanian —larogeta hamarreko harmarkadian hasieran— kuadrillako bik baiño ez zeben egitten bihar, familixako negoziuetan gaiñera. Nik nahiko bizkor topaun neban biharra, baiña ebentualidadian jarraitzen dot. Ez zeguan biharrik iñun, ezta zaborkontratuak be ez!. Iñor akordatzen da zenbat jente juaten zan Londresera inglesa ikastera-edo?

Etxia erostia eziñezkua zan, interesak %17xan zeguazelako (ezagun batek ehun milla pezeta baiño gehixago pagatzen zeban hipotekia oiñ hamabost urte!. Babes ofizialeko etxerik be ez zeguan barren. Alokatzeko etxerik be ez.

Gurasuak paruan, rekonbersiño industrialan sasoia, eta poltsikuan diru gitxi. Hori bai, tabernetan ibiltzia askoz merkiagua zan. Elgobarrera juaten hasi giñanian (hau larogeiko hamarkadian amaieran! Bai, gure belaunaldixa hasi zan bertara juaten) ehun pezeta jartzen genduan botian eta hamar gorri gasakin edaten

plazara

Arrasateko Bai Euskal Herriari herri ekimenak, Euskal Herriko Naziotasun Agiria edo EHNA txartela bultzatzen duenak, beste ekimen bat aurkeztuko du bihar, zapatua, Monterronen: gida. Herriko denda eta tabernetan EHNA txartela erabiltzeko gida. Horrekin nahi dutena da EHNA egitera ez ezik erabiltzera animatu jendea. Izan ere, Arrasateko 167 komertziotan onartuko dute txartel hori.

Iker San Miguel Lizarralde *

# EHNAren erabilpenerako komertzio gida




MIKEL ARROIABE

Hainbat urte daramatza Bai Euskal Herriari herri ekimenak EHNA sustatu nahian. Denbora honetan, kirol talde, alderdi nahiz sindikatuekin batzartu gara. Zenbaitekin ekimen komunak ere antolatu ditugu EHNAren zabalpena lortzeko asmoz. Baita lortu ere! Gaur egun 1.000 arrasatearrek dute EHNA patrikan, eta hori poztekoa da.

EHNAri babesa emango zioten talde eragile, alderdi eta sindikatuekin mintzakidetza ireki ostean hemen duzue emaitza, hauek dira Arrasaten EHNAri babesa ematen dioten eragile sozial, politiko eta sindikalak eta bakoitzaren ordezkaritza biltzeko asmoa dugu oraingo zapatuan egingo dugun ekitaldian.

Alderdi politikoen aldetik, Aralar, EA, Batasuna eta Herri Anitza. Sindikatuen aldetik, ESK, ELA, LAB eta CCOO. Gizarte eragileen partetik, Elkarri, AEK Erdu euskaltegia, Centro Cultural Andaluz, EHE, Bilgune Feminista, AGAko Gazte Asanblada, Segi, Santamas Komisiñua eta Maritxu Kajoi Komisiñua. Azkenik, kultura eta kirol alorrekoak, Lore Gazteak dantza taldea, Txikitxu Arrostaitz dantza taldea, Mondra futbol taldea, Arrasateko errugbi taldea, Arrasate saskibaloi taldea, Arrasate eskubaloi taldea eta Besaide mendi elkartea.

Hau da Arrasaten azken urteetako ibilbide oparoak eman duena. Baina hau bakarrik ez, aurrez esan bezala, EHNA egin eta erabiltzeko tresna izanik, beste pauso bat ematea ezinbesteko zen usteak komertzioz komertzio eraman gaitu. EHNA onartu eta errespetatuko duten komertzioen gida osatu dugu. Hori da atera dugun emaitza: EHNA egitetik EHNA erabiltzera igaro behar dugula.

Hemendik aurrera arrasatear guztiei deialdi bat luzatu nahi diegu; EHNA egin eta erabiltzeko deialdia, hain zuzen ere. Horretarako, EHNA erabiltzeko sortu dugun bitartekoa da EHNAren erabilpenerako komertzio gida. Gida honetan, EHNA onartu eta errespetatzen duten Arrasateko komertzioak ageri dira. Bananbanan beraiekin egon ostean osatu dugu gida hau eta bertan 167 komertzio bildu ditugu.

EHNAren erabilpenerako komertzio gida herritarrontzat sorturiko gida denez, bihar, zapatua, martxoak 25, eguerdiko 12etan Monterron jauregian egingo dugu aurkezpen ekitaldia eta dei egiten diegu herritarrei ekitaldi honetan parte har dezaten. Ekitaldian, EHNAri babesa eman dioten eragileetako ordezkariak ere bilduko ditugu. Eta berean, babesa agertu duten eragile hauetako ordezkariak izango dira, EHNAren erabilpenerako komertzio gidaren lehen aleak jasoko dituztenak.

**"Gaur egun 1.000 arrasatearrek dute EHNA patrikan, eta hori poztekoa da"**

**"EHNA onartu eta errespetatuko duten komertzioen gida osatu dugu. EHNA egitetik EHNA erabiltzera igaro behar dugu"**

Komertzioetatik hasi dugun bide luze honek baditu urrats gehiago, ondorengo hilabete eta urteetan guztion artean egingo ditugun urratsak izan beharko dute. Eta izan beharko dute diot, arrazoi argi batengatik: EHNAk duen bertute eta indarra, ideologia, alderdi eta pentsaera ezberdinen gainetik egon behar duelako. EHNA ez da alderdien arteko lehia politikoan harantz eta honantz erabiltzeko tresna. EHNAk euskal herritar gisa sentitzen garen herritar guztiok egin eta erabiltzeko tresna izan behar du. Eta hori lortzea guztion esku dago, baina batik bat, herritarron esku.

EHNA leia politikotik at dagoenaren isla izango da zapatu honetako ekitaldian. Aniztasun politiko zabal bat oinarri hartuta, EHNAren zabalpenean pauso berri bat emango dugu, Euskal Herri osoan, eskubide osoko euskal herritar gisa bizitzeko bidea irekiz.

* Arrasateko Bai Euskal Herriari herri ekimeneko kidea

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Gogor dabil eskuin muturra Espainian?

| | |
|---|---|
| BAI | %80 |
| EZ | %20 |

**> BOTEREKO SEKTOREETAN**
Eskuin muturreko jendia ondion be oso sartuta dau botereko sektore gehixenetan: ejerzitua (Mena generala), justizia (Grande Marlaska) eta oposizioko partidu garrantzitsuena.
**Antifaxista**

**> LOTSA GALDU**
Eskuin muturrekoek lotsa galdu dute eta Franco hil ostetik isilik egon badira ere, orain agerian daude, bai haiek eta baita eskuin muturreko politikak ere.
**Leire**

**> PPK BATZEN DITU**
Espainian gutxiengo dira talde falangista antolatuak, baina talde hauek batzen ditu eskuineko PPk.
**Kiki**

**> AZNARREN INPERIOA**
Aznarren inperioaren ostean, eskumako hedabidiak indartu egin zien: *La Razon, ABC, El Mundo,* Cope, Antena 3... Horrekin batera, eskumako pentsamendukoak azaleratu zien.
**Samu**

**DATORREN ASTEKO GALDERA: Arizmendiarrieta santu egiteari ondo deritzozu?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

genduazen; aguantau ezkero, jakiña. Konbinauen preziuaz ez galdetu, holakorik hartzeko sekula ez zeguan dirurik-eta.

Gauza asko aldatu dira. Gazte batzuek (askok) automobilla dake, baitta kotxia tuneau be. Gure kuadrillako batek, autua zeukan bakarrak, ziento beintikuatro granatia, tuneo ekologikua zekan: atzeko partian, lurrian karrozerixan zulua zekan (ez zeguan ITV-rik), eta perretxikuak urtetzen zetsen!

Beste sasoi bat zan. Illunagua, gogorragua, oso dibertigarrixa eta imaginaziñoz betetakua. Lehen poteo-txikiteua egitten genduan, oin botelloia (edo litruak, edo botilatzarra, edo..), gauzia lagunekin egotia eta ondo pasatzia, diru gitxi gastauta. (...)

## Errealismo apurren bat

**Amatiño**
www.eibar.org/blogak/amatino

Kapaz gara Iparraldearen egoeraz lantua jotzeko eta bost urteotan Udalbidek bertan zabaldu dituen 1.200.000 euroak mespretxatzeko. Gai gara Nafar Gobernuaren lepotik mortalak eta bi salatzeko eta Udalbidek Nafarroako euskal ekintzei luzatutako 2.400.000 euroak hutsaltzat jotzeko. (...)

Noizbait hasi beharko dugu onartzen ezin izango dugula beti jarraitu gure eskasiak inori leporatzen. Egunen batean onartu beharko dugu —eta behar bada ez da askorik falta— dagoeneko lortua duguna, aurrerantzean lortuko duguna baino askoz ere gehiago dela.

Beldur naiz ez ote dugun errealismo-bainuren behar. Kontua da, ordea, bainu hori nahita hartuko ote dugun ala nahiezta hartu eragingo ote diguten.

koplak

Irati Agirreazaldegi

## Ezkontza ez ote da morrontza?

Udaberria denez
boden paradisu,
ezkongai guztientzat
hiru lau abisu.

Elizari ez zion
hainbeste maitasun,
orain ezkontzen zaigu
non ta Arantzazun,

Aldare pareraino
jantzi zurietan,
zertarako ibili
zurikerietan?

Ugaldu egin dira
ezkontza zibilak,
bertan elkar daitezke
mutil ta mutilak.

Pentsatze hutsarekin
ikara ta lotsa,
negozio handi bat
hori da ezkontza.

Udaletxe, juzgatu
edo ta elizan
ezkontzen bazarete
zoriontsu izan.

## Iraunkorra

**Imanol Murua**
www.berria.info/blogak/imanol/

Ez da behin betikoa, ez behinbehinekoa. Ez da baldintzarik gabea, ezta baldintzatua ere. Iraunkorra da. "Ekintza armatuen etenaldi iraunkorra".

Harluxet hiztegi entziklopedikoa: Iraunkor. 1. Irauteko joera duena; luzaroan irauten duena, eteten ez dena.

Irauteko joera duena, beraz. Zeren arabera iraun? Adierazpenean ez da ez baldintzarik ez eperik ageri. "Aurrerantzean, borondate horren araberako urratsak egiten jarraitzeko konpromisoa berresten dugu", dio bukaera samarrean. Baina ez da besteen borondateaz ari, ETAren beraren borondateaz baizik, "benetako egoera demokratikoa eskuratzeko" borondateaz.

Bada alderik, Lizarra-Garazi Itunaren garaiko su-etenaren agiritik (1998ko irailak 18). Halaxe zioen bukaeran, orduko adierazpenak: "Jakinarazi nahi dugu une honetatik aurrerako gertakizun eta urratsek aginduko dutela etenaldi horren behinbetirakotasuna".

Gaurko agiriak ez dio halakorik. Ez dago beraz tutelajerako asmo aitorturik. Beste kontu bat da ETAk bere buruari zer funtzio ematen dion benetan, baina agirian, berariaz, erakunde armatuak ez du zaindari lanik hartzen. Espainiako Kongresuaren ebazpenarekin uztargarria da erabat.

## Etenaldi iraunkorra (e eguna)

**Pello Urzelai**
www.berria.info/blogak/pello/

ETAk jakinarazi du bere erabakia: ekintza armatuen etenaldi iraunkorra abiatzea erabaki du. Konponbide demokratikorako prozesua bultzatzeko apustuaren froga sendoa. Unean uneko gorabeheren gainetik. E eguna iritsi da, baina konponbidera daraman bidea ibiltzeko dago. Denen partetik ahaleginak biderkatu beharko dira tontorrera iristeko. Bidea luze eta malkartsua izan arren, ametsak gautzeko grinari heltzeko garaia da.

## Aukera berri bat

**Joseba Antxustegi** (EGI)

Dei bat egiten diegu, beraz, euskal gizarteari eta euskal, espainiar eta frantziar politikariei azken berrogei urteetako gorrotoak eta konplexuak alde batera utzi eta urratsez urrats denok bakearen bidea jorratu eta indartu dezagun. Euforia alde batera utzita, baino itxaropentsu ekin beharreko bidearen hasiera izan dadila...

## ETAren adierazpena

**Euskadi Ta Askatasuna** > Euskal Herrian, 2006ko martxoan

ETAk, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzaileak, adierazpen honen bidez hartu duen erabaki baten berri eman nahi die euskal herritarrei. Euskadi ta Askatasunak, 2006ko martxoaren 24ko 00:00tik aurrera ekintza armatuen etenaldi iraunkorra abiatzea erabaki du.

ETAren erabakiaren xedea, Euskal Herrian burutu beharreko prozesu demokratikoa bultzatzea da, elkarrizketa, negoziazioa eta akordioaren bidez gure herriak beharrezkoa duen aldaketa politikoa gauzatzeko.

Gaur egungo inposizioa, zatiketa eta ukazioaren markoa gaindituz, Euskal Herriarentzat marko demokratikoa eraiki beharra dago, gure herri eskubideak aitortuz eta etorkizunari begira aukera politiko guztiak ahalezko eginez.

Prozesu demokratiko horren buruan, euskal herritarrek beren etorkizunari buruzko hitza eta erabakia izan behar dute, gatazkari irtenbide demokratikoa eman ahal izateko.

ETAren ustez, euskal eragile guztiei dagokie prozesu hori garatzea eta Euskal Herriaren etorkizunari buruzko akordioak adostea, Euskal Herriaren aniztasuna eta osotasuna kontuan hartuz.

Espainia eta Frantziako Estatuei, Euskal Herriko prozesu demokratikoaren emaitzak errespetatzea dagokie, euskal herritarrek beren etorkizunari buruz erabakiko dutena aitortuz, inolako muga eta esku-sartzerik gabe.

Eragile guztiei, ETAk egindako urratsaren neurri bereko erantzukizunarekin jokatzeko deia egiten diegu.

Hitza hartzeko garaiak dira. Eragile guztiok konpromiso eta ardura serioak hartu behar ditugu, guztion artean Euskal Herriak behar duen konponbide demokratikoa eraiki dezagun. Jokabide ausartak erakutsi eta erabaki sakonak hartzeko unea da, hitzetatik ekintzetara igaroz.

Espainia eta Frantziako agintariei egoera berri honi erantzun positiboa emateko deia egiten diegu, prozesu demokratikoari oztoporik eta mugarik ez jartzeko, jokabide ukatzaile eta errepresiboak alboratuz eta gatazkari negoziazioaren bidetik konponbidea emateko jarrera erakutsiz.

Oro har, euskal herritarrei, eta ezker abertzaleko kideei bereziki, dei zabala egiten diegu prozesu honetan burubelarri murgiltzeko eta gure Herri eskubideen alde borroka egiteko.

ETAren borondatea eta nahia zabaldutako prozesua burura eramatea eta Euskal Herrian benetako egoera demokratikoa eskuratzea da, urte luzetako gatazka gainditu eta justizian oinarrituriko bakea eraikiz. Aurrerantzean, borondate horren araberako urratsak egiten jarraitzeko eta Euskal Herriaren eskubideak lortu arte borrokan jarraitzeko konpromisoa berresten dugu.

## Gora ETA

**Patxi Gaztelumendi**
www. sustatu.com

Euskal Herria une eta momentu bereziak bizitzen ari da.

Su etenak berarekin ekarriko du mugimenduen loratze bat, mobilizazio, eraikuntza eta estrategia askoren bat egitea.

Udaberria da Euskal Herrian, eta ETA erakundearen gogoeta eta asmo berri hau goratu nahi dut.

Uste dut pozik hartuko dugula albistea, eta kalera aterakoa garela guztiok.

Euskal Herrian, asko dago egiteko oraindik. Batzuen borroka armatuak, ez luke orain aitzakia izan behar.

Euskal Herria herri aske bat, munduko beste herri bat izango bada.

Gora Euskal Herria!

## Isil-hizketa

**Anjel Lertxundi**
Berria

Esan dezaket nork eman zidan albistea eta zer sentitu nuen, gogora dezaket nori eman nion albistea eta nola erreakzionatu zuen. Egin dezaket analisia ere nork zer adierazpen egin zituen eta zergatik, nor egon zen zirkunstantziek eskatzen zuten mailan eta nor ez. Gehien errepikatu ziren hamar hitzen zerrenda osa dezaket erretorika manualetan argitaratzeko. Halarik ere, hauta ditzaket botila-xanpaina zabaltzeko arrazoiak eta topa egiteko hitzak.

Barrura begiratzea ere erabaki dezaket. Hausnar dezaket zein izan den nire jarrera historia honek dirauen bitarte korapilatsuko kalekantoietan. Aurreak erakusten baitu atzea nola dantzatu, erabaki dezaket on osasuntsua dela etorkizuna ondo dantzatzeko iragan hurbila gogoan izatea. Horregatik eta azkenez, itxaropenari leiho bat irekitzeko, saia dezaket bihotz zabaltasunez egindako biktima guztien zerrenda bat. Isiltasun osoan.

## Aro berriaren atarian

**German Kortabarria** (ELA)
Noticias de Gipuzkoa

Ez dagokigu, noski, Rodriguez Zapateroren agenda zehaztea; Zapaterok badaki, honezkero, zer egin behar duen; eta badauka, argi dagoenez, zer eta non egin. Urratsek, inolaz ere, garbiak izan beharko dute, sinesgarriak, eta konponbidearekiko inolako zalantzarik gabeko konpromisoa eta erabakia erakutsi behar dute. Halere, Estatua gobernua baino zerbait gehiago da, eta beste indarrek ere (epaitegiek bereziki) erronkaren tamainako konpromisoa erakutsi beharko dute. Eta uste dut exekutiboak, behar izanez gero, baduela beste botereen jarduna, aldez edo moldez, egokitzeko adina ahalmen. Hori erakutsi digute orain arte euskal gatazka tenkatze aldera egindako ekimen guztiek.

## Poza eta konpromisoa

**Markel Olano** (EAJ)
Berria

Bake prozesu sakona martxan ipintzeko izan dezakegun oztoporik handiena hortik etor daitekeela iruditzen zait: komunikabideetan zein epaitegietan, lehentasuna ideia eta egitura politikoen suntsipena izatea, bakea eta berradiskidetzea izan beharrean.

Oztopo horiek gainditu ditzakegu, ordea, herritarrok oinarrizko ideia eta azterketa hauei gogor eusten badiegu. Politikaren eta demokraziaren aurka dauden eragileek porrot egingo dute, gizartearen gehiengoak bakearen aldeko apustu sakona egiten baldin badu.

## Egoeraren bi atalak

**Anjel Mari Elkano** (Batasuna)
Berria

ETAren agiria borondate garbiaren seinalea da. Eta besteena? Ikusiko dugu. Eragile askoren borondatea ez da oraingoz ekintzen bitartez frogatu. Mahai gainean daude, bestalde, mehatxu ilun eta kezkagarriak. Esaterako, espainiar Auzitegi Nazionalean gertatzen ari dena. Oso larria da, ez da salbuespen bat, prozesua galarazteko saioa baizik, sabotaje zorrotz bat. Ezker abertzaleak beti egin du politika, baina beti exijitu zaio politika egitea, eta zergatik kartzelatu dituzte Olano eta Petrikorena? Zergatik deitu dituzte besteak deklaratzera? Politika egin dutelako, politikagintzan jardun dutelako, alegia. Egoera berria ekartzen lagundu duen politika, hots.

## Biba!

**Mikel Basabe** (Aralar)
Berria

Horixe, bada, bake-prozesuari eskatu ahal zaiona. Bakea, behin betikoa. Horrekin batera, bake-prozesuak bestelako prozesua ere gerta dadin errazten du. Normalizazio prozesua. Azkeneko horretako eragileak, lehenengo mailan, alderdi politikoak dira.

Baina sozietate osoaren inplikazioa behar-beharrezkoa izango da. Hain justu normalizazio prozesuak eskatzen duelako herri honek bere etorkizuna libre erabakitzeko aukera izan dezala eta hori, gatazkaren muinean dagoen arazoa izanik, irabazi egin behar izango dugulako.

Gatazka aspaldikoa da eta ez da gaur amaitu, ezta gutxiagorik ere. Estatuek, zer esanik ez estatuez badihardugu, Espainiaz eta Frantziaz ez digute beren kabuz eta eskuzabaltasun hutsagatik ezer emango. Normalizazio prozesurako behar-beharrezkoa dugu herri honen erabakitzeko eskubidean sinesten dugun guztion indar-metaketa, bestela normalizazio prozesurik ez da eta izango.

Indar-metaketa horretarako ere, gaurkoa albiste handia da, poza baino eragin ez dezakeena.

Bedi poz hori ere iraunkorra, merezi dugu eta.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Telefonoa: 943 25 05 01
Faxa: 943 25 05 13
Posta elektronikoa: goienkaria@goiena.com


Wildlife Safaris
sentitu afrikako arrastoa zure baitan
Ezagutu oihana eta
basoko pizti ikusgarrienak
Afrika azpisahararreko
espezialista baten eskutik.
Abentura paregabeak bizi
esploratu gabeko leku ahaztezinetan.
ZAMBIA, NAMIBIA, BOSTWANA ...
ATTA-ko (African Travel and Tourism Association) kide izendatu berriak,
marka hau daukan Estatuko enpresa bakarra izanik.
atta
tel. 902 199 611
www.wildlife.es
www.wildlife.es
www.wildlife.es
www.wildlife.es


ARRASATEKO
Udaberriko
. musikaldia
2006
Egitaraua
Udaberriko II. Musikaldia 2006
Ganbara Abesbatza
Martxoak 24, Ostirala / 20:00
San Joan Bataiatzailearen parrokian
Haize Berriak musika banda
Martxoak 25, Larunbata / 20:00
Amaia Antzokian
Haizea
(Organo eta tronpeta)
Martxoak 31, Ostirala / 20:00
San Joan Bataiatzailearen parrokian
Conductus Ensemble
Apirilak 1, Larunbata / 20:00
San Joan Bataiatzailearen parrokian
"Kainaberen Soinuak"
(Laukotea)
Apirilak 7, Ostirala / 20:00
San Joan Bataiatzailearen parrokian
"Afrika"(Lausardi Koru
Sinfonikoa + perkusio taldea)
Apirilak 8, Larunbata / 20:00
Amaia Antzokian
Antolatzailea
Laguntzaileak
ARRASATEKO UDALA
arrasate musikal
Juan Bataiatzailea
Parrokia


ZIORLA AUTOAK
PEUGEOT
ARRASATE
FINANTZAKETA:
%2,90eko UTB (TAE),
84 hilabetera, hilean 107 euro
ordainduta eta sarrera-kuota barik
Musakola auzoa 21 (Roneo ondoan) ARRASATE Tel: 943 77 01 44
GRUPO ETORMOBIL

# Herriak

**Arrasate** > 18-23 **Bergara** >24-29 **Aretxabaleta** > 31-33 **Eskoriatza** > 34-35
**Antzuola** > 36 **Aramaio** > 37 **Elgeta** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39



**> ARRASATE**
Udaberriko II. Musikaldian, sei emanaldi egingo dituzte **> 20**



**> ESKORIATZA**
Erretiratuendako ortu gehiago egingo dituzte Torrebason **> 35**



**> ANTZUOLA**
Aurtengo udan hasi nahi dituzte gizarte etxearen lanak **> 36**




**> ARAMAIO**
Kultura etxean wi-fi sistema ipiniko dute Aste Santu ingururako **> 37**

**BERGARA** > AUDITORIOA EGINGO DUTE ETA IKASTOLA BERRIZTATU

# Hilaren bukaerarako patronatuaren esku egon daiteke Errege Seminarioa

**AUDITORIOA**
Hasierakoa baino handiagoa izango da, eta balio askotarikoa

**ARANZADI**
Sarrera berria izango du ikastolak, Munibe plazatik

**SEMINARIOA**
Espainiak UNEDeko patronatuari emango dio eraikina



**AUDITORIOA** Udalak hasieran uste zuena baino handiagoa egingo dute, antzerkia, zinema eta kongresuak egiteko erabiliko dute.

GOIENKARIA

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Hamabost egun barru utz lezake Espainiako Estatuak Errege Seminarioa UNEDeko patronatuaren esku. Horixe negoziatzen ibili dira azkenaldian, eta badirudi prozesua amaitzear dagoela. Juanjo Alvarez UNEDeko zuzendariak esan digun moduan, "ministroen kongresutik pasatzea bakarrik falta da".

Hori gertatzen denean hasiko dira Seminarioko hiru erabiltzaile nagusiak lanean eraikina berrerabiltzeko: Udalak auditorioa egingo du, Aranzadi Ikastola berriztatu egingo dute eta UNED oraingo moduan geldituko da, oraingoz.

**AUDITORIOAREN PROIEKTUA**

Urte bukaera baino lehen egin gura du Udalak auditorioaren proiektua. "Hasieran uste genuena baino handiago izango da, eta handitze proiektua aztertzen ari gara", dio Josean Etxeberria Hirigintzako zinegotziak. "Musika, antzerkia, zinema, kongresuak... egiteko erabiliko da auditorioa; Udaleko arkitektoak hasi dira dagoeneko aurrekontua prestatzen", gaineratu du. Iñaki Aspiazu arkitektoak, bestalde, oraindik proiektuarekin ez direla hasi aitortu digu, zer egin gura duten zehaztmehatz aztertzen ari direlako oraindik, "baina eraikin balioanitza izatea da asmoa".

KONTUAN HARTZEKO

## Seminarioaren ingurua itxuraldatuko dute

Aranzadi Ikastolan fatxada konpontzen dihardute urte hasiera ezkero. Barruan, berogailua eta galdara berriztatzen ari dira eta igogailua jartzen. Ekaina bitartean gura dituzte lan horiek bukatu. Ez dira, ordea, egingo dituzten lan bakarrak izango. Behin seminarioa UNEDeko patronatuaren eskuetan gelditzen denean, behin betiko berriztatze proiektua egingo du. Horretan zerikusi handia du, noski, Udalak egingo duen auditorioak.

Bestalde, lur azpiko aparkalekuak egingo dituzte seminarioko jolastokian eta jakinekoa da Migel Altuna institutua kendu egingo dutela dagoen tokitik. Seminarioari itsatsita dauden eraikinak bota egingo dituzte, lehen fraideen etxea izan zena eta orain hutsik dagoena eta baita psikopedagogiko zentro moduan erabiltzen dena ere. Hori guztia egiten dutenean, berritu egingo dituzte eraikinen fatxadak eta inguru hori urbanizatuta gelditukо da. Oraindik eperik ez badago ere, itxuraldatu egingo dute seminarioa eta Migel Altuna ingurua.

**MUNIBEN ARANZADIRAKO SARRERA**

Auditorioa handitzeko asmoak Aranzadi Ikastolari eragiten dio. Batetik, handitze lanak egitekotan, elizaren erretaula, absidea eta aldarea mugitu egin behar dituzte. Obra horrek zortzi bat gela kenduko dizkio ikastolari, baina errekuperatu egingo ditu gero, eraikinaren beste txoko berri bat erabilita.

Ikastolako sarrerak ere aldatu egingo dituzte. Patricia Urrutia Aranzadiko zuzendariak kontatu digunez, "orain ditugun hiru sarrera-irteeretatik bi galdu egingo ditugu: Telefonicako eta San Martin plazako sarrerak auditorioak eta UNEDek erabiliko ditu. Beraz, jolastokikoa, berrituta, bakarrik gelditzen zaigu. Horregatik, beste sarrera bat egingo dugu Munibe plazatik, pasagunea egingo dugu handik ikastolara". Bestetik, ikastolaren jolastokian lur azpiko aparkalekuak egingo dituzte. "Lan horiek egiten dituzten bitartean, umeak jolasteko beste toki publiko batzuk erabili beharko ditugu, eta Udalarekin harremanetan gaude horiek lortzeko".

**PATRONATUAREN SEMINARIOA**

Seminarioa Espainiako Estatuarena da, baina UNEDeko patronatuari utziko dio aste pare bat barru. Orduan emango dituzte xehetasun guztiak.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 25 | Zabola | Zarugalde 42-44 | 943 77 16 30 |
| Domeka, 26 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Astelehena, 27 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Martitzena, 28 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |
| Eguaztena, 29 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Eguena, 30 | Amezua | Santamaina 32 | 943 79 09 74 |
| Egubakoitza, 31 | Español | Araba etorbidea | 943 79 18 65 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 25 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Domeka, 26 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Astelehena, 27 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Martitzena, 28 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Eguaztena, 29 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Eguena, 30 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Egubakoitza, 31 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 25 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Domeka, 26 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 27 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 28 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 29 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguena, 30 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Egubakoitza, 31 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 25 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 26 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 27 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 28 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 29 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 30 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 31 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)........943 46 11 11
DYA ( Antzuola)........943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)........943 76 55 76
Suhiltzaileak........943 78 28 00
Ertzaintza........943 53 47 20
Osasun etxeak
- Arrasateko ospitala........943 03 53 00
- Antzuola........943 76 62 23
- Aramaio........945 44 53 40
- Aretxabaleta........943 71 19 59
- Bergara........943 03 54 00
- Elgeta........943 78 90 27
- Eskoriatza........943 71 44 52
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola........943 76 62 46
- Arrasate........943 79 14 39
- Aretxabaleta........943 71 18 63
- Bergara........943 77 91 06
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA........902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate........943 79 12 22
- Aramaio........945 44 50 33
- Aretxabaleta........943 77 12 64
- Bergara........943 79 12 22
- Eskoriatza........943 71 40 59
- Oñati........943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea........943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)........943 78 15 12
Nekazaritza ganbera........943 76 10 15
Zerga Bulegoa........943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate........943 77 11 43
- Bergara........945 76 44 42
- Oñati........943 78 36 67

Kiroldegiak........
- Aramaio........945 44 53 35
- Arrasate........943 77 16 77
- Aretxabaleta........943 71 26 28
- Bergara........943 76 56 41
- Elgeta........943 76 82 84
- Eskoriatza........943 71 53 28
- Oñati........943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola........943 76 60 65
- Aramaio........945 44 53 74
- Arrasate........943 77 01 05
- Aretxabaleta........943 71 10 27
- Bergara........943 77 91 58
- Eskoriatza........943 71 46 88
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 03 53

Udalak
- Antzuola........943 76 62 46
- Aramaio........945 44 50 16
- Arrasate........943 79 09 00
- Aretxabaleta........943 71 18 62
- Bergara........943 77 91 00
- Elgeta........943 76 80 22
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |

| Gasteiz | Aramaio | Arrasate |
|---|---|---|
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 25**
Eguraldiak hobera egingo duela diote aurreikuspenek. Goizean laino altuak izango ditugu eta arratsaldean, lainoak eta ostarteak tartekatuko dira.



**Domeka, 26**
Lainoekin esnatuko da goiza baina apurka-apurka desagertzen joango dira. Arratsaldean, berriz, ugaldu egingo dira lainoak.

### EUSKAL HERRIAN

Hego haizearen eragina nabarmena izango da oraingo asteburuan. Denetarik izango dugu: lainoak eta ostarteak. Eta oro har, tenperaturek gora egingo dute. Aurreikuspenek ez digute euririk iragarri. Edozelan ere, udaberri bete-beteko eguraldiarekin segituko dugu.



### TENPERATURAK

**MINIMOA**
Eguena, 16 — **-1 ºC**

**MAXIMOA**
Astelehena, 20 — **20 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **25 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 15 | 20 ºC | 1 ºC | - l/m² |
| Eguena, 16 | 19 ºC | -1 ºC | l/m² |
| Egubakoitza, 17 | 17 ºC | 2 ºC | 1,1 l/m² |
| Zapatua, 18 | 16 ºC | 10 ºC | 0,3 l/m² |
| Domeka, 19 | 19 ºC | 11 ºC | 11,5 l/m² |
| Astelehena, 20 | 20 ºC | 5 ºC | - l/m² |
| Martitzena, 21 | 16 ºC | 7 ºC | 12,1 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA MARTXOAN

| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| 22 | 29 | 6 | 14 |

## oharrak eta deialdiak

ARETXABALETA
**> Olinpiadak eta sagardotegira irteera**
Goiena Sport-ek olinpiadak eta Hernaniko sagardotegi batera irteera antolatu ditu apirilaren 1erako, eta izena emateko epea zabalik dago kiroldegian dabiltzanendako.

ARRASATE
**> Yoga eta masaje ikastaroak aukeran**
Hasiberriendako ikastaroak antolatu ditu Yoga Elkarteak: yoga (apirilaren 3an hasita) eta masajea (apirilaren 5etik aurrera). Telefonoak: 943 79 20 85 eta 943 79 66 98.

ARRASATE
**> Rolak eta maskulinotasuna hizpide**
*Rolen eragina maskulinotasunean* delako hitzaldia egingo du Mikel Otxotorenak eguaztenean, hilak 29, udaletxean, 19:00etan.

OÑATI
**> Nahiko programa aurkeztuko du ikastolak**
Emakunderen Nahiko programaren berri emango dute martitzenean, hilak 28, ikastolan, 18:30ean.

ESKORIATZA
**> Arantzazura erromesaldia egingo dute**
Apirilaren 8an erromesaldia egingo dute. Autobusez joan gura duenak Viteri dendan eman behar du izena apirilaren 5a baino lehen. 10 euro da.

DEBAGOIENA
**> Baserriko plastikoak jasoko dituzte**
Baserrian erabilitako plastikoak jasoko dituzte hilaren 28an, martitzena. Argibideetarako, deitu 943 76 25 47 telefono zenbakira.

ARRASATE
**> Mundukideren truke programako ekintzak**
Honako hitzaldiak egongo dira: gaur, egubakoitza, Argentinaren gaineko zine-foruma (Arrasateko gaztetxea, 19:30), hitzaldia (hilak 28, Monterron, 19:30) eta Kuba eta Venezuelaren gaineko hitzaldia (hilak 30, Aretxabaletako udaletxe zaharra, 19:30).

ESKORIATZA
**> Parrokiak batzar nagusia egingo du**
Gurutze-bidearen ostean, batzar nagusia izango da gaur, barikua, parrokian, 19:30ean. Ekonomia batzordeak iazko ekitaldiaren berri emango du.

BERGARA
**> EHNA egiteko aukera dago zapatuan**
EHNA tramitatuko du Bai Euskal Herriari taldeak bihar, zapatua, Irizar jauregian, 11:30-13:30.

OÑATI
**> Heziketa afektibo-sexualaren gainean**
Gai horren inguruko hitzaldia egingo dute hilaren 28an, martitzena, Txantxiku ikastolan, 18:30ean.

ARETXABALETA
**> Interneteko ikastaroak datorren astean**
Honako ikastaroak emango dituzte KZgunean: *Irudi digitalen tratamendua II* (hilak 24, 18:00) eta *Finantza erakundeekin lan egin I* (hilak 30, 18:00).

ARRASATE
**> Txatxilipurdiren udalekuetarako begiraleak**
Udalekuetan begirale izan gura dutenek curriculuma eta izen-emate orri betea entregatu behar dituzte elkartean maiatzaren 3a baino lehen. Argibideak, 943 79 54 46 telefonoan.

ESKORIATZA
**> Garizumako topaketa egingo dute**
Pastoral-barruti osoko pastoralgile eta eliztarrendako topaketa egongo da bihar, zapatua, Itarte etxean, 16:30ean. Pastoral eraberritzearen gainean hausnartuko dute.

ESKORIATZA
**> Santa Ageda eguneko jaiaren gainean**
Santa Ageda eguneko jaiaz hitz egiteko batzar irekia deitu du Udalak, herritar guztiendako. Hilaren 29an izango da, kultura etxean, 18:00etan.

OÑATI
**> Bi ikastaro antolatu ditu BH Institutuak**
Honako ikastaroak emango dituzte: tornu CNC prestaketa eta programazioa, langileendako; eta eguzki energia fotovoltaikoarena, zabala. Informazioa: 943 78 21 50.; *www.oinati.net*.

ARRASATE
**> Joan Mari Torrealdairen hitzaldia**
Joan Mari Torrealdaik euskal kulturaren aurkako zentsuraren gainean hitz egingo du eguenean, hilak 30, Monterron jauregian, 19:00etan.

BERGARA
**> Amerikako lau emakume indigenak mahai-ingurua egingo dute datorren eguenean**
Mahai-ingurua egingo dute hilaren 30ean, eguena, udaletxean, 19:00etan, honako lagunek: Anita Mechu quicheak, Feliciana Mendoza mayak, Martha Sanchez amuzgak eta Felicitas Martinez tlapanecak. Emakume indigenen arloan lan egiten duen elkarte bana ordezkatzen dute.

**943 25 05 01**
**goienkaria@goiena.com**

**kale inkesta**

# Bide egokia da gune komertzialak herri barrura ekartzea?



**Bego Errasti**
Langilea
Arrasate

Nik gurago dut herri barruan dauden saltokiak eta bestelako zerbitzuak indartu. Ez naiz gune komertzialen zalea. Gurago dut erdigunean horren ordez beste gauza batzuk jartzea.



**Sagrario Lopez**
Langilea
Arrasate

Hori egin beharrean, herrietako denda txikiak indartu behar dira. Gune komertzial handien kontra nago, bezero eta dendarien arteko harremana galdu eta AEBetako ideologia sartzen dutelako.



**Arantza Madina**
Erretiratua
Arrasate

Ez nago ados asmo horrekin. Uste dut horrek saltoki txikiei kalte handiagoa egingo liekeela, eta nik gurago ditut saltoki txikiak. Orain arte kalte handia egin diete gune komertzialek txikiei.



**Julian Etxeberria**
Erretiratua
Bergara

Ondo iruditzen zait, herriak beste giro bat hartuko lukeelako, jende gehiago ibiliko litzateke. Dena dela, arazoak ere ekarriko lituzke; esaterako, non aparkatuko genituzke autoak?



**Francisco Javier Blazquez**
Langilea
Bergara

Ez legoke gaizki, erdiguneko saltokiak ez daudeeta pozik oraingo egoerarekin. Dena dela, oso zail ikusten dut; gaur egun non ipiniko dituzte halakoak herri barruetan? Zaila da.

**txaloak eta txistuak**



M.A.

## Lau erruberako motorren erabilera txarra

Aretxabaletako irakurle bat kexu da lau erruberako motorrei ematen zaien erabilera okerra dela-eta. Hala esan digu: "Gaizki aparkatzen dituzte; gainera, oraingo astean Aretxabaletan lasterketak egiten ibili dira, kalean; eta bestetan, mendian edozein modutan ibiltzen dira".

**bertako berbak**

Juan Martin Elexpuru

## "Burkua"

Burukoa.



**Marrazkia** > Jon Iraegi

**asteko datua**

# 50

Adituen esanetan, gaur egungo bizimodua aldatu ezean, 2020. urterako biztanleen %50 alergikoak izango dira. Batez ere, kutsadurak eta umeek jasaten duten gehiegizko babesak eragingo dituzte alergiak.

**usteak uste**

Ubane Madera

## PM 10 partikulak biriketan

Arrasateko Udalak argitaratzen duen *Txip 21* aldizkariak datu larria ekarri du martxoan: "Arrasateko Laubide plazako PM 10 partikulen eguneko zikloa eta Bilboko Indautxu plazakoa oso parekoak dira". PM 10 partikulak dira esekidurazko partikulak, edo argiago esanda, partikula arnasgarriak, zuzenean gure biriketara sartzen direnak. Osasunarendako oso kaltegarriak dira. Eta Arrasate Bilborekin parekatuta dagoela jakiteak, niri, behintzat, dezenteko kezka eragiten dit.

Hori batetik. Bestetik, eguaztenean uraren nazioarteko eguna izan zen. Eta besteak beste, gogorarazi ziguten zenbait herrialdetan egarriz hiltzen direla eta, berriz, Europan uraren erabilera desegokia egiten dugula: bataz beste 160 litro eguneko.

Datuok eskuartean, argi dago zerbait egin beharko dugula, eta laster, gainera. Zerbait praktikoa, eta ez gehienetan moduan, ahoa bete berba eta gero ezer ere ez egin. Eta egin beharreko hori guztiok egin beharko dugu. Ez du balio ardura edo zigorrak herritarrengan uztea eta kito (urarekin egin nahi duten moduan); eta ez du balio, ezta ere, ardura guztia Administrazioarengan uztea.

**5 galdera...**

# Sergio Hernando

Arrasateko Udalaitz dendakoa
Antzuola

**1. Zela jantziko gara ibarrean aurtengo udaberrian?**

Udaberri koloretsua dator. Piratak eta mini-shortak. Formen barruan, tendentzia handia dago gona edo soineko globotan, 60ko hamarkadan inspiratuta, botoi handiekin. *Brokeback mountain* filmaren eragina ere igartzen da.

**2. Hiriburuetara joateko joera dugu, baina herrietako eskaintza berezia dela esaten dute...**

Bai. Guk Gasteizen ere badugu denda eta hango jendeari gure arropa, azken batean, Arrasaten saltzen duguna oso berezi eta ezberdina dela pentsatzen zaie. Horrek esan nahi du askotan hiriburuetara joaten garela inditex kateetan erostera (Zara, Mango...). Bestalde, Arrasaten hiriburuetako jendea lanera etortzen denean, hemen egiten ditu erosketak eta beti komentatzen digute jantzi ezberdinak ditugula, koloretsuak; eta kalitate aldetik ere oso gustura joaten dira.

**3. Ibarrean jantzteko zelako ohiturak ditugu: prezioari begiratzen diogu, kalitateari, erosotasunari...**

Jendeak kalitatea eskatu izan du beti; erosotasuna ere bai. Ibarrean jendeak nahiago du eroso joan oso modan joatea baino. Eta garbi du zein kolore nahi dituen. Beti ez dira saltzen modan dauden koloreak.

**4. Eta ibarreko herrien artean bada jantzteko ohituretan alderik?**

Igarri egiten da. Ezberdintasun handiak daude. Arrasateko emakumeak badauka bere puntu ausartagoa, ukitu berezia du jantzteko eta orrazteko. Eta, adibidez, Bergara da klasikoagoa, nahiz eta oso estilotsuak izan.

**5. Zelakoa izango da zure denda berria? Non egongo da?**

Handiagoa. Nahi genuen eskaintza hobea eman. Dekorazio berezia izango du, arropak modu berezian erakutsiko ditugu. Zerkaosteta 8an egongo da. Eta asmoa da apirilaren 1ean zabaltzea.



GIZARTEA > KANONIZAZIO PROZESUA

# On Jose Mariari egindakoa eskertu guran

## Arizmendiarrietaren kanonizazio prozesuan lekukoen txanda izango da apirilean

30 lagunetik gora deklaratuko dute epaimahaiaren aurrean; lehenengoa, haren arreba izango da




**EPAIMAHAIA** Gotzainarekin batera, abadearen gaineko lekukotasunak hartuko dituen epaimahaia izan zen. IBAN AGINAGA

**UBANE MADERA** > ARRASATE

"Itxaropenez hasten dugu ibilbide hau. Santuen zeregina gure irakasle, eredu eta bizkorgarri izatea da. Hauxe da gaur arratsaldean Aita Jaungoikoari Jesukristoren bitartez eta Espirituaren eraginez eskatzen doguna".

Berba horiek esan zituen Joan Maria Uriarte gotzainak On Jose Maria Arizmendiarrietaren kanonizazio prozesuaren hasiera ekitaldian, martitzenean.

Gotzainarekin batera, kanonizazio prozesuan epaimahai izango diren hiru abadeak (Pedro Maria Garin, Juan Maria Etxeberria eta Jose Antonio Osteritz) eta koordinatzaile lanak beteko dituen Carmen Perez erlijiosoa ere izan ziren Donostiako Seminarioko parrokia-elizan.

Eta ekitaldian parte hartu zuten, baita ere, Arrasatetik joandako 50 lagun inguruk, tartean, kooperatiben mugimenduaren sorreran izan ziren Alfonso Gorroñogoitia eta Jose Mari Ormaetxeak. Eta baita ere Mondragon Unibertsitateko eta Euskadiko Kutxako ordezkariak.

Orain, bizpahiru urtez, lekukoen eta liburuen testigantzak batuko ditu epaimahaiak, On Jose Mariaren ibilbidea eta haren "barrua" zelakoa zen ikusteko. Donostiako Elizbarrutitik jakinarazi digutenez, 30 lagun baino gehiagok deklaratuko dute, Arizmendiarrieta gertutik ezagutu zutenak. Hain justu ere, apirilaren 25ean deklaratuko du lehenengo lekukoak, On Jose Mariaren arreba Maria Arizmendiarrietak.

Lekuko guztien esanak-eta batu ondoren, Erromara bidali beharko dute guztia; han hartuko dute-eta azken erabakia: Arrasateko parrokiako abade-laguntzaile izan zena santu bihurtuko duten edo ez. Izan ere, posible da eskaera atzera botatzea.

**ESKER ONA ADIERAZTEKO**

Kontuak kontu, emaitza bata edo bestea izanda ere, prozesu horren bultzatzaileak (Euskadiko Kutxa eta Mondragon Unibertsitatea) pozik daude dagoeneko lortu dutenarekin, hau da, kanonizazio prozesua hastearekin. Hala adierazi digu Alfonso Gorroñogoitiak: "Berez, prozesua gauza ona da eta iritsiko balitz santu izatera, ba hobeto, baina prozesu latza da, luzea eta astuna". Gorroñogoitiak azaldu digu Euskadiko Kutxak eta MUk abiarazi dutela prozesua Arizmendiarrietari egindako guztiarengatik esker ona adierazteko zelanbait: "Guk esker ona agertu nahi diogu, herrian egin zuen lan zoragarriarengatik. Hark hezi gintuen, hark eman zigun pentsamoldea, bizitzarako bokazioa… Hortxe dago egindako guztiaren emaitza. Lagun Aro, Euskadiko Kutxa, Eskola Politeknikoa eta kooperatiben mugimendua. Figura aparta izan zen. Hura barik Mondragoe desberdina izango litzateke, baita nire bizitza eta beste askorena ere".

ABADE IZANA BARRU-BARRUAN

### Lanak egoki bateratu zituen gizonezkoa

On Jose Maria Markinan jaio zen, Iturbe baserrian, 1922ko apirilaren 15ean. San Juan Bataiatzailea parrokiako abade-laguntzaile izan zen 1941etik, 35 urtez, 1976an hil zen arte. Elizbarrutiak haren apaiz-eginkizuna nabarmendu du: "Apaizgai zela honako hau idatzi zuen: *Neure biziera mila bider aukeratu behar banu, apaiz izatea aukeratuko nuke*". Halaber, elizbarrutiaren esanetan, "parrokian zituen lanak oso egoki bateratu zituen esku artean zerabiltzan pertsonekiko, gizartearekiko eta kristauekiko sustapen-lanekin".

HIRIGINTZA > IGOGAILUAK

## Ferixaleku eta Makatzenako igogailuen aurre-proiektua

Aurre-proiektuak Udalean daude, alegazioak aurkeztu nahi duenarendako

**U.M.** > ARRASATE

Bi igogailu publiko eraiki behar ditu Udalak datozen hilabeteotan: Ferixalekuan bata eta Makatzenan bestea.

Ferixalekuko igogailuaren helburua da erdigunea lotzea Altamira, Makatzena eta Santa Marina auzoekin. Amaia antzokiaren ondoan hasi eta Mesedeetako eskola ingururaino iritsiko da. 36,50 metro garai izango da eta bi geltoki izango ditu: bata Gernika Oinezkoen Zumardian eta bestea Mesedeetako eskolan. Bi geltoki horietara iristeko, pasabide bana eraikiko dituzte.

**MAKATZENAKOA**

Makatzenako igogailuaren gainean, berriz, Udaleko Hirigintza Sailetik jakinarazi digute auzo hartan ipini behar dituzten eskailera mekanikoen ordez ipiniko dutela igogailua. Helburua dela Hondarribia kalea Makatzena kalearekin lotzea eta guztiz bertikala izan beharrean, zelanbait etzanda doan igogailua ipiniko dutela.

UDALA > OSOKO BILKURA

## Hasiera batean, EAJk lortu du PSE-EErekin adostasuna

Astelehenean osoko bilkura berezian aztertuko dute Egitamu Orokorra

**U.M.** > ARRASATE

Zerrajera inguruan alokairuzko etxebizitzak egingo dituzten edo ez erabakiko dute asteleheneko ezohiko batzarrean. 16:30ean hasiko da eta gai bakarra izango dute zerrendan: Egitamu Orokorra aldatzea etxebizitzak eraiki ahal izateko.

Egitamu Orokora aldatzeko, udalbatzarrean gehiengo osoa beharrezkoa da. Eta orain arte hori ez da posible izan, Ezker Batua udal taldetik kanporatu zutelako.

Orain, berriz, negoziazio prozesu luzearen ostean, EAJk lortu du PSE-EEren babesa gai horri dagokionez. Inazio Lakuntza alkateak esan digu espero duela asteleheneko batzarrean PSE-EEren adostasuna izatea.

**ZUTIK**

Eta batzar horren ostean, martxoari dagokiona egingo dute. Besteak beste, emakumeek jasaten duten indarkeriaren kontrako plana landuko dute. Zutik alderdiak dagoeneko iragarri du plan hori babesten dutela.

> ZERBITZUAK

## Aparkatzea galaraziko duten pibotak ipiniko dituzte Zarugalden

Zerbitzu Sailaren proposamena onartu du oraingo asteko Toki-ko Gobernu Batzarrak: Zarugalde kalean autoen joan-etorria ziurtatzeko pibotak ipintzea espaloietan. Izan ere, gaur egun, kalearen alde bietan aparkatzen dituzte ibilgailuak, eskumako aldean, espaloira igota; eta berez, ezin da hori egin.

Gauzak horrela, 165 pibot erosiko ditu Udalak, 11.560 euroren truke. Udalaren asmoa da piboten artean 2,5 metroren tartea lagatzea eta kale osoan zehar halakoak ipintzea.

Gainera, gura dute pibotak ipintzeko lanak lehenbailehen egitea, beraz, eskatuko dute pibotak 45 egun baino lehen izatea Arrasaten.

**INGURUMENA** > ARRASATE IRAUNKORRA PLANA

# Etxebizitzak eta garraioa dira gehien kutsatzen dutenak

Arlo guztietako 58 eragile soziali dei egin die Udalak Arrasate Iraunkorra planerako

Udalerriaren iraunkortasuna oinarri, ekintza planak zehaztuko dituzte



**EGORA LARRIA** Laubideko kabinaren emaitzen arabera, airearen kutsadura da Bilboko Indautxu plazaren parekoa. GOIENKARIA

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Europako eta Estatuko zenbait udalerritan landutako plana da hori. Euskal Herrian, berriz, Arrasate izango da aitzindari. Helburua zera da: sei hilabetean hausnartzea zein den Arrasateren egoera iraunkortasunari dagokionez. Eta horren arabera, etorkizunean aplikatzeko ekintza planak zehaztea. Hori egiteko, Udalak gonbidatu ditu herriko arlo guztietako eragileak: sindikatuak, alderdi politikoak, kultura elkarteak, kirol taldeak…

Juanjo Gabiña donostiarra arduratuko da prozesuaren gidaritzarekin. SWPI Prospectiva Estrategica erakundeko presidentea da. Egoeraren larritasuna nabarmendu digu, baita ere ekosistemak dituen mehatxu nabarmenenak: "Dira hiru, batik bat: klima aldaketa; energia beharra (petrolioa 2030a baino lehen amaituko da) eta ongizate gizartea bukatzen dagoela (hazkunde ekonomikoa geroago eta handiagoa da, baina bizi kalitatea geroago eta eskaxagoa, batez ere gazteetan)".

**ADOSTASUNA ETA KONPROMISOA**

Beraz, derrigorrezkoa izango dugu bizimoduan zenbait ohitura aldatzea, guztiok. Hala nabarmendu digu Gabiñak, guztion adostasun eta konpromiso barik ez dagoela ezer. "Esaterako, garraioa: uste duzu jarrai genezakeela nor bere automobilean lanera joaten? Ba akaso enpresa bakoitzak izan beharko du bere mugikortasun plangintza. Hori batetik. Bestetik, Arrasaten auto larregi dago eta, gainera, larregi erabiltzen dugu".

Etxebizitzarekin lotutako neurriak ere aipatu dizkigu SWPIko presidenteak: eguzki-plakak edo zaborrarekin lotutakoak; esaterako, zaborraren OTA : "Zaborra sailkatzen duenak ez du zerga ordaintzen, besteek bai".

Bukatzeko, arlo sozialean ere aldaketak behar ditugula esan digu: "Aisialdian, ohituta gaude dirua gastatzen. Israelen, berriz, badira parkeak zaharrendako zein gazteendako, denetik dutenak. Azken batean, oreka bilatu behar dugu, zuhurrak izan".

**Inazio Lakuntza** > Alkatea

## "Ekintza planak errealitate bilakatuko dira"

**U.M.** > ARRASATE

**Arrasate Iraunkorra planaren gainean eta plan horrek izango dituen ondorioen gainean alkateari ere galdetu diogu:**

**Plan horretan Arrasate aitzindari da; zer dela eta?**

Pentsatu genuen zerbait egin behar genuela iraunkortasunarekin lotuta. Iñaki Azkoagak parte hartu zuen Eusko Ikaskuntzak landutako prozesuan; haren bitartez izan genuen horren berri.

**Hausnarketa egin eta gero, ekintza planak aterako dira, baina aplikatuko dira?**

Bai. Adibide bat ipintzearren: akaso erabakitzen da etxebizitza guztiek izan behar dutela sistema alternatiboren bat ura berotzeko. Bada, agian, halakoak ordenantza barruan sartuko ditugu. Errealitate bilakatuko dira.

**Plan horren ezaugarrietako bat da zabala eta parte-hartzailea izatea; hala, 58 eragile sozial gonbidatu dituzue…**

Bai. Hilean behin elkartuko gara, Otaloran, egun guztian. Momentuz eskutitza bidali diegu, eta orain jarriko gara eurekin harremanetan. Espero dugu 45 bat lagun etorriko direla. Oso inportantea da puntapuntako jendea etortzea.

**Oraingo bizimoduarekin ezin dugula jarraitu argi dago, ezta?**

Bai. IHOBEren azkeneko txostenean neurtu dute airean dauden partikulak. Bada, Laubideko kabinaren neurketen arabera, plazako inguruko aireak duen kutsadura eta Bilboko Indautxu plazan dagoena ia parekoak dira. Eta kutsadura hori eragiten dute, batez ere, garraioak eta etxebizitzen berogailuek.

> LAN DEIALDIA

### Hiru lanpostu betetzeko lan-poltsa osatu gura dute

Auzo Lagun kooperatibak egin du lan-deialdia, honako hiru lanpostuak betetzeko: eskola jantokiko begirale izateko (bi ordu eguerdiro); garbiketa lanak egiteko (5-6 ordu arratsaldez) eta sukalde laguntzaile izateko (goizez eta arratsaldez lan egiteko).Zera eskaintzen dute: lan-kontratu bidez ordezkapenak betetzeko erabiliko dute lan-poltsa. Baina bete bako lanpostuak dauden neurrian, ikasturteak irauten duen bitarteko kontratuak egin ahal izango dituzte. Deitu: 945 30 43 01 67.

> POLITIKA

### Arrasateko bi preso lekuz aldatu dituzte egunotan

Etxerat elkarteak jakinarazi digunez, egunotan 27 euskal preso kartzelaz aldatu dituzte, tartean bi arrasatear. Premin Sanpedro Asturiastik Algecirasera eraman dute. Etxeratek salatu du urrunketa nabarmena dela, orain haren senide eta lagunek 1.235 kilometro egin beharko dituztelako bisitan joateko. Bestalde, Jesus Mari Zabarte Huelvako kartzelatik Valdemorora eraman dute, dilijentziak tarteko. Bukatutakoan, Huelvara eramango dute atzera.

> UDALA

### Udalak bere araudia betetzen ez duela salatu du EBk

Maisu Aranon, Kutxako bulegoaren lokala egokitzeko obretan Udalak ez duela araudia bete dio Ezker Batuak. Azaldu duenez, 43. artikuluaren arabera, seguritatezko itxierak ezin dira itsuak izan, banketxeetan eta bitxi-dendetan izan ezik. Jakina, Kutxako itxierak itsuak ziren eta EBk salatu du Udalak ez duela aurreikusi haiek aldatzea. Halaber, dio Udalak herritarrei araudia betetzeko exijitzen diela eta berak ez duela bete.

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20
Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak



**OÑATIKO AHOTSAK** Oñatiko Ganbara Abesbatza (argazkian) izango da Musikaldia hasteko arduraduna. GANBARA ABESBATZA

**MUSIKA** > UDABERRIKO II. MUSIKALDIA

# Musika klasikoaren gaineko egitarau aberatsa antolatu dute

Guztira sei emanaldi egingo dituzte gaurtik, egubakoitza, apirilaren 8ra bitartean

Udalak antolatu du, Arrasateko Musika Eskolaren eta elizaren laguntzarekin

Musika klasikoaren urteroko hitzordu bilakatu gura dute Udaberriko Musikaldia

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Heldu da Udaberriko II. Musikaldia. Udalak antolatu du, Arrasateko Musika Eskolaren eta San Juan Bataiatzailearen elizaren laguntzarekin. Musika Eskolak aholkulari lanak egin ditu, eta parrokiak lokala utzi du hainbat emanalditarako.

Gaurtik, egubakoitza, hasita apirilaren 8ra arte astebururo emanaldiak egingo dituzte San Juan Bataiatzailearen elizan eta Amaia Udal Antzokian. Guztira, sei kontzertu egingo dituzte. Oinarrian musika klasikoa da jorratuko duten estiloa, baina izango da beste estiloren bateko salbuespenik ere.

Emanaldi gehienak San Juan Bataiatzailearen elizan egingo dituzte eta horiek doan izango dira. Beste bi, berriz, Amaia Udal Antzokian izango dira, eta horietan sarrera ordaindu egin beharko da.

**URTEROKO HITZORDUA FINKATU**

Udaleko Kultura Saileko ordezkariek jakinarazi digutenez euren asmoa da musikaldia urteroko hitzordu bilakatzea. "Iaz lehenengo saiakera egin genuen. Oso azkar egin genuen eta badakigu hobetu egin litekeela, baina Arrasateko eta inguruetako zaleek asko eskertu zuten, eta urtero musika klasikoaren gaineko hitzordua egin gura dugu".

Gaur, egubakoitza, Oñatiko Ganbara Abesbatzak emanaldia egingo du San Juan Bataiatzailearen elizan 20:00etan. Esteban Urtzelai zuzendari dutela XVI. mendetik gaur egunera bitarteko piezak eskainiko dituzte: polifoniak, hainbat herrialdetako folklorea, gospela, espiritualak...

Bihar, zapatua, Sakanako Haize Berriak bandak mundu osoko piezak (Italia, Errusia, Finlandia, Euskal Herria...) eskainiko ditu Amaia Udal Antzokian 20:00etan. Luis Orduña da zuzendaria, eta ikuskizunean Oskar Estanga bertsolari eta abeslariak ere esku hartuko du.

Datorren asteburuan ere bi emanaldi egingo dituzte. Egubakoitzean, hilaren 30ean, Haizea bikoteak ikuskizuna egingo du San Juan Bataiatzailearen elizan 20:00etan. Arrasaten bizi den Aitor Olea organo jotzaileak eta Berrizko Josu Aiartzaguenak Bach, Mouret, Charpentier, Clarke eta Hovhaness-en piezak joko dituzte, besteak beste.

**ARRASATEARREN PRESENTZIA**

Udalaren helburuetako bat da maila handiko taldeak eramatea, eta horien artean arrasatearrak daude. "Ez dago espresuki bila joan beharrik, arrasatear asko oso musikari onak dira", azaldu ziguten.

Horren harira, aipatutako Aitor Olea organo jotzaileaz gain, beste batzuk ere izango dira. Adibidez, apirilaren 1ean Conductus Ensemble izango da San Juan Bataiatzailearen elizan, eta opera horretan hainbat arrasatearrek esku hartuko dute. Zuzendaria Andoni Sierra da.

Azkeneko asteburuan, apirilaren 7an, Kainabera Soinuak laukoteak emanaldia egingo du elizan. Mikel Albistur arrasatearrak eta Jabier Lekunberrik oboea jotzen dute; eta Tomas Rutik fagota eta Charo Indartek klabezina. Händel, Scarlatti eta Plaren piezak joko dituzte.

**PERKUSIOA ETA ABESBATZAK BAT**

Musikaldiarekin bukatzeko, apirilaren 8an, Lausardi Koru Sinfonikoak eta perkusio taldeak *Afrika* ikuskizuna egingo dute Amaia Udal Antzokian. Batez ere Arrasateko eta Bergarako ahotsek osatutako talde horrek kultura afroamerikarretik barrena bidaia egingo du, perkusioaren garrantzia nabarmenduz.

## Udaberriko II. Musikaldia

**24, egubakoitza**
20:00 Ganbara Abesbatza
San Juan Bautista parrokian.

**25, zapatua**
20:00 Haize Berriak banda
Amaia Udal Antzokian.
Sarrera: 5 euro.

**31 egubakoitza**
20:00 Haizea organo eta tronpeta jotzaile bikotea
San Juan Bautista parrokian.

**1, zapatua**
20:00 Conductus Ensemble
San Juan Bautista parrokian.

**7, egubakoitza**
20:00 Kainaberaren Soinuak laukotea San Juan Bautista parrokian.

**8, zapatua**
20:00 *Afrika* ikuskizuna Lausardi Koru Sinfonikoaren eta Perkusio taldearen eskutik Amaia Udal Antzokian. Sarrera: 10 euro.

OHARRA: San Juan Bataiatzailea elizako ikuskizunak doan izango dira.

**BERBALDIA**

## Joan Mari Torrealdai zentsuraz arituko da

Francoren sasoiko eta gaur egungo zentsura parekatuko ditu Torrealdaik

**I.B.** > ARRASATE

AEDk antolatu du berbaldia, eta eguenean, hilaren 30ean, izango da, Monterron jauregian, 19:00etan.

1942an Foruan jaiotako Joan Mari Torrealdaik ibilbide oso luzea dauka. Besteak beste, teologia, filosofia eta soziologia ikasketak ditu, eta euskaltzain urgazlea da. Horrez gain, *Euskaldunon Egunkaria*-ko administrazio kontseiluko lehendakaria zen egunkaria itxi zuten arte, eta *Jakin* pentsamendu-aldizkariko zuzendaria da.

Hainbat liburu idatzi ditu, eta horietako baten Francoren sasoiko zentsura eta gaur egungoa deskribatzen ditu. Horiek biak konparatu eta azalduko ditu.

## Ekinek hainbat ikastaro antolatu du

Eskulan tailerra, orratz lanak eta funky hip-hop ikastaroa

**I.B.** > ARRASATE

Ekin emakumeen elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu, apiriletik ekainera bitartean egitekoak.

Eskulan tailerra apirilaren 25etik ekainaren 20ra bitartean egingo dute. Martitzenero egingo dute, eta bi ordutegi izango dira: 15:30etik 17:30era edo 18:00etatik 20:00etara.

Orratz lanen tailerra apirilaren 27tik ekainaren 15era egingo dute, eguenero, 15:00etatik 17:00etara.

Azkenik, funky hip-hop dantza ikastaroa apirilaren 24tik ekainaren 19ra bitartean egingo dute, eguenero, 19:00etatik 20:15era. Ikastaro bakoitzaren matrikula 36 euro izango da. Bazkideek, berriz, 34 euro ordaindu beharko dituzte.




Poltsak, zilarra...

Harmanta

Gaztanadui 21, ESKORIATZA Tel.: 943 71 53 87




CHANTELLE
PÉRÈLE
PASSIONATA
AUBADE
PLAYTEX
JANIRA
MODIN
SEÑORETTA
ORY
ACQUA
UDY
EMINENCE
CATHIEVE
LAND
UNNO
TUC-TUC
SCHUSS
EZPELETA
DIM
PULLIGAN

Marrazki bizidunak

**POPEYE, CARDCAPTOR ETA SNORKDANCE**

Astelehenetik ostiralera
13:20ean eta 20:15ean

Zapatuan eta igandean
08:00etatik 11:00etara

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!



**MENDIKO BIZIKLETA** > IRTEERAK

# Besaide MTB taldeak hilero egingo du bizikleta irteera

Uztailera bitartean hilero-hilero mendiko bizikleta irteera egingo du Besaidek; oraingo asteburuan egingo dute lehena: Arabako Izkiko parke naturalera joango dira



**BARDEAN** Azaroan, Errege Bardean igaro zuten asteburua 30 lagunek; oraingoak egun bateko irteerak izango dira. X.U.

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Bihar joango dira Besaide MTB-koak Izkira (Araba), urteko lehenengo irteera egitera. Uztailera bitartean, baina, beste lau irteera egingo dituzte. Gorbeiara joan gura dute, Aralarrera eta baita Bastidako inguruetara ere (Arabako Errioxa). Bosgarren irteera erabakitzeke dute, Valderejoko (Araba) parke naturalera joan gura bazuten ere, oztopoak izan dituztelako. Kontua da orain arte debekatuta egon dela parkean bertan bizikletan ibiltzea. Azkenaldian, baina, debekua kendu egin dute, baina muga handiak jarri dituzte. Hau da, Valderejo parkeko hainbat lekutan ezin da bizikletan ibili. Hala, parkeko inguru ederrenetan bizikletan ibiltzea posible ez denez, lekua aldatzea erabaki dute.

**IBILBIDE LASAIA**

Besaideko hainbat kide joan den astean izan ziren Izkin, biharko ibilbidea prestatzen: "Denboraldiko lehenengo irteera da, eta badakigu neguan jendea ez dela bizikletan askorik ibili. Alde horretatik, ez da ibilbide gogorra izango. 25 kilometro inguru egingo ditugu, eta hasieran dagoen aldapa gora kenduta, gainontzekoa nahiko laua da, gorabehera txikiekin". 25 kilometro horietan Arabako parke natural horretako txoko ederrenetan ibiliko dira, betiere inguruak zainduta: "Horrelako lekuetan pistetan ibili behar da, ezin da gura den lekuetatik ibili, balio ekologiko handia duten basoak dira-eta. Hantxe bizikletan ibiltzea luxua da, eta arau guztiak errespetatuta ibiltzea da eskertzeko modu onena". Hala, biharkoa urteko lehenengo irteera izanda, Besaidekoek aurreikusten dute hilabeteek aurrera egin ahala gero eta jende gehiago animatuko dela: "Badakigu jendeak oraindik elurra duela buruan, oraindik ez da-eta eski denboraldia amaitu. Horrekin batera, askok eta askok ez dute neguan bizikleta ukitu ere egin, eta orain hasi dira lehenengo kilometroak egiten. Hala, jendea animatu gura dugu bizikletan ibiltzera, eta Besaideko irteeretan esku hartzera". Lehenengo irteera asteburu osorako izan bazen ere, uztailera bitarteko irteerak egun batekoak izango dira. Bihar, 09:00etan irtengo dira Garibaitik.

## Besaidek gertu du GR-9ko bigarren irteera

Joan den urtean Gipuzkoako Birak izan zuen arrakastak jarraipena behar zuen, eta Besaideko lagunek abian dute bigarren erronka: GR-9 izeneko mendi zeharkaldia oinez egitea, hain zuzen. Hala, apirilaren 2an egingo dute zeharkaldi horretako bigarren etapa, Añezkar gainetik Etxalekura doana (Nafarroa). Irteera horretan esku hartzeko izenematea datorren astean egingo dute, hilaren 27tik 30era arte. Antolatzaileek aurreikusten dute bost orduko ibilbidea izango dela, eta ez du aparteko zailtasunik. Besaidekoek eskertuko dute izenematea Besaideko egoitzan bertan egitea.

## futbitoa zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Arrano Taberna - Berdes Bremen | 6-8 |
| Dribling - Billy & The Cowboys | 5-4 |
| Iluntz - Billy & The Cowboys | 7-2 |
| Abokajarro - HLB 108 | 6-4 |
| Pippol - Betrayer | 4-2 |

**PARTIDUAK**

**Martxoak 25, zapatua**

| | | |
|---|---|---|
| **09:50** | Betrayer - Dribling | **Irish Pub** |
| **11:00** | Arrano Taberna - Irish Pub | **Betrayer** |
| **12:00** | Iriztu - HLB 108 | **Arrano Taberna** |
| **13:00** | Tomahawk - Aurrera Bol. | **HLB 108** |
| **16:00** | Fuxxion - AC Surcos | **AT Celaya** |
| **17:00** | Berdes Bremen - Abokajarro | **Fuxxion** |
| **18:00** | Billy & The. - Txoponbei. | **Berdes Bre.** |

**Martxoak 26, domeka**

| | | |
|---|---|---|
| **10:50** | THC - AC Surcos | **Saukelu Scream** |
| **12:00** | Saukelu Scream - Fuxxion | **THC** |
| **13:00** | Pippol - Lasagabaster | **Fuxxion** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Betrayer | 34 | 13 |
| **2.** | Dribling | 34 | 13 |
| **3.** | Lasagabaster | 28 | 12 |
| **4.** | Pippol | 25 | 13 |
| **5.** | Saukelu Scream | 25 | 13 |
| **6.** | Iriztu Taberna | 22 | 11 |
| **7.** | Fuxxion | 22 | 12 |
| **8.** | Iluntz | 21 | 13 |
| **9.** | AT Celaya | 21 | 13 |
| **10.** | Abokajarro | 20 | 12 |
| **11.** | Arrano Taberna | 18 | 12 |
| **12.** | AC Surcos | 15 | 11 |
| **13.** | Billy & The Cowboys | 15 | 13 |
| **14.** | Tomahawk | 15 | 13 |
| **15.** | Irish Pub Dublin | 15 | 12 |
| **16.** | HLB 108 | 15 | 13 |
| **17.** | Aurrera Bolie TMT | 12 | 12 |
| **18.** | Berdes Bremen | 9 | 13 |
| **19.** | Txoponbeixek | 6 | 13 |
| **20.** | THC | 0 | 12 |

### Liga Txapelketa berriro ere

Dagoeneko badakigu Iluntz, Abokajarro eta Pippol taldeek aurrera egin dutela Kopa Txapelketan. Eta, kanporaketa horretako azken partidua falta da jokatzeko, Iriztuk eta Saukeluk atzeratu egin zuten-eta norgehiagoka. Horrekin batera, Liga Txapelketako partiduak jokatuko dituzte asteburuan. Goiz samar bada ere, merezi du bihar Betrayerren eta Driblingen arteko partidua ikustea: lehenengo postua dago jokoan.

**SASKIBALOIA** > IGOERA FASEA

# Askartzaren mesedea aprobetxatzeko momentua

Mugarri Alkesak Urdanetaren kantxan jokatuko du; gertu du bigarren postua

**X.U.** > ARRASATE

Gutxien espero zutenean etorri da Askartzakoen mesedea. Joan den astean, Leioako taldeak azkeneko postuan zegoen Ocaso Berrio Otxoa taldearen kontra jokatu zuen, eta Santutxukoek ezustea eman zuten, Arrasateren kontrario zuzena mendean hartuta (79-70). Hala, sailkapenean berdinduta, Arrasatekoek oraindik Askartzakoen beste hutsegite baten zain egon behar dute, eta, noski, Zurututzaren mutilek geratzen diren norgehiagoka guztiak irabazi behar dituzte.

**URDANETAREN KANTXARA**

Loiukoak sailkapenaren erdi-erdian daude, gora egiteko aukera barik, baina ikusi berri den moduan, edonor izan daiteke ezustea emateko gauza.

> ATLETISMOA

## Markel Blanco Melillan, Euskadiko Selekzioarekin

Gazte mailako Espainiako Atletismo Txapelketa egingo dute asteburuan Melillan. Selekzioen arteko txapelketa izango da, eta Euskadiko ordezkaritzarekin izango da Markel Blanco arrasatearra, krosean. Hala, joan den eguaztena ezkero dago Markel Melillan, taldearekin kontzentratuta.

Horrekin batera, asteburuan Arrasateko taldeko sei lasterkari izango dira Lasarteko proban: Malen Azua, Andoni Perez, Rafa Cordero, Iñigo Uribarren, Martin Berriz eta Josu Revuelta dira lasterkari horiek.

> ESKUBALOIA

## Gusla Urduliz taldearen bisita izango du Ford Mugarrik bihar

Ezkerreko hankarekin hasi du Ford Mugarrik igoera fasea, Urdanetaren kantxan 25-21 galduta. Eta hori zuzendu guran, biharko kontrario Gusla Urdulizek ezin du Iturripen etekinik atera (18:45).

Igoera fasean taldeak etxean izan behar du indartsu. Hala, kanpoan lortutako puntu guztiak ongietorriak izango dira, baina Urdanetaren kantxan galtzea aurreikuspenen barruan sar daiteke. Hori bai, taldea guztia ematera kantxaratuko da bihar, etxean ez dagoelako porroterako lekurik.

> ERRUGBIA

## Igoera fasean, gura baino zailtasun handiagoekin

Ezin esan Arrasate gura moduko igoera fasea egiten dabilenik. Elorriorekin eta Mungiarekin batera, jokatutako sei norgehiagoketan bi garaipen baino ez dituzte erdietsi, eta azkenak dira sailkapenean, Bizkaiko bi taldeek launa bonus dituzte-eta. Horrek esan gura du lau puntu gehiago dituztela.

Hala, joan den astean Elorrion 38-5 galduta, Arrasatekoek azkenaurreko postuan dagoen Mungia izango dute asteburuan bisitari. Joaneko partiduan 30-13 nagusitu zen Mungia.

**boteprontuen**

**Larraitz Arando** > Udal Sexologia Zerbitzuko teknikaria

# "Ezberdintasuna da gure aberastasuna"

**UBANE MADERA** > ARRASATE

**Sexualitate kontuen gainean gehiago jakin guran, Udal Sexologia Zerbitzura jo dugu. Larraitz Arando teknikariak esan digu azken urteetan diskurtsoa asko aldatu arren, errealitatean ez direla horrenbeste aldatu:**




**Benetan dugu zerbitzu horren beharra? Hemen oso gutxi ligatzen ei da...**

Bai. Jendeak erabiltzen du eta hori eskaria dagoelako da. Gainera, ligatzen ez bada edo sexualitatea askorik ez praktikatzea ez bazaigu inporta, ez legoke arazorik. Baina inporta zaigu, deseroso sentiarazten gaitu, hortaz, are inportanteagoa da gure zerbizua. Zergatik gertatzen den hori eta zela landu aztertzeko aukera dago-eta.

**Zerk kezkatzen ditu arrasatearrak?**

Zer den normala eta zer ez den normala etiketatzeak, gero normala dena egiteko. Ni, berriz, larritzen nau sexualitate kontuetan behin eta berriro harri berarekin trabatzeak.

**Zein zerbitzu eskaintzen duzue?**

Aholkularitza ematen dugu, bulegoan, telefonoz eta e-mailez; eta sentsibilizazio kanpainak-eta, sexologia herriratzeko ekimenak.

**Konplexu asko dago?**

Bai. Denok gura dugu ereduan berdinak izan baina zorionez, denok gara ezberdinak. Ezberdintasun hori da gure aberastasuna.

**Prebenitzeko doaz edo berandu denean?**

Bietatik dator, baina gehiago jendea larri dagoenean; zelanbait, sexualitatea bere bizitza baldintzatzen hasten denean.

**Zein mitorekin zaudete zeharo aspertuta?**

Ez gaude aspertuta, baina egia da batzuk asko errepikatzen direla, batez ere zakilarekin eta neskaren desioarekin lotutakoak.

**Eta zein aholku errepikatuko zenuke aspertu arte?**

Norberaren gorputza eta norberaren gorputzaren desioak entzun eta errespetatu behar ditugula eta kasu egin behar diegula.

**argazki zaharra**

# Industriak indarra hartu zuenean

1923an, Primo de Riverak diktadura ezarri zuen Estatuan. Bi urte geroago, Arrasaten egon zen, sasoi hartan indartu ziren enpresak eta sortu ziren industria berriak bisitatzen. Argazkia da horren lekuko. Union Cerrajera bisitatu zuten. Diktadorea da makilarekin dagoena, petralean lore bat duena. Eskuman Toribio Agirre dago eta ezkerrean, Rikardo Azkoaga eta Alfredo Laffite (Union Cerrajerakoak).

**Argazkia eta testua:** *Arrasate, langileek eraikitako herria.*
**Urtea:** 1925.



**bere ustez**



**Ander Etxeberria**

# Errekak garbitzen zikintzen

Orri hauetan irakurtzea nahiko nukeen berri bat ondokoa da: "Hasi da bainuen sasoia herriko ibaietan: gaztetxoak animatu dira bertako uretan murgiltzen... eta ez dira desintegratu". Urte asko pasatu beharko da horretarako, baina, itxura denez, bidean goaz.

Aste batzuk dela, Txabarri jaunak zioen sekula ere ez dela gaur beste inbertitu Deba ibaian. (Egunen batean, beste ahaldun nagusi bat berdina esan beharrean egongo da Udalatxi buruz).

**"Hasi da bainuen sasoia herriko ibaietan: gaztetxoak animatu dira uretan murgiltzen"**

Orain inbertitu beharra izango da aurretik ez delako diru askorik jarri eta kloaka bezala erabili delako. Zikinekin zer egin? Errekara. Eta horrela, belaunaldi batzuk geratu gara egin gabe aurretik mendeetan egin ahal zena: busti, bainua hartu edo arrantzan egin.

Aitonak erabiltzen zuen eskailuak (zer da hori?) harrapatzeko gailua, Marie Brizard botila batekin egindakoa, museo pieza bihurtu zen aspaldi. Etorriko dira, bada, garai hobeak, baina oraindik isurketak daude Deba ibaian. Aldiro-aldiro izaten dira, bereziki ostiraletan edo jai bezperetan, aurreko astean adibidez, Zerrajera kalearen pareko ur jauzitxoetan sortutako aparrak agertu ohi duenez.

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE




**ITXITA** Azken urtean sei denda itxi dituzte erdigunean; Domingo Irala kalean bakarrik lau denda daude itxita egun. NEREA ZUBIETE

**ZERBITZUAK** > HERRIKO KOMERTZIOAK

# Herriko giroa galtzeko arriskuan dagoela ikusten du Bedelkarrek

Herriaren beharra zein den jakiteko foro bat egin behar dela uste du, denek parte hartzeko foroa

Agintariak iritzia aldatzen hasi dira merkataritza-guneak herritik kanpo zabaltzeari buruz

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Bedelkar elkartea haserre dago Eroskik beste supermerkatu bat zabaldu behar duelako herrian. "Herriaren kanpoaldean eraikitzen dituzte supermerkatu handiak eta horrek kalte egiten dio herriari berari, ez soilik herri barruko dendariei", diosku Juanje Amasorrain Bedelkarreko kideak. "Herriko bizimodua galtzen doa urtetik urtera eta erabat galtzeko arriskuan dago, gainera", dio. "Arrasateko dendariek ere ikusi dute jendea merkataritza-gunera bakarrik doala, ez dela herrian ibiltzen; hala ere, kezka Gipuzkoa osoan dagoela ikusten da Dendartean, Gipuzkoako dendarien elkartean elkartean", gaineratu du Juanjek.

**ZEIN DA HERRIAREN BEHARRA?**

Bedelkarrek uste du lehenengo aztertu behar dela zein den herriaren beharra. "Horretarako, foro bat sortu behar da, dendarien, Udalaren, erosleen eta baita sindikatuen artean ere, guztiok inplikatu behar dugu horretan", dio Juanjek.

Azken urtean, adibidez, sei denda itxi dituzte erdigunean eta ez dute berririk zabaldu. "Dendariek erretiroa hartu ahala, itxi egiten dituzte dendak, eta ez ditu berriro inork zabaltzen, ez dago oinordekorik", dio Juanjek. Tere Gabilondo Bedelkarreko presidenteari ere ez zaio ondo iruditzen supermerkatuak herritik kanpo jartzea. "Non egin behar ditu erosketak autorik ezin duenak hartu? Beste norbaiten mende bizi behar du?", galdetzen du.

**AGINTARIAK ERE KEZKATUTA**

Juanje Amasorrainek kontatu digun moduan, supermerkatu handiak nonahi eraikitzeko legea defendatzen zuten Aldundiak eta Jaurlaritzak. Orain, ordea, iritzia aldatzen hasi dira. "Katalunian ikusi dute merkaltaritza-gune handien eraginez herriak hiltzen hasi zirela, eta merkaltaritza-gune handiak zabaltzeko legea aldatu dute. Hemengo agintariak ere konturatu dira horretaz eta horregatik hasi dira iritzia aldatzen", azaldu digu Juanje Amasorrainek.

**ERDIGUNEKO GUNEAK**

Agintariak aztertzen ari dira merkataritza-guneak herri barruan jartzeko aukera. "Hori beste kontu bat da, eta horren inguruan hitz egin dezakegu", dio Juanjek. "Eibarren, adibidez, erdigunean dago merkataritza-gune bat eta herria bera bizirik dagoela ikusten da". Herri giroa, baina, denon eskuetan dagoela dio.

**ARAU SUBSIDIARIOAK**

## Informazio eta gobernu krisia salatu du PSE-EEk

**O.E.** > BERGARA

Bergarako Udaleko talde sozialistak salatu du krisia dagoela Udal Gobernuko kideen artean. Horrekin batera, eta arau subsidiarioei begira, alkateak "portaera susmagarria" duela salatu du. Udaleko talde sozialistak bidali duen gutunak dio "ulergaitza" dela arau subsidiarioen aurrerapena 2003ko irailaren 30ean datatua izatea eta 2005eko bilera arte berririk ez ematea ez gobernuko kideei ezta oposizioari ere. Bergarako PSE-EEk dio aurrerapena bileratik hilabetera jaso zuela eta eskaera alderdiak egin zuela, idatziz. Udaleko talde sozialistak galdetzen du ea etorkizuneko lurzoruaren legeak zerikusirik duen EAJ-EAk hain azkar onartu gura dituen arau subsidiarioekin.

**UDAL KRISIA IKUSI**

Arau subsidiarioen adibidean ez ezik, hiltegiaren gaian ere ikusten du gobernu krisia dagoela Udaleko talde sozialistak.

> NORTASUN AGIRIAK

## Otsailean egin zutenen NAk udaletxean daude

Nortasun Agiria otsailaren 22an egin zuten herritarrek, udaletxeko idazkaritza bulegotik pasa behar dute agiria jasotzera. Aste honetan iritsi dira agiriak udaletxera eta jabeak gura dutenean pasa daitezke jasotzera. Iraungitako, kadukatutako, eta ordezko agiriak eraman behar dituzte.

Bestalde, aste honetan Nortasun Agiri gehiago egin dituzte eta berriro egingo dituzte hilaren 30ean. Hilabete inguru behar izaten dute karnetak ekartzeko.

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

**Iñaki Aspiazu** > Arkitektoa

# "San Martin plazan ere galtzada-harriak jartzea da gure asmoa"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

**Iñaki Aspiazu Iza Bergarako arkitektoak Gasteizen du bulegoa, baina martitzenero etortzen da Bergarako udaletxera, hango edo hemengo proiektuei buruz hirigintzako zinegotzi eta teknikariekin berba egitera. Harenak dira, besteak beste, Munibe plaza, San Pedro kalea, Matxiategi pasealekua eta udaletxearen berrikuntza. Kanpoan ere lan asko egin ditu.**

**Seminarioko auditorioa duzu hurrengo proiektua?**

Hantxe dabiltza aztertzen zer egin gura duten, ez dugu proiekturik egin oraindik. Erdigunean dago, eta kokapena zoragarria da.

**Zurea izan da erdigunean galtzada-harriak jartzeko ideia?**

Azpiko galtzada-harriak dira; lurra zulatu, galtzada-harriak kendu, garbitu, forma berria eman, azpiegitura berriak jarri eta gainean jarri ditugu azpiko galtzada-harriak. Azala bakarrik ikusten da orain, baina behar bezalako zerbitzu-sarea jarri dugu azpian. Bestalde, oinezkoendako pentsatuta dago erdigunea. Gaur egun Bergarak ez du beste irtenbiderik, eta autoak ere handik pasatzen dira, baina etorkizunean oinezkoak bakarrik ibiliko dira.

**Beste herri askotan bezala?**

Bai. Hemengo galtzada-harria hemen bertan zegoena da. Ez da irristakorra eta oso gogorra da.

**Beste non jarriko dituzue galtzada-harriak?**

Erdigune guztian jartzea da asmoa. Aurrekontuek agintzen duten heinean, Ariznoa plazan, San Pedro kalean, Bidekurutzetan, San Martin plazan eta Barrenkalean ere jarriko ditugu.

**San Martin plazan ere bai?**

Zergatik ez? Argazki zaharrak ikusi ditugu eta galtzada-harriak ageri dira; azpian egongo dira orain. Hala ere, aztertu egin beharko da plazaren eremu hori. Zer-nolako zoladura dagoen ikusi behar da lehenengo, eta horrek esango digu nola lan egin behar dugun.

**Upelategiak ere egin dituzu. Modan dago hori arkitektoen artean?**

Samaniegoko Baigorrin, adibidez, oso proiektu funtzionala egin dugu. Ardoa egiteko sistema tradizionala jarraitu dugu: zortzi solairu ditu eraikinak, prozesu guztian grabitateak agintzen du eta ez dute bonbarik erabiltzen. Horixe da berrikuntza, eta interes handia piztu du bai arkitekturan baita enologian ere.

Mugako dorrea egin genuenean, helburua ere beste bat zen: upelategia eginda zegoen eta eraikinaren ikurra edo eraikina ezaguna egingo zuen zerbait egitea zen asmoa; erreferentzia-puntu bat da. Atentzioa emateko asmoarekin egindako proiektua izan da hori.

**Zeri ematen diozu garrantzia: argiari, diseinuari, espazioei, funtzionaltasunari...?**

Proiektuak esaten dit. Samaniegoko upelategi hartan, adibidez, inguruak ere garrantzi handia izan du. 14.000 metro koadro ditu eraikinak, baina ia ez da ikusten, lur azpian dagoelako.

Eraikin publikoetan, aldiz, oso garrantzitsuak dira argia eta barne zirkulazioa, jendeak eraikin barrua erraz ezagutaraztea da helburua, nahas ez dadin. Bestalde, erabilera askotariko eraikina izatea ere garrantzitsua da, denboran zehar eta beharraren arabera aldatu edo egokitu egin daitekeena.

**Arkitektura edo arkitektoak egoten dira modan?**

Arkitekto batzuk modan daude, egia da, baina uste dut ez garela modara mugatu behar. Eskaera sozialera egokitu behar dugu. Ez ditugu kaxa politak bakarrik egin behar, erabilera duten erakinak egin behar ditugu, inguruarekin bat datozenak, eta ekonomiari begiratuz egin behar ditugu, bai eraikitzeko gastuei eta baita geroko mantentzelaneko gastuei begiratuta.

**Zenbat puntu ematen dizkiozu Bergarako itxurari?**

Notak jartzea oso subjektiboa da. Baina uste dut interes handiko herria dela.

**"Ez ditugu kaxa politak bakarrik egin behar, inguruak eta ekonomiak ere garrantzia dute"**

**"Eraikin publikoek erabilera askotarikoak behar dute izan, aldakorrak"**

BERE LAN BATZUK

**> ERAIKIN PUBLIKOAK**
Adibidez: Gasteizko Justizia jauregia eta Geografia eta Historia fakultatea, Amurrioko eta Eltziegoko kiroldegiak eta Eltziegoko osasun etxea.

**> LAN BEREZIAK**
Tartean: Samaniegoko Baigorri upelategia, Haroko Muga upelategiko dorrea, Forondako biltegia eta Bergarako Itesa eta La Guipuzcoana lantegiak.

**> ZAHARBERRITZEAK**
Besteak beste: Bergarako Udaletxea eta nekazaritza ganbera, Agarreko garaia, Bastidako giza etxea eta Gasteizko Udal Artxiboa.



Iñaki Aspiazu plazako eskaileretan. O.E.

**ORRASKI**
so|arium
San Pedro 6
Tel.: 943 76 47 01
BERGARA

*Eguzkia neurrian hartzen jakin behar da*

**Aste Santurako eskaintza berezia**
**6 saio + 1 doan**
**42 € bakarrik**

Zentro honek betetzen ditu 1002/2002 (BOE 243, 2002/10/10) Errege Dekretuan ezarritako araudia eta 265/2003 (EHAA 222, 2003/11/13) Dekretua.

*Beltzaran jartzeko aparatuen UVA izpiek eragina izan dezakete azalean eta begietan. Ondorioak izpien izaeraren eta intentsitatearen araberakoak izango dira, baita pertsona bakoitzaren azalaren sentsibilitatearen araberakoa ere.*

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak | Paper pintatuak
Moketa eta sintasola | Harea zorrotada
Iztuku esponjatua | Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

**Aldoka Maldoka**
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

**ANTZERKIA** > 'TODOS NACEMOS VASCOS' ANTZEZLANA

# Euskaldunen gaineko topikoei barre egiteko antzezlana

Egubakoitzean, hilaren 31n, egingo dute ikuskizuna Udal Pilotalekuan

'Vaya semanita'-ko Oscar Terolen izen bereko liburuan oinarrituta dago antzezlana

Umorezko komedia da eta 'El cocidito madrileño'-ren lantalde berak egin du

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Datorren egubakoitzean, hilaren 31n, Glu Glu taldeak *Todos nacemos vascos* antzezlana egingo du Udal Pilotalekuan, 22:00etan. Sarrerak salgai daude aspalditik kultura etxean eta Elkar liburudendan.

*Todos nacemos vascos* ikuskizuna Oscar Terol telebista aurkezleak izen berarekin idatzitako liburuan oinarrituta dago. ETBko *Vaya semanita* saioaren arrakastaren ondorioz (Terolek gidatzen zuen saio hori), liburuak harrera oso ona izan zuen, eta Glu Glu konpainiak antzerkirako egokitzea erabaki zuen.

Are gehiago, Glu Gluk aurretik Javier Vizcaino kazetariaren *El cocidito madrileño* liburua ere egokitu zuen antzerkirako, eta ETBk eta Radio Euskadik egin zuten promozio lan erraldoiari esker Euskal Herriko areto gehienak bete egin zituzten. *El cocidito madrileño* liburuan eta ikuskizunean, bietan, Espainiako eskuineko kazetariek euskaldunen gainean esandakoak jaso zituzten. Jaso bakarrik ez, horren gaineko parodia ere egin zuten, eta jakin-min handia piztu zuen.



**UMOREA** Umorezko komedia egingo dute. GLU GLU

## Mota guztietako ikuskizunak egiten dituzte

Bilbo aldeko Glu Glu ekoizpen taldeak hainbat ikuskizun egin ditu azkeneko urteotan. Gehienak umorezko komediak izaten dira, baina badituzte bestelakoak ere. Bitxienen artean, 3 eta 9 urte arteko umeendako idatzitako *3 txerritxo* daukate. Mundua ezagutu gura duten hiru txerritxoren istorioa kontatzen du.

Aipatutako *Todos nacemos vascos* eta *El cocidito madrileño* arrakastatsuaz gain, Alfredo Diazen *El fin del mundo sera una rotonda* bakarrizketa-ikuskizuna ere bultzatu izan dute.

Oraingoan, Glu Gluk lantalde antzekoa batu du *Todos nacemos vascos* ikuskizuna egiteko. Galder Perez eta Eloi Beato izan dira liburua antzerkira egokitzeko ardura hartu dutenak, eta Eloi Beatok berak egin ditu zuzendari lanak. Eloi Beatok Sobradun antzerki taldeko hainbat lan zuzendu zituen iraganean.

### OHIKO AKTORE ETA LANTALDEA

Aktoreei dagokienez, gehienak *El cocidito madrileño*-n lan egin zuten eta ikusle askorendako ezagunak dira: Gorka Aginagalde, Gurutze Beitia, Josean de Miguel, Galder Perez, Maribel Salas, Mari Cruz Melgosa, Iñigo Txaflas eta Gema Martinez, hain zuzen ere.

### "GUZTIOK GARA EUSKALDUNAK"

Lola Jabugoko txurro-saltzailea hil eta zerura joango da. Han, harrituta jakingo du guztiok garela euskaldunak, Lola bera barne. Lolak behin eta berriro ezeztatuko du, baina hori egiaztatzeko hainbat adibide emango dizkiote.

Zer esanik ez, istorio hori ironiaz eta kritikaz jositako komedia da, oinarrian eman gura duten mezua lurtar guzti-guztiok euskaldunak garela da-eta.

Hil berri den Lolak zeruan hainbat pertsonaia bitxi ezagutuko ditu eta haiek euskaldunen mundua ezagutzera emango diote. Horretarako, euskal topikoen gainbegiratua egingo dute: Euskal Herrian zelan ligatzen den, existitzen diren euskaldun motak, euskal sukaldaritza...

Hain zuzen ere, Lolari erakutsiko diote historiako pasarte guztietan eta munduko herrialde guztietan euskalduna den zerbait dagoela: Holandan, Groenlandian...

### AGENDA BETE-BETETA

Ikuskizunaren sortzaileek eskerrak eman gura dizkiete *Cocidito madrileño* ikusi zuten 63.249 lagunei. Horrekin lotuta, iazko abendutik aurtengo uda arte agenda beteta daukate. Orain dela gutxi Oñatin izan ziren.

**MUSIKA**

# Supercools taldeari agurra egiteko jaia

Bergarako taldeak jotzeari utziko dio urtebetez, eta agurra egingo dute

**I.B.** > BERGARA

Supercools taldeko gitarra jotzaile Gaizkak kanpora joan behar du urtebetez. Horren ondorioz, taldeak etenaldi luzea egingo du.

Horren aurretik, baina, agurreko kontzertua antolatu dute. Bihar, zapatua, aipatutako Supercools taldeaz gain, herrikide eta lagun duten Fly Shit, Bergarako The Bollocks punk-rock zaleak eta Bartzelonako Mes que Odi hardcore taldea izango dira gaztetxean. Jaia 21:00etan hasiko da, eta 3 euro da sarrera.

### ZUZENEKO DISKOA

Hala ere, Supercools taldeko lagunek zerbait bereziagoa egin gura zuten. Horregatik, zuzeneko diskoa grabatu berri dute, eurek gustuko dituzten hardcore taldeen bertsioekin. Besteak beste, Bost Axola, Poison Idea, RKL, Spermbirds, Dag Nasty eta beste askoren kantuak batu dituzte. Horiek guztiak 80ko hamarkadako hardcore taldeak dira, euren musika heziketan zeresan handia dutenak. Zapatuko kontzertuan eskuragarri egongo da aipatutako diskoa, eta CDarekin batera prestatu duten fantzinea ere bai.



Supercoolseko Aitor.

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46 BERGARA 943 76 45 53
Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62




# ZABALA OPTIKA

**Iñigo Zabala** *Optiko Optometrista*

Barrenkale 25, Bergara • Tel.: 943 76 16 97

## Udaberriko eskaintza berezia!

- **EGUZKITARAKO betaurreko graduatuak 75€-tik aurrera**
- **Eguzkitarako PROGRESIBOAK, lente parea 169€-tik aurrera**



**Mota guztietako Progresiboetan eskaintza berezia**

PRS:170/04

# AMETS
estetika zentroa

Masterreka 19 BERGARA Tel.: 943 76 46 53

**Aurpegirako eta gorputzerako tratamenduetan espezialistak:**



**PRESOTERAPIA**
Zirkulazioa hobetzeko, bolumena txikitzeko

**FANGOTERAPIA**






**VACUNTERAPIA**
Zelulitisaren aurka, ehunak berrindartzeko

- **Laser bidezko depilazio medikoa**
  3-6 saiotan betiko desagertzen da ilea
- **Solariuma dutxarekin**
  Euskal Gobernuak homologatutako solariuma dutxarekin
- **Haurdunaldi ondorengo tratamenduetan espezialistak gara**
- **12 urteko esperientziak bermatzen gaitu**

AZKARAN
Asegurua edukita deskontu bereziak

FUTBOLA > ERREGIONAL MAILA

# Bergarak denboraldiko lana du orain jokoan

## Lagun Onak eta Zumaiako izango dira Agorrosinen; Urolaren zelaira joango dira gero

XABIER URTZELAI> BERGARA

Datozen hiru jardunaldietan erabakiko da, neurri handi batean, Bergarak Preferentera igotzeko aukerarik duen ala ez.

Bihar, joan den astean Zumaiako mendean hartu zuen taldea izango da Agorrosinen: Lagun Onak. Eta horren ostean, igoera postuengatik lehian dabiltzan kontrario zuzenen kontra jokatuko du Bergarak; Zumaiako etorriko da Bergarara, eta gero, Josu Zubiaren mutilek liderraren kontra jokatuko dute Zumarragan. Hala, datozen hiru norgehiagoken gainean egin dugu berba Bergarako entrenatzailearekin: "Partidu erabakigarriak izango dira: aurrekoen akatsen zain geunden, eta Zumaiakok dagoeneko galdu du partidu bat, Lagun Onak taldearen kontra". Hain zuzen ere, Bergararen biharko kontrarioa da talde hori: "Hirugarren Mailatik hiru jokalari jaitsi dituzte erregionaleko taldera, eta hori igarri egiten da. Horietako bat aurrelaria da, eta beste biak euskarri lanetan ibiltzen dira. Lagun Onak ez da kontrario erraza, baina ezin dugu kalerik egin".

Zumaiako etorriko da gero: "Bi partidu ditugu etxean jarraian, eta Zumaiakori irabazita talde hori atzean utziko genuke. Beste gauza bat daukat argi: Urolari irabazten badiogu, talde horrek beste akatsen bat egingo du".

**ZENBAT TALDE IGOKO DIRA?**

Momentuz inork ez du galdera horren erantzuna, goiko kategorietako gorabeherek eragin zuzena izango dute-eta. Josu Zubiak espero du lehenengo sailkatua zuzenean igotzea, eta bigarrenak igotzeko kanporaketaren bat jokatzea. Lehenengo postuan sailkatzea posible ez bada, gutxienez bigarren aukerari heldu behar diote mahoneroek.



XABIER URTZELAI

## Javi Perezek ezin hobeto hasi du Eibarren lana

Eguaztenean egin zuen Eibarko entrenatzaile berriak estreinaldia, Agorrosinen. Azken asteotako emaitza txarrek eta sailkapeneko egoerak baldintzatuta, Javi Perezek hartu du Olaberen lekua. Hala, eguaztenean aitzakia polita zegoen Agorrosinera joateko, Eibarrek lagunartekoa jokatu zuen-eta Coloradoko Rapids taldearen kontra. Eta, Eibarko entrenatzaile berriak estreinaldi goxoa izan zuen, 8-2 gailendu zen-eta Eibar. Erretratuan, Azkoitia Rapids taldeko euskarriarekin lehian.

ESKUBALOIA

# Bergarak asteburuan hasiko du Kopa

## Donibane taldearen bisitarekin hasiko dute mahoneroek txapelketa hori

X.U. > BERGARA

Liga Txapelketan bigarren itzuli oso ona egin eta gero, Bergarak asteburuan hasiko du Kopa Txapelketa. Bigarren jardunaldia egongo da jokoan, baina Bergarakoendako lehenengo norgehiagoka izango da, aurreko astean deskantsua izan zuten-eta.

**KONTRARIOA: DONIBANE**

Hala, joan den astean Allerru mendean hartu zuen Donibane izango da Labegaraietan. Kontrario erraza ez bada ere, mahoneroek gogotsu ekin gura dute Kopa Txapelketa, Ligan igoera faserako sailkatu ez zirenez lan txukuna egin gura dute-eta denboraldiko azken txanpan. Eta badute horretarako taldea, bigarren fasean erakutsi dute hori.

> SASKIBALOIA

## Candy Bergara Kirol Elkartea seigarren garaipenaren atzetik

Gizonezko senior mailan, Bergarako taldea gero eta aurrerago dago. Dagoeneko laugarren postuan daude Candyko mutilak, liderrak baino bi norgehiagoka gutxiago irabazita. Liga Txapelketa amaitzeko lau norgehiagoka geratzen dira, eta badute aurrerago egiteko aukera. Seguruenik, hirugarren postuan dagoen Aloña atzean uztea izango da helburuetako bat. Horretarako, seigarren sailkatuta dagoen Egaña taldearen kontra irabazi egin beharko dute asteburuan. Bergarako mutilek bihar jokatuko dute, zapatua, 19:45ean, Labegaraietan.

### labegaraieta

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Belengua - Guri Guri | 1-12 |
| Fit Automotion - Kalaveras | 2-6 |
| Agirrebeña - Niu Tim | 3-9 |
| Teatekh - A ze flaxa | 1-3 |
| Mongatxurra - Pub Irish | 5-6 |
| Errotagain - Pirulotarrak | 10-6 |
| Irubide - Makanaki | 2-6 |
| Egurre - Txakurra | 10-4 |
| Komando Piperrak - Alls Black's | 5-3 |

**PARTIDUAK**

**Martxoak 25, zapatua (kanpoan)**

| | | |
|---|---|---|
| **16:00** | Niu Tim - Komando | **Txakurra** |
| **17:00** | Txakurra - Makanaki | **Niu Tim** |
| **18:00** | Egurre - Paco Cia | **Santana Rivers** |
| **19:00** | Pirulotarrak - Santana Riv. | **Paco Cia** |

**Martxoak 26, domeka (barruan)**

| | | |
|---|---|---|
| **16:00** | Fit Automot - Errotagain | **Pirulotar.** |
| **17:00** | Kalaveras - Pirulotarrak | **Guri-Guri** |
| **18:00** | Guri Guri - Makanaki | **Kalaveras** |
| **19:00** | Irubide - Guri Guri | **A ze flaxa** |
| **20:00** | SDTNT - A ze flaxa | **Irubide** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Alls Blacks | 54 | 19 |
| **2.** | Kalaveras | 48 | 19 |
| **3.** | Teatekh | 42 | 21 |
| **4.** | Errotagain | 42 | 18 |
| **5.** | A ze flaxa | 40 | 19 |
| **6.** | Agirrebeña Jatetxea | 39 | 20 |
| **7.** | Mongatxurra | 38 | 20 |
| **8.** | Makanaki | 34 | 18 |
| **9.** | Pub Irish | 31 | 20 |
| **10.** | Niu Tim | 230 | 19 |
| **11.** | Komando Piperrak | 27 | 19 |
| **12.** | Pirulotarrak | 24 | 18 |
| **13.** | Santana Rivers | 23 | 18 |
| **14.** | Paco Cia | 22 | 19 |
| **15.** | Egurre | 22 | 18 |
| **16.** | Belengua Taberna | 16 | 18 |
| **17.** | Guri Guri | 16 | 18 |
| **18.** | SDTNT | 12 | 19 |
| **19.** | Irubide Jatetxea | 11 | 18 |
| **20.** | Fit Automotion | 6 | 19 |
| **21.** | Txakurra | 3 | 19 |

## Datorren astean amaituko dute Liga Txapelketa

Horrek esan gura du atzeratutako norgehiagoka guztiak oraingo asteburuan jokatu beharko dituztela, eta talde batzuek bi partidu jokatu beharko dituztela. Horrekin batera, esan, Alls Black's taldeko Javi Lopezek ezingo duela txapelketa amaitu arte gehiago jokatu, zigortuta dagoelako. Liga Txapelketa amaitzearekin batera hasiko dute Kopa; hala, antolatzaileek martxoaren 28an egingo dute txapelketa horretarako zozketa. Antolatzaileek, dena argitu bitartean, Guri Guri zigortzea erabaki dute.

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan
Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak
610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA
Pintura-lanak
orokorrean
•
Pintura industriala
•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES
BERGARA
607 349 043

Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

# EZKONTZAK

Egubakoitza / 2006ko martxoaren 24a / GOIENKARIAren PUBLIZITATE GEHIGARRIA




Aretxabaletako Ane Aldai eta Oskar Velasco.

AZALA: OXEL ARRIETA / ARGAZKIA: KIÑU





iKER

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
**BAINUAK:** ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR



Jean Louis David

POLIT EGOTEKO

T R A D I T I O N
Ibargarai 43 • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 22 48

D I F F U S I O N
Q U I C K  S E R V I C E
Magdalena 16 • 01008 GASTEIZ • Tel.: 945 13 47 26

D I F F U S I O N
Garbera Merkataritza etxea 23 aretoa
20017 DONOSTIA • Tel.: 943 39 45 86

D I F F U S I O N
Urbil Merkataritza etxea B7 aretoa.
20170 USURBIL • Tel.: 943 36 08 17

D I F F U S I O N
Lakua Merkataritza etxea 05 aretoa
01010 GASTEIZ • Tel.: 945 17 91 50

B U L E G O  Z E N T R A L A
T R A N I N G  C E N T E R
Gasteiz Etorbidea 84
01012 GASTEIZ • Tel.: 945 21 42 38

Jean Louis David-ek L'ORÉAL PROFESSIONNEL
produktuak erabiltzen ditu

■ 2005EKO DATUAK

# Ezkontza zibilen kopuruak gora egin du Debagoienean

MAIDER ARREGI

**Iaz nabarmen igo zen ezkontzen kopurua Euskal Autonomia Erkidegoan. Batez ere, maiatza eta ekaina bitartean igarri zen gorakada. Eta ezkontzen artean, zibilek egin dute gora. Izan ere, bikoteen %42 zibilez ezkondu ziren 2005ean EAEn. Debagoienean bertan ere antzerako joera izan dute ezkontzek.**



MARIA JESUS ARGAZKILARIA

Debagoienean ezkontza zibilak pixkanaka gora doaz; iaz, esaterako, gehienek zibilez ezkontzea erabakitzen zuten.

Euskal Estatistika Erakundearen arabera (Eustat), 2005ean ezkontza zibil gehiago izan ziren 2004ko datuekin alderatuz. EAEn 2.980 ezkontza izan ziren 2005eko bigarren hiruhilekoan. Horietatik %42 ezkontza zibilak izan ziren. Kanonikoak, berriz, %58. Eta aurreko bi urteetan ere joera bera izan dute ezkontzek.

Debagoieneko datuei erreparatuz, ezkontza zibilak pixkanaka gora doazela ikusiko dugu. Hala ere, bikote gehienek oraindik ere elizaz ezkontzea erabakitzen dute.

Antzuolan, iaz, 17 ezkontza izan ziren, 10 zibilez eta 7 elizaz ezkondu ziren. Aramaion, 16 ezkontzatatik, 9 zibilez eta 7 elizaz ezkondu ziren. Aretxabaletan ere ezkontza zibil gehiago izan ziren, 12 zibilez eta 5 elizaz. Arrasaten 75 ezkontza izan ziren guztira, 48 zibilez eta 27 elizaz. Bergaran ezkontza zibilak dira nagusi, 36 zibilez eta 24 elizaz. Elgetan bi ezkontza izan ziren, horietako bat zibilez eta beste bat elizaz. Eskoriatzari dagokionez, 20 bikote ezkondu ziren, 12 zibilez eta 8 elizaz. Leintz Gatzagan, aldiz, eliza bidez gehiago ezkondu ziren, 15 elizaz eta 3 zibilez. Oñatin ere elizaz ezkondu ziren bikote gehienak iaz, 53 elizaz eta 18 zibilez. Guztira, Debagoienean 296 bikote ezkondu ziren iaz, 147 elizaz eta 149 zibilez.

### EZKONTZAKO GASTUAK

Espainiako Estatistika Institutuaren arabera, Espainiako Estatuan, batez beste, 150 gonbidatu inguruko ezkontza batek 25 mila euroko kostua dauka. Urtean batez beste 3 milioi euroko gastua eragiten dute ezkontzek. Hala ere, norberak aukeratzen du nolako ezkontza nahi duen. Horren arabera prezioak ezberdinak dira. Bazkariak, batez beste, sei mila euroko gastua dauka, betiere ezkongaiek aukeratzen duten menuaren arabera.

Gastuaren zati handi bat emaztegaiaren soinekoak eta senargaiaren trajeak osatzen dute. Batez beste, bi mila eurotik sei mila bitarterako prezioa izan dezakete, osagarri eta guzti. Horri, emaztegaiak estetika zentroan izandako gastuak erantsi behar zaizkio: solariuma, depilazioa eta edertze tratamenduak, besteak beste.

Gonbidatuek, berriz, dirua ematen diete ezkonberriei. Egun, bikoteak 300 euro eta bikotekiderik ez dutenek 150 bat euro emateko ohitura dute, batez beste.

### EZTEI BIDAIA, GARESTIENA

Aurrekoari, bidaia, eraztunak eta argazki eta bideo erreportajeak gehitu behar zaizkio. Beste zazpi mila bat euro, hain zuzen.

Garestiena eztei bidaia da. Batez beste, hamabost eguneko bidaiak bikoteko bost mila bat euroko kostua dauka. Askok lehen astea leku eta paraje ezberdinak ezagutzeko aprobetxatzen dute: New York, Thailandia, Vietnam... Horren ondoren, bigarren astea lasai egoteko aprobetxatzen dute, Mexiko edo Kubako hondartza batean, esaterako.

**Debagoienean 296 bikote ezkondu ziren iaz, eta horietatik 147 elizaz**

**Batez beste 25 mila euroko kostua dauka 150 laguneko ezkontza batek**

**Normalean, bikoteak egiten duen eztei bidaian gastatzen da diru gehien**



*Orain Arrasateko Iturriotz kalean aurkituko gaituzu.*

*Denda ikusgarria, lentzeria ikusgarria.*

lentzeria Bea

Iturriotz 4
Arrasate
Tel.: 943 79 12 05

■ EMAZTEGAIAREN MODA

# Soineko zuria eta makillaje fina, aukera hedatuenak

LEIRE KORTABARRIA

**Modak joan eta etorri egiten dira, baina eztei egunean itxura zoragarria edukitzeko, joera klasikoak dira oraindik aukeratuenak: soinekoetan, kolore zuria; makillajea, fina eta dotorea; eta orrazteko orduan, gehien-gehienetan mototsa, apaingarri batzuekin. Hala ere, joera berri batzuk ere indartsu datoz.**

Aukera klasikoen artean klasikoena orrazkeran aurkitzen dugu: emaztegai gehienek ilemototsa eskatzen jarraitzen dute, soinekoarekin bat datorren burukoa edo lore-apaingarriak ipintzeko. Soinekoetan, kolore zuria indartsu dator bueltan. Diseinu aldetik, emaztegaiak aukera zabala du, baina modernoa edo tradizionala izan, soinekoetan eskoteak dira nagusi.

Egun handian distiratsu egoteko, bestetik, ezinbestekoa da aldez aurretik edertasun etxe batera joatea. Aurpegi-garbiketa, *peeling* delakoa, solariuma… dira tratamendu eskatuenak.

Bitxiak ezin dira ahaztu. Horietan, perlaren xamurtasuna dago aurten oso modan.



## AURPEGI-AZAL GARBIA ETA TONU SUABEAK

**Hainbat edertasun tratamendu; horixe eskatzen dituzte emaztegaiek: azal-garbiketa, eta baita eskuetako eta hanketako azazkalak apaintzea, betileak kentzea eta gorputz osoko *peeling*-a egitea ere. Gero eta gehiagok nahi izaten dute solariumera joan. Makillaje aldetik, gehienek ez dute askorik eman nahi izaten. Izan ere, itxura ederra lor daiteke oinarri onarekin eta tonu suabeekin.**



## ESTILO GUZTIAK ONDO, BAINA ESKOTEAREKIN

**Eskoteak oso boladan daude, soinekoaren estiloa klasikoagoa zein modernoagoa izan. Koloreari dagokionez, tonu argiak bueltan datoz indar handiarekin. Emaztegaiak erabakitzen du bere estiloari doakion soinekoa, eta denetarik eramaten dute: oso jantzi xaloak edo apaingarri askorekin, berdin ezkontza erlijiosoa zein zibila izan. Garrantzitsuena da norbera gustura egotea.**



## PERLA DA AURTEN BITXIETAKO ERREGINA

**Bitxiei dagokienez, moda aldatu egin da urte batzuetaz geroztik: sasoi baten, perlak tabu antzekoa ziren emaztegaiendako, mitoak zioelako zorte txarra zekartela. Orain, zorte ona ematen dute, dirudienez, gero eta gehiago erabiltzen direlako eta aurten boladan daudelako. Gainera, bitxi oso ikusgarriak nahi izaten dira: belarritako oso luzeak, bistara ematen duten koilareak…**



## ILE-MOTOTSA, MODA GUZTIEN GAINETIK

**Ile-mototsa da oraindik emaztegaien orrazkera gogokoena eta, harrigarria badirudi ere, ez orrazkerako joerek, baizik eta soinekoak erabakitzen du zelako mototsa egin: izan ere, soinekoarekin batera datorren burukoa ipintzeko moduko mototsa behar du emaztegaiak. Ingurukoen iritziek ere asko agintzen dute. Horregatik, urtetik urtera oso gutxi aldatzen dira orrazkera motak.**

Gemes estetika

Inoiz baino distiratsuago egongo zara



Ilargi plaza 1 · Aretxabaleta · Tel.: 943 79 99 18

CORTE BLANCO SENARGAIAK

SENARGAIAK 2006
EZKONTZA TRAJEAK
KOLEKZIO BERRIA
SENARGAIAK, AITABITXIAK
ETA GONBIDATUAK



TEL. 943 464091 (ALDEZ AURREKO HITZORDUA)

Triunfo , 3 Donostia

ESKLUSIBAN GURE BEZEROENTZAT

■ SENARGAIAREN MODA

# Distirazko detaileak eta oso osagarri ikusgarriak

LEIRE KORTABARRIA

**Ezkontza eguneko izarra emaztegaia izaten da, baina senargaiari merezi duen protagonismoa ematen diote azken urteko moda eta estetika joerek. Horretarako, hainbat elementu daude: janzkera distiratsuak, osagarri *chic* eta ederrak, eta, azken urteotan eta gero eta gehiago, gizonezkoendako edertasun tratamenduak.**

Estetizisten gomendioa da: ezkontza egunaren aurretik, denbora hartu eta edertasun tratamenduren bat hartu beharko lukete senargaiek ere. Gutxienekoa da aurpegiko azal-garbiketa eta makillaje oinarri on bat, batez ere argazkietan bikain agertzeko. Ilea moztu behar bada, komeni da ere egunean bertan ez egitea, zertxobait lehenago ere. Orrazkera naturalak dira nagusi.

Arropari dagokionez, senargaiendako trajeak askoz ikusgarriagoak dira orain: ilunak edo argiak, baina distirazko detaileren batekin. Osagarriek –loreak, gorbata handiak...– asko laguntzen dute. Oinetakoak ere zaindu behar dira: beltzak eta, ahal dela, lokarriekin.



## ILEA ERA KLASIKOAN ETA ITXURA NATURALA

**Ile-apaintzaileek buruhauste txikia izaten dute senargaiaren ilea tratatzeko: emaztegaien kasuan ez bezala, gizonezkoek oso argi daukate zein estilo nahi duten. Ibarreko ile-apaintzaileek dioskutenez, denetariko estiloak eramaten dira, baina klasikoa nahiago izaten dute senargaiek. Hori bai, komeni da egunean bertan moztu dela askorik ez igartzea, naturalagoa izateko.**



## DISTIRAZKO UKITUDUN TRAJE BELTZAK

**Fantasiazko oihalez eta zetaz egindako trajeak oso modan daude, distira ukitu nabarmenarekin, senargaiari ere protagonismoa emateko egun berezi horretan. Jaka oso luzeak ez dira eramaten: erdi-lebitak, adibidez, edo ohiko jaka baino luzeagoa, betiere neurrira ondo egokitutakoak. Kolore beltza da eskatuena, gehienetan marrekin, baina kolore argiak ere ikusten dira.**



## TXALEKOA, ZAPIA, LOREA...

**Osagarriak ezinbestekoak dira behar bezala luzitzeko, eta trajearen arabera erabakiko dira. Hala, senargai gehienek fantasiazko txalekoarekin bat egiten duen zapia eramaten dute jakaren poltsikoan; poltsikorik ez badu, lore bat eraman dezakete ausartenek. Gorbatak ere antzinako sinpletasuna galdu du, eta fantasiazko eta diseinu ikusgarriko gorbata handiak ikusten dira.**



## ZAPATAK, BELTZAK ETA PUNTA KARRATUDUNAK

**Zapatekin ez dago bueltarik: beltzak izan behar dute benetan dotore luzitzeko, eta, ahal dela, lokarriekin. Marrazkiak, borlak... guztiz debekatuta daude. Joera horren barnean, badago non aukeratu: hala, aurten, puntak karratu samarrak baina suabeak dira era berean; txarolezkoak ere izan daitezke. Zapata-dendan aholkatuko dizkizute jantziaren arabera.**



PUBLIZITATE GEHIGARRIA
Egubakoitza / 2006eko martxoaren 24a

GAUR EZKONDUKO DIRA

# Lehen mutil bikotearen baietza



M.A.

JAVI GIL ETA ANGEL IRURE ARETXABALETARRAK

**Gaur, martxoak 24, iluntzeko 8etan ezkonduko dira Aretxabaletako udaletxean Javi Gil eta Angel Irure. Felis Beltran de Heredia zinegotziak galdetuko die ea ezkondu gura duten, eta eraztunak jarri ondoren Baster-Alde jatetxean egingo dute afaria, 180 lagun alboan dituztela. Gaueko azken orduak edo goizaldea Hotel Mondragoneko suite dotorean emango dituzte. Astelehenean, ostera, ezkonbidaian joango dira, nora jakin barik; izan ere, lagun batzuen oparia izan da, eta ez diete ezer argitu; bainujantzia eraman behar dutela besterik ez dakite.**

MIRARI ALTUBE

**Debagoienean ezkonduko den lehen mutil bikotea izango da, eta gaur iluntzean egingo dute ezkontza Aretxabaletako udaletxean. Ez da izango asteburuko ezkontza bakarra, bihar, zapatua, Bergaran beste mutil bikote batek emango diolako baietza elkarri. Aurtengo udaberriak beste era bateko ezkontzak ekarri dizkigu ibarrera.**

Urduri baino gehiago nekatuta ibili direla azken egunotan diote Javi eta Angel ezkongaiek. Ezkontzako ardurekin batera etxebizitza aldaketa egokitu zaie, Aretxabaletatik Arabako Luku herrira, eta jota bukatu dute. Atzo, eguena, egin zuten etxearen *inaugurazio ofiziala*, jai giroan, ezkontzarako kanpotik etorri zaizkien lagun askorekin.

**ARREBEN BESOTIK**

Asteon egin dituzte jantzien azken probak, eta gaur Hotel Mondragonen jantziko dira elkarrekin eta inork ikusi barik. Ondoren Aretxabaletara joango dira: "Udaletxean agertu arte ez dugu gura inork ikus gaitzan", diote.

Angelek arreba Mirariren besotik igoko ditu udaletxeko eskailerak, eta Javik arreba Isabelen besotik. Osoko bilkuren areto txikiak ezingo ditu gonbidatutako 180 lagunak hartu, baina asko hurreratuko dira. "Motza izan dezala ekitaldia" behin eta berriz errepikatu dio egunotan Felis Beltran de Heredia zinegotziari Javik, baina izango dute luzatuko duen sorpresaren bat edo beste.

**EZKONBIDAIA, SORPRESA**

Azaroan ezkontzeko erabakia hartu eta prestaketa lanak hasi zituztenetik hona ezusteko bat baino gehiago izan dute; handiena, jatetxe aldaketa. Tabakoaren legea dela-eta lehenengo aukeratutakoan ezin zuten erre; hortaz, gonbidapenak banatu ostean aldatu egin dute jatetxea. Baster-Alden elkartuko dira, eta benetan jai polita daukate gertatuta. Hasieran koktela eskainiko diete gonbidatuei, eta gero afaria. Musikari dagokionez, 02:00ak inguru arte ezkontzetako ohiko musika egongo da, eta hortik aurrera Barkala DJak jarritako doinuak.

> **Hotelean jantziko dira elkarrekin, eta udaletxean agertu arte ez dute gura ikus ditzaten**

Gonbidatu asko kanpotik etorri dira: Uharte, Iruñea, Kordoba, Bartzelona eta Chicagotik etorri den bat ere badago. "Horiei guztiei ostatu ematea ardura handia da, eta azken momentu arte ez dugu jakin zenbat izango ziren", diote. Inguruko ostatuetan hartu diete lekua, eta Lukuko etxea ere uzteko daukate. Bartzelonako mutil bikote batek opari egin die ezkonbidaia, eta hegazkin txartelak eskuan izan arte ez dute jakingo nora joango diren: "Leku epela izango da behintzat, bainujantzia hartuta joango gara eta".

> **Bartzelonako mutil bikote batek opari egin die ezkonbidaia, eta ez dakite nora**


Guztiz Eder Estetika Zentroa
Plazera biontzat
- Aurpegirako tratamenduak
- Zetazko azala lore hostoekin egindako peeling-arekin eta gurinarekin
- Indarra hartzeko bildukina limo mineralarekin
- Masajea harri bolkanikoekin
- Manikura eta pedikura aromaterapiaren bitartez
- Era guztietako depilazioak: beroa, epela, elektrikoa, laserra
- Solariuma
Zerbitzurik onena gure bezeroen esku

Kale Barria 29, behea (Orbea etxea, parke aldetik) 20560 Oñati Tel.: 943 78 01 46



Ezkontzak
Jaunartzeak
Erreportajeak
Estudioa
ALBUM DIGITALAK, ANALOGIKOAK, FAMILIA ALBUMAK,
ZAHARBERRITZEAK, KOPIAK ETA HANDITZEAK, FOTO-MUNTAIAK
ZUHAITZ GENEALOGIKOAK, ARGAZKI ERREPRODUKZIOA,
LABORATEGI PREFESIONALAREN ZERBITZU ETA ERREBELATUAK
Beste estilo bat
www.urkan.com
Ozaeta 1 943 76 30 33 .Bergara
urkan@urkan.com


JANTZIDENDA
LASAGABASTER
Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55
ETXE APAINKETA


Makatzeta
ARRAZOLA
Hiru jangela – Menua eta karta
Hiru jangela : 14, 30 eta 180 lagunendako
Lagun eta familiarteko ospakizunak
Bataioak, jaunartzeak eta ezkontzak
Debagoienetik oso gertu!
Arrazola – Atxondo Tel.: 94 658 29 31

■ ARGAZKI ALBUMA

# Egun bateko irudiak, bizi os

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Ezkontzako une guztiak buruan edo bihotzean ez ezik irudietan ere gorde nahi izaten dira. Ezkondu aurrekoak, etxekoen eta lagunen aurpegiak, soinekoa, ezkontza bera, bazkaria, tarta mozteko unea, dantzaldia... Eta, nola ez, ezkontzaren aurretik edo ondoren bikoteak leku bereziren batean ateratzen dituen argazkiak.**

Argazki horiek guztiak albumetan jarri eta egun gogoangarria berriz ere gogora ekartzeko balioko dute; gaur egun, teknologia berriak baliatuz, albumean ez ezik bestelako euskarrietan ere gertu jartzen dituzte argazkilariek: CD, DVD zein bideoetan.

Gainera, aurrerapenak nabarmenak dira. Garai batean argazkilariek argazki analogikoen aldeko apustua egiten bazuten ere, gero eta gehiago dira digitalak ematen dituen aukerak baliatzen dituztenak; besteak beste, muntaiak egiteko.

Ezkontzetako irudiek ere mila hitzek baino gehiago balio dute askotan.



RAMIRO ARGAZKIAK

## AITOR ETA DORLETA / OÑATI

**Oñatin bizi den bikote gazte hau azaroaren 26an ezkondu zen Donostiako San Bizente elizan. Dorleta Fernandez donostiarra da izatez eta bere jaioterria aukeratu zuen Aitor Atorrasagasti elgoibartarrarekin ezkontzeko. Oñatin elurra zen ezkontza egunean, baina eguraldia ongi portatu zen eurekin Donostian. Argazkiak Miramar jauregiko loretegietan atera zituzten. Kontxako hondartzatik gertu dago Miramar; argazkietarako leku ezin aproposagoa, beraz.**



KIÑU ARGAZKIAK

## OSKAR ETA ANE / ARETXABALETA

**Arantzazun ezkondu ziren Oskar Velasco eta Ane Aldai aretxabaletarrak urriaren 15ean. Eguraldi ona lagun, egun gogoangarria igaro zuten. Egun hura barruan ez ezik iruditan ere gordea dute. Argazkiak ateratzeko eurendako esanahi berezia duen Oro auzora jo zuten, Aneren baserrira, hain zuzen ere. Ekilore landare haztegian ere egin zuten argazki saioa eta Arantzazun bertan ere ez zuten argazkiak ateratzeko aukerarik galdu. Ezkontzaren ostean, Afrikara joan ziren bidaian.**



Kupoi hau aurkeztuz gero
%10eko deskontua ezkontza gonbidapen eta oparietan
Apirilaren 30a arte!

PAPER DENDA
J. URIARTE.

Paregabeko egunaren oroigarria

GONBIDAPENEI eta EZKONTZA OROIGARRIEI dotoretasun ukitua ematen diegu, betiere, zuen ILUSIOAREN kutsuarekin



Dei egiguzu edo bisita gaitzazu konpromiso barik. Gustora hartuko zaitugu, baita zapatu arratsaldetan ere.

Ferrerias 32, Olarte 10 ARRASATE • Tel: 943 77 03 80 • Faxa: 943 71 17 30

# orako ezinbesteko oroigarri


MARIA JESUS ARGAZKILARIA

## MIKEL ETA ELENA / ARRASATE

Urriaren 8an ezkondu ziren Uribarriko elizan Mikel Saiz eta Elena Guijarro arrasatearrak. Uste ez zuten arren egun eguzkitsua egokitu zitzaien; eta argazkiak ateratzeko eguna ez ezik lekua ere ikusgarria aukeratu zuten: Elenaren ahizpak Ulibarri-Ganboan duen etxea, hain zuzen ere. Ezkondu ostean, Arteaga jatetxean egin zuten bazkaria; bidaian, berriz, Argentinara joan ziren.


KIÑU ARGAZKIAK

## ALBERTO ETA EDURNE / BERGARA

Ohiko ezkontza argazkietatik irten eta Alberto Sotilek eta Edurne Martxenak toki berezietan atera nahi zituzten argazkiak: Bergaran kalean, taberna batean eta baserri batean. Horretarako goizean goiz ibili ziren inguruan ahalik eta jende gutxien egon zedin. Ezkontza urriaren 8an izan zen Mariaren Lagundian eta eguraldi ederra izan zuten; hala ere, Mexikora egindako eztei-bidaian are ederragoa.


ZAPPING

## IZAR ETA RAUL / ESKORIATZA

Eskoriatzako Izar Gomez eta Raul Moreno arrasatearra irailaren 24an ezkondu ziren Apotzagan. Egun polita izan zen eta eguraldia lagun argazkiak ere Apotzagan bertan atera zituzten, eliza inguruan. Ezkontza eguna ez ezik ondorengoa ere primerakoa izan zela esan digute. Izan ere, itsas bidaia egin zuten Mexikora eta astebete pasa zuten gero Maia Erriberan eztei-bidaian.



■ HOTEL ETA LANDETXE ESKAINTZA IBARREAN

# Gonbidatuek geurean ostatu hartzeko aukera ugari

IKER BARANDIARAN

**Ezkontza askotan jende ugari batzen da mahaiaren bueltan: aspaldiko lagunak, lankideak, kanpoan bizi diren senideak... Horiek guztiak batzeko baliatzen dituzte ospakizun horiek. Bezperan heldu, ospakizunean esku hartu, parrandatxoa egin eta atseden hartu bitartean ostatua hartu behar izaten diete horiei guztiei.**

Gaur egun ezohikoa da familia bateko lagun guztiak herri berean bizi izatea. Debagoiendarrak, beste askoren moduan, sakabanatuta daude Euskal Herrian eta munduan. Horregatik, ezkontza bat antolatzen duten bakoitzean, kanpoan bizi edo lan egiten duten senide eta lagunek herrira itzuli behar izaten dute.

Ospakizuneko ekitaldietan esku hartzeko ohikoa da asteburua gurean egitea. Horrenbestez, horiei ostatu eman behar izaten diete. Kasu batzuetan norberaren etxean hartzen dituzte, baina beti ez da posible izaten. Horregatik, ibarrean dauden hotel, landetxe eta bestelako ostatuetara joaten dira.

**MONDRAGON HOTELEAN 43 LOGELA**

Arrasaten, Mondragon Hotelak ezkontza sasoian eskaera handia du: "Maiatzean hasi eta irailera bitartean, abuztuaren salbuespenarekin, kanpotik lagun asko etortzen dira ezkontza dutela-eta asteburua igarotzera", azaldu ziguten.

Mondragon Hotelak 43 logela ditu guztira. Horietatik 23 bikoitzak dira, 18 banakakoak eta beste bi suiteak dira.

**MENDIGOIAN AFALDU ETA LO**

Bestalde, Eskoriatzako Mendigoia hotel berrian ere dagoeneko hasi dira ezkontza-banketeak egiten. Hoteleko hiru solairu indarrean daude dagoeneko, eta laster 85 logela izango dituzte eskuragarri. "Hoteleko jatetxean banketeak ematen hasi gara. Eta gura izanez gero, gonbidatuek hotelean bertan har dezakete ostatu, jakina".

**Mendigoia Hotelean, lo egiteaz gain, banketea egiteko aukera dago**

**EZKONTZAZ GAIN, NATURAZ GOZATU**

Gonbidatuek atseden hartu eta hirigunetik kanpo naturarekin gozatu gura badute, landetxeetara jo dezakete. Horien artean, Elgetan Eguzkitza landetxea dago, ingurune lasai eta ederrean: "Familiako konpromisoa baliatzen dute naturan egoteko".



GOIENKARIA

Ezkontzetara etortzen dira kanpotar askok Mondragon Hotela aukeratzen dute ostatu hartzeko.

## MAIATZETIK IRAILERAKO ERRESERBAK

**Maiatzetik irailera bitartean egiten dituzte ezkontza gehienak, eta hori ondo dakite ibarreko ostatuen arduradunek. Hain zuzen ere, Hotel Mondragonen, Mendigoian eta Eguzkitza landetxean hainbat erreserba egin dituzte ezkontzetara datozenek.**



Gure Ametsa Jatetxea

· Ezkontzatarako areto handi eta erosoak
· Aparkaleku pribatu handia
· Aperitiboendako terraza
· Sukaldaritza zaindu eta paregabea
· Aurrekontu guztietarako menuak

San Migel Plaza • 943 71 47 46 GATZAGA



20 urte baino gehiago ezkontzak girotzen!
Zerbitzu profesionala eta kalitatezkoa



IMANOL bodas y eventos

76 postakutxa 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)
Tel.: 943897093 - Mugikorra:637505949 Faxa.: 943897094
Web orria: www.imanolbodasyeventos.net E-mail: info@imanolbodasyeventos.net

■ TABAKOAREN LEGEA JATETXEETAN

# Ezkongaiek erabakiko dute erre daitekeen

IKER BARANDIARAN

**Erretzearen kontrako legea dela-eta, ezintasuna nagusitu da ostalarien artean. Administrazioak legearen ezarpenaren gaineko zalantza handiak ditu eta hori argitu artean ostalari gehienek ez dute euren negozioetan legea indarrean jarri. Hortaz, ezkontzetako bazkari eta afarietan erre daitekeen edo ez ezkonberriek erabakitzen dute.**

2006ko urtarrilaren 1ean onartu zuten erretzearen kontrako legea Espainiako Estatuan. Horren arabera, besteak beste, 100 metro koadro baino gutxiago dituzten tabernetako jabeek erretzen uztea aukera dezakete. Hori baino handiagoak diren taberna edo jatetxetan, berriz, ezingo dute erretzen utzi. Horren ordez, erretzaileendako gune bat egokitzeko aukera daukate, baina gune horretan ezingo dira 16 urte baino gutxiago dituzten lagunak sartu, eta ostatutik fisikoki banatuta egon beharko du. Are gehiago, txoko horiek aireztapen berezia izan beharko dute.

#### ERAKUNDEEN ARDURAGABEKERIA

Hortaz, legearen arabera jatetxeetan ezin daiteke erre. Are gehiago, taberna eta jatetxeen jabeak kexu dira ez Jaurlaritzak ezta udalek ez dutelako legea indarrean jartzeko erabakirik hartzen. "Ez du inork ezer argitzen. Erakundeetatik agiri zehatzak heldu arte, ostalariek ez dakigu zer egin behar dugun", azaldu zigun Gipuzkoako Ostalarien Elkarteko lehendakariorde Anton Elortzak.

Elortzak zalantzan jartzen du legea: "Gauzak dauden moduan ez dakit legearekin zer egingo duten. Hain zuzen ere, une honetan norbaitek salaketa jarri gura badu ez daki norengana jo behar duen, ezta zer erakundetako ikuskatzaileek jo behar duten agiria egitera ere".



ZAPPING

Bikoteek nahi dute jatetxeetan erretzen uztea; halere, puru gutxiago erretzen dira.

**Bikote batek eztei-otordua lekuz aldatu du erre ahal izateko**

**Puruen salmentan ere igarri da ezkontzetako opari klasiko horien eskaera jaitsiera**

Espainiako Gobernuak Jaurlaritzari eman dio ardura hori, eta Jaurlaritzak udalak inplikatu gura ditu, baina udalek ez dute hori egiteko asmorik.

#### EZKONBERRIAK ARDURATUTA

Eztei-otorduak (banketeak) egiten dituzten ibarreko hainbat jatetxetako arduradunek esan digute ezkontzen diren bikoteen kezka handienetako bat izaten dela gonbidatuek jatetxean erre ahal izango duten jakitea: "Gehienek erretzeko aukera izatea gura dute eta gonbidatuei oparitzeko puruak enkargatu beharrean egoten dira. Beti egiten digute galdera hori", azaldu zigun Bergarako Lasa jatetxeko Maria Pilarrek.

"Guk bakarrik dakigu legeak dioena, baina inork ez digu azalpen gehiago eman. Are gehiago, ezkonberriek hala gura badute, guk egun horretan jangela eurei alokatzen diegu eta eurena da erantzukizuna", azpimarratu zuen Maria Pilarrek.

#### ETORKIZUNERAKO ZALANTZA

Aretxabaletako Baster-Alde eta Leintz Gatzagako Gure Ametsako arduradunek ere jarrera hori hartu dute momentuz. "Ezkondu behar den bikote batek baino gehiagok esan digu erretzen uzten ez badugu, ez direla gurera etorriko. Horren aurrean, euren esku uzten dugu eztei-otordua, eta eurek erabaki dezatela", ondorioztatu zuen Gure Ametsako Marisak.

Hala ere, Baster-Aldeko Anak aitortu zigun legeak indarrean jarraitzen badu eta gogortu egiten bada, 2007ko urtarriletik aurrera erretzea galaraziko dutela. "Ezinezkoa zaigu erretzaileendako beste gune bat egitea, eskatzen diguten gonbidatu kopuruendako jangela handia behar dugulako".

#### PURU GUTXIAGO ESKATU

Legea onartu zenetik, puru gutxiago saltzen dituzte. Hala esan digu Arrasateko tabako-denda bateko arduradunak: "Urtarrilean eta otsailean oso enkargu gutxi izan dugu, jendea beldurtuta zegoelako. Orain, berriz, jendea hasi da berriro ezkontzetarako enkarguekin".

ESTETIKA ZENTROA
MIREN ARRIETA

- Solarium bertikala
- Solarium horizontala
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Liftinga aparatuekin
- Brontzeatua izpi ultramorerik gabe
- Permanenteak eta betileen tindatzeak.
- Aurpegi tratamenduak
- Gorputz tratamenduak
- Manikura
- Pedikura
- Fantasiazko azazkalak
- Diodo bidezko laserra
- Zelulitisaren aurkako tratamendu kriomodelagarria
- Ezkonberrientzako bonuak
- Solariumerako bonua



Zerkaosteta 12 Tel.: 943 79 00 35 ARRASATE






Egun zoragarria igaro duzu, eta gaua?
Hotel Mondragonen ezin hobea!

• Ezkonberrientzako suitea
• Cava • Loreak

Zure ezkontzarako gonbidatuak, gurean inon baino hobeto.

Biteri Etorbidea 16.ARRASATE
Tel.:943 71 24 33 Faxa: 943 71 23 43
posta-e: hotelmondragon@hotelmondragon.com
www.hotelmondragon.com

HOTEL MONDRAGÓN ★★★

■ EZTEI-BIDAIAK

# Gehienak itsasoz bestaldera joaten dira

UBANE MADERA

**Udaberria eta udazkena aukeratzen dituzte bikote gehienek ezkontzeko eta ezkon osteko bidaia egiteko. Eta aprobetxatzen dute bizitzako une hori bidaia bereziak egiteko. Kokaleku exotikoak aukeratzen dituzte askok, beste batzuek arruntagoak. Baina ia guztiek dute gauza bat berdin: urrutira joaten dira.**

Mendebaldera edo ekialdera. Ia ezkonberri guztiek itsaso zabala zeharkatzeko aprobetxatzen dute eztei-bidaia. Barcelo bidaia agentziak Bergaran duen ordezkaritzan zera esan digute: "Gehienek urrutira joateko aprobetxatzen dute. Badaude gutxi batzuk hondartza bakarrik nahi izaten dutela, eta horretarako Kanariar Uharteetan geratzen dira, baina halako bikoteak urtean bat edo asko jota pare bat izaten dira".

Halaber, kontatu digute urtetik urtera aldatu egiten direla jendearen lehentasunak. Hala, iaz, Argentina ipini zen modan; aurten, berriz, oraingoz denetik dagoela esan digute.

**UDAZKENEAN GEROAGO ETA GEHIAGO**

Prezioari dagokionez, oporretako bidaietan baino apurtxo bat gehiago gastatzen dute ezkonberriek: "Gutxieneko prezioa izaten da 1.800 euro bikoteko".

Bestalde, udaberria betidanik izan da sasoi ona ezkontzeko eta osteko bidaia egiteko, baina geroago eta gehiago udazkeneko bidaiak ugaltzen doazela kontatu digute Barceloko lagunek: "2005ean, dezente gogorragoa izan zen irailetik aurrera".



**INDONESIA: 17.000 UHARTE DITUEN HERRIA**

**Apirilaren 23an ezkondu eta 25ean bertan hartu zuten Singapurrerako bidea Iñaki Aierbe eta Ainhoa Menika arrasatearrek. Singapurren pare bat egun egin eta handik Indonesiara joan ziren. Bost uharte bisitatu zituzten 17.000 uharte dituen herrialde hartan; tartean, gehienok ezagutzen ditugun Java eta Bali. "Gura genuen zerbait desberdina ikusi, eta, hara joatea eskuragarri samarra denez, hura aukeratu genuen". Hala kontatu digu Iñaki Aierbek.**



**HIRIAN IBILI ETA ATSEDEN HARTU MEXIKON**

**New York ezagutu nahi zutela-eta, hara joatea erabaki zuten Aitor Ubera elgetarrak eta Itsaso Madina aramaioarrak, 2005eko apirilean. Bost egun egin zituzten *munduko hiria* goitik behera ezagutu nahian. Eta gero, atseden hartzeko, bederatzi egunerako joan ziren Maia Erriberara (Mexiko). "Bidaia eta hotela hemendik lotuta eraman genituen, baina han egin genuena geuk antolatu genuen: New York ikustea eta Mexikon txangoak egitea". Argazkian, Brooklyn-eko zubia.**





## KONTRASTE HANDIKO LURRALDEAK: ARGENTINA ETA TXILE

Bikote ugarik Argentina aukeratu zuten iaz eztei-bidaia egiteko. Nagore Iñurrategi eta Asier Murguzur oñatiarrek hala egin zuten 2005eko urrian. Hiru astean ibili ziren Argentina eta Txile ezagutzen, oso gustura: "Asko gustatu zaigu bai Argentina, bai Txile, kontraste handiko lurraldeak, oso luzeak direlako, 4.000 kilometro, hegoaldetik iparraldera, glaziaretatik, desertura, Kaprikornio Tropikoraino".

Utzi diguten argazkia dago aterata Torres del Paineko oinetan, Patagonian. Kontatu digute, besteak beste, 3.000 metroko harkaitz izugarriak ikusi zituztela. Baita ere euskaldunekin elkartu zirela: "Patagonia aldean, euskaldunak ezagunak gara, bisitari asko joaten baita".



## BESTELAKO KULTURAK EZAGUTU GURAN: PERURA

Antzuolako Agurtzane Gartzia eta Javier Soria Perun ibili ziren irail eta urrian, 17 bat egunez. "Mugitu egin nahi genuen eta kultura berriak ezagutu; horregatik aukeratu genuen Peru". Agurtzanek gaineratu digu ibilbidea hemendik lotuta eraman zutela: "Leku bakoitzean pare bat egun egin genituen, geratu barik ibili ginen". Hala, nekatuta eta pozik bueltatu zen Antzuolako bikotea: "Oso-oso gustura ibili ginen, beste mundu bat da hura".



## LURRALDE ETA KULTURA DESBERDINEK ERAKARRITA

Bergarako Juan Carlos Poza eta Amaia Goenetxea 2005eko urrian ezkondu ziren. Vietnam eta Kanbodia aukeratu zituzten bidaiarako. Bidaia-zaleak dira, baina Asian egon barik zeuden eta pentsatu zuten eztei-bidaia horretarako aprobetxatzea: kultura eta lurralde desberdinak ezagutzeko. Bidaia hemendik lotuta eraman zuten. Utzi diguten argazkia Kanbodiako Aankor tenpluetan atera zuten, 300 urte dituen zuhaitz baten sustraiaren azpian.

EGUZKITZA
LANDETXEA


Jangela zerbitzua



**Suite antzeko lau logela bikoitz:**
bainu osoarekin, telebista, berogailua, etab.



**Eibarrerako bidea z/g ELGETA**
**Tel.: 943 78 90 84 Sakelakoa: 679 41 66 97**

■ DEBAGOIENEKO I. EZKONTZA AZOKA

# Ezkontzen gaineko guztia ikusgai Mendigoia hotelean

UBANE MADERA

**Apirilaren 2an, domeka, ezkontzen gaineko produktuekin azoka ipiniko dute Eskoriatzan. Torrebaso kalean dagoen Mendigoia hotelean izango da, 10:00etatik 14:00ak arte eta 16:00etatik 21:00ak arte. Besteak beste, egongo dira desfilea eta askotariko produktuen erakusketa. Debagoienean egiten den lehen azoka da.**



FOTO-VIDEO ZAPPING

Senargai eta emaztegaiendako eta senide eta lagunendako produktuekin egingo dute desfilea; argazkian, Eibarren iaz egindakoa.

Arrasateko, Bergarako, Zarauzko eta Zestoako eskaintzak ipiniko dituzte Debagoieneko I. Ezkontza Azokan. Egongo dira ezkontzetarako jantziak, opariak argazki-bildumak, bitxiak, estetika zentroen eskaintzak, ileapaindegienak, bidaia agentzienak… Hori guztia ezkontzea pentsatuta duten bikoteei eta haien senide eta lagunei zuzenduta. Hala adierazi digu antolatzaileetako batek, Arrasateko DJ's J&T enpresako Jose Antonio Martinezek.

**ERAKUSKETA ETA DESFILEAK**

Hark jakinarazi digu azokako standak 10:00etan zabalduko dituztela. Sarrera doan izango da. Azokan, produktuak ikusteaz gainera, posible izango da, baita ere, tratuak egitea. "Gainera, jeneralean eskaintza bereziak egiten dituzte saltzaileek halako azoketan".

**Foto-Video Zapping-ek eta DJ's J&T disko jartzaileak antolatu dute**

Eguerdi partean, berriz, desfilea egingo dute. Senargai eta emaztegaiendako jantziak eta zapatak, amaginarreba eta aitaginarrebarendakoak, loreak, orrazkerak eta musika erakutsiko dituzte. Besteak beste, Arrasateko, Aretxabaletako eta Bergarako modeloak izango dira.

**Pasteltxoak, xanpaina eta opariak emango dizkiete azokara doazenei**

Desfilearen ostean atsedenaldia egingo dute bazkaltzeko, eta arratsaldean, ostera ere azoka zabalduko dute, 16:00etatik 21:00ak arte. Arratsalde erdi inguruan, berriz, desfilea errepikatuko dute.

**PRODUKTU BEREZIAK ETA OPARIAK**

Azoka horretan izango diren produktuen artean badira batzuk bereziak. Esaterako, ezkontzetarako alokatzen den antzinako auto horietako bat eramango dute. Bestalde, Lasturtik etorritako stand batean erakutsiko dute ezkondu aurreko agurra egiteko eskaintza, paintball eta bigantxa eskaintza eta guzti.

Horrez gainera, Mendigoia hotelak eskaintzen duen guztia ikusteko aukera izango dute bikoteek: suiteak, jatetxea, menuak…

Eta bukatzeko, arratsaldeko desfilearen ostean, pasteltxo eta xanpain dastatzea egingo dute. Gainera, erakusketara joan diren bikoteen artean opariak zozkatuko dituzte zenbait saltzailek; esaterako, hotelak berak suitean egonaldia zozkatuko du, loradendak lora sortak eta bidaia-agentziak, berriz, bidaia bat.

AZUL de RIZO'S PELUQUEROS

✔ Laser bidezko depilazioa
✔ Edertasun kabinak
✔ Tratamenduak
✔ Eguzki dutxa



| Astelehenetik Ostiralera |
| --- |
| 09:30etik 19:30etara |
| Zapatutan |
| 08:30etik 15:00etara |

Otalora Lizentziaduna 24 ·
ARRASATE · 943 79 83 66




Sofa leku
grupo amuebladora mondragonesa
SOFALEKU
Zigarrola 1
(1go pabilioia)
ARRASATE
Tel. 943 79 15 03
Faxa. 943 79 14 89


PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar
project, s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA
Tellleria 23, D5 pabilioia • Labegaraieta Industrialdea BERGARA
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44 • www.iparpoject.com
Merkatuko lehen markak
Mota askotako estiloak
Gremioen koordinazioa


LASA jatetxea
Ozaeta jauregia • Tel.: 943 76 10 55 • BERGARA
Guztion eskura dagoen luxua

## bergararrak kanpoan

**Ana Aiastui** > Biologoa
Madrilen bizi da

# "Madrilen denok gabiltza korrika alde batetik bestera"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Orain dela ia bost urte joan zen Madrilera Ana Aiastui, eta hantxe bizi da gaur egun. Doktoretza tesia egiten dihardu, baita lanean ere. Madrilek eskaintzen dituen aukerak baliatzen ditu, baina ez du uste denbora luzerako geratuko denik Espainiako hiriburuan.**

Doktoretza tesia egitera joan zen Madrilera Ana Aiastui 2001eko irailean, eta ia bost urte eman ditu dagoeneko hantxe. Denbora tarte honetan hainbat lantokitan jardun du: "Hasieran, Madrilera etorri nintzenean, Severo Ochoa Biologia Molekular Zentroan egon nintzen hilabete batzuetan; horren ondoren, *Centro Nacional de Biotecnología* delakora joan nintzen; eta gaur egun, CSIC (*Consejo Superior de Investigaciones Científicas*) zentroan dihardut, salmonellari buruzko tesia amaitzen", azaldu digu Aiastuik.

**"Izugarrizko aukera kulturala dago; taberna eta areto txikietako antzerkiak gustatzen zaizkit batez ere"**


Ana Aiastui.

**LASAITASUN FALTA**

Lana dela-eta aste barruan bere bizimodua beste edozein lekutan bezala dela esan digu. Baina asteburuetan Madrilek ematen dizkion aukera kulturalak aprobetxatzen ditu; inguruko mendiak eta herriak ezagutzeko aukerarik ere ez du galtzen.

Aiastuiren esanetan, "Madrilek izugarrizko aukera kulturala dauka: Gran Vian aurki daitezkeen ikuskizun handiez gain, taberna eta areto txikietan egiten diren antzerkiak batez ere asko gustatzen zaizkit".

Hala ere, Bergarako lasaitasunaren eta itsasoaren falta sumatzen ditu. "Madrilen jende asko bizi gara eta denok gabiltza korrika alde batetik bestera".

Ana Aiastuik gustuko du Madril, baina ez du denbora luzez geratzeko asmorik. "Aurten tesia defendatuko dut uztailean eta datorren urte hasierarako atzerrira joateko asmoa daukat tesi osteko egonaldia egiteko", esan digu.

## argazki zaharra

# Iñaki Unamunori agurra

Argazkikoek 1955ean amaitu zituzten ikasketak Elementalean. Erretratua hurrengo urtean atera zuten Iñaki Unamunoren agur-ospakizunean. Gaur, martxoak 24, bete dira 50 urte Unamuno Argentinara joan zela. Argazkian, goian, ezkerretik hasita: Jose Julian Garitano, Jabier Retegi, Manu Muniategi, Jose Luis Irizar, Iñaki Unamuno, Bitoriano Etxaniz, Iñaki Goikoetxea eta Patxi Garitano. Behean: Jose Luis Imaz, Eugenio Larrañaga, Sabin Ezpeleta eta Migel Mendibil.

**Argazkia:** Migel Mendibil
**Informazioa:** Luis Mari Unamuno
**Urtea:** 1956



## bere ustez


Andres Osa 'Sakona'

# AHT: herri kontsultaren beharra

Abiadura Handiko Trena edo *Y* delakoa egun hauetan herritar askoren ahotan dabil. Lurren salerosketa tramiteak hasi omen dira. Plangintza abian da.

Gai honetan joera oso kontrajarriak daude alderdien eta adituen artean. Proiektuak etorkizuna hipotekatu dezakeela, ingurugiroan sarraskia, onura gutxi, proiektu elitista, eraman ezinezko zama sortu, eta abar luzea. Beste alternatiba batzuk askoz hobeak omen daude.

Guk diogu, kasu honetan, hain garrantzizkoa izaki, herriari kontsulta egitea ez al da bidezkoa?

**"Lurren salerosketa tramiteak hasi omen dira. Plangintza abian da"**

Herriak baditu bere ordezkariak! esango digute. Konforme, baina horretan oinarritzea demagogia hutsa ez ezik errealitatetik kanpora ibiltzea da.

Alternatiba desberdinak eztabaidatu eta herriari kontsultatzea litzateke bide praktikoa eta zentzuzkoa. Beste herrialde askotan egiten dira antzerako erreferendumak; hemen zergatik ez? Zeren beldur gara?

Hiru abantaila izango lituzke: proiektu hobea sortu, herritarren iritzi zuzena jakin neurri batean kontzentzua eskuratuz eta gerora sor daitezkeen kontrako jarrerak, arriskutsuak ekidin.

Laumar
ile-apaindegia
zabaldu berria!
Barrenkale 4 behea BERGARA
Tel.: 943 76 97 67

%10eko
deskontua
txartela
ekarrita
Produktuetan ez da deskonturik egongo

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

GOIENKARIA
2006ko martxoaren 24a



**BATZORDE BERRIA** Presidenteak eta kide berriek gogotsu ekin diote bi urteko lanari eta elkartearen gaineko kontuei begira jardun dute lehenengo egunetan. M.A.

**ERRETIRATUAK** > ZUZENDARITZA BERRIA HAUTATU DUTE

# J. Ramon Rodriguez da joan den astea ezkero Basotxoko presidente

Sei bidaia, bost berbaldi eta lau mendi irteera egin zituzten iaz; aurten antzeko ekitaldi egitaraua dute

Zinema emanaldiak eta dantzaldia jarri gura dituzte eta tabernako txokoa txukundu

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Joan zen asteko eguenean izendatu zuten Basotxo erretiratuen elkarteko bazkideek zuzendaritza batzorde berria. Basotxoko telebista gela bete egin zen, eta bazkideen oniritzia jaso zuten proposatutako izenek.

**ARDURA BANAKETA**

Zortzi lagunek osatzen dute zuzendaritza batzordea eta bi urterako hautatzen dituzte. Hala, lau lagunek utzi egin dute batzordea: Pedro Mari Zubizarreta presidenteak, Antonio Diezek, Andoni Antxiak eta Benito Sanchezek. Horien ordez beste lau lagun sartu dira eta dagoeneko banatu dizkiete ardurak: Martin Zaloña presidente-ordea izango da, Jose Maeztu idazkaria, Antonio Garcia diruzaina eta Benito Arnaiz bidaien ardura izango duena. Bestalde, elkarteko presidente eta guztien buru Jose Ramon Rodriguez izendatu dute bazkideek. Aipatutakoekin batera beste hiru lagunek osatzen dute batzordea: Javier Urtzelaik, Lourdes Ajuriak eta Maria Teresa Kortabarriak.

KONTUAN HARTZEKO

## Lehenengo bazkidea 1979ko otsailekoa

Basotxo erretiratuen elkarteko estatutuak 1982ko irailaren 2an egin zituzten. Bazkideen zerrendak, baina, lehenagokoak dira. Maximo Lasagabaster Belategi izan zen 1 zenbakidun bazkidea eta 1979ko otsailean sartu zen. 27 urte pasatu dira ordutik hona, bazkide batzuk joan eta beste batzuk etorri, eta elkarteak egoitza aldaketa ere bizi izan du. Mitarte plazan, Korreos dagoen lekuan, egon zen hasieran eta orain dela 18 urte inguru aldatu zuten Errekabarren kalean dagoen Uratsgain zaharren egoitzara. Mari Jose Etxebarriarteun da tabernaren arduraduna.

DATUA

**940**

**BAZKIDE**

Bazkide gehien dituen herriko elkartea da, 940 inguru. Hango kide izateko pentsioduna izan behar da, eta ez dute zertan izan 65 urte beteta. 5 euroko kuota dute bazkideek urtean.

**IAZKOAREN ANTZEKO EGITARAUA**

Joan zen eguenean izendatu eta astelehenean dagoeneko lanean hasita zeuden zuzendaritzako kideak: idazkaria ordenagailuko dokumentuak gainbegiratzen, bidaien arduraduna hurrengo irteera gertatzen eta diruzaina kontuak eguneratzen. Guztien buru eta koordinazio lanetan, ostera, presidentea.

"Iazkoaren oso antzeko egitaraua antolatuko dugu", dio Rodriguez presidenteak. "Sei bidaia, bost berbaldi eta lau mendi irteera egin genituen, eta aurten ildo horretatik jarraituko dugu". Goizean atera eta iluntzean itzultzeko irteerak izango dira; izan ere, azken urtean ezin izan dute bete Benidormerako bidaia. "Horiez gain, Basotxoko ohiko ospakizunak egingo ditugu: Aingeru Guarda zaindariaren eguna, Santa Luzia, Santo Tomas eta 90 urte betetzen dituzten bazkideei omenaldia", gaineratu du presidenteak.

**ZINEMA EMANALDIAK ETA DANTZA**

Zuzendaritza batzorde berriak hiru helburu ditu aurrean duen urteari begira: zinema emanaldiak eskaini, dantzaldiak antolatu eta Basotxoko taberna barruan dagoen txokoa txukundu. Mahaiak eta sukalde txiki bat daude aipatutako txokoan, eta, behar bezala jarriz gero –ur beroa, hozkailua eta sua–, merienda-pasa ederrak egingo dituzte elkarteko bazkideek. Bestalde, emakume askok eskatu izan dute dantzaldia, eta tabernako txokoan lekua izanda, antolatzea erabaki dute.

Berritasunekin jarraituta, Internet jarri gura dute, zuzendaritzako kideen lana asko samurtuko lukeelako; bidaien gaineko kontuak egiteko, esate baterako. Gogotsu ekin diote batzordekideek bi urteko ibilbideari, eta lan handia daukate aurrez aurre.



**INGURUMENA** > ZUHAITZ EGUNA DOMEKAN

# Hirurehun bat zuhaitz landatuko dituzte

Bertako zuhaitzak landatuko dituzte: urkiak, lizarrak, haltzak, gereziondoak, arteak eta elorri zuriak. Haritzak izango dira gehien, 200 sartuko dituzte

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Zuhaitz Eguna antolatu du Ingurumen Sailak, ikastetxeekin batera. Domekan, martxoak 26, landatuko dituzte zuhaitzok Urkulura doan bidegorri inguruan.

**BERTAKO ESPEZIEAK**

Foru Aldundiak dirulaguntza ematen duela aprobetxatu eta Naturgintza fundazioarekin Udalak eginda daukan hitzarmena bitarteko, Zuhaitz Eguna antolatu dute lehenengoz Aretxabaletan. 300 zuhaitzetik gora landatuko dituzte Urkulurako bidegorriaren alboan –Industrialde parean– dauden lurretan, Udalaren lurretan. Bertako espezieak dira guztiak, eta Naturgintzako kideek aukeratu dituzte: 25 lizar, 15 haltz, 12 gereziondo, 25 arte, 44 elorri zuri eta 200 haritz.



**BIDEGORRIA** Bainuetxeko industrialde pareko lurretan landatuko dituzte. M.A.

**IKASLE ETA HERRITARRAK**

Kurtzebarri eskolako eta Arizmendi ikastolako ikasleek jardungo dute zuhaitzok landatzen, 11 urtetik gorako ikasleek. Gura duten herritarrek ere parte hartu ahal izango dute, eta Naturgintza fundazioko langileen laguntza jasoko dute.

"Helburu bi ditu egunak: batetik, bidegorriaren lehenengo zatia egokitzea, eta bestetik, bertan dagoen hariztiari indarra hartzen laguntzea", adierazi du Joxe Anjel Antxiak, Ingurumen Sailarekin arduratzen den zinegotziak. Eta zera gaineratu du: "Era berean, gaztetxoengan naturarekiko errespetua piztea eta espezieak ezagutzen hastea gurako genuke".

Domeka goizean, 10:00etan elkartuko dira guztiak Iralabarri plazan Udalak duen biltegian. Handik zuhaitzak eta lanabesak aterako dituzte, eta Bainuetxeko bidegorrira eraman. Azken asteotan ingurua txukuntzen eta garbitzen ibili dira hainbat langile, eta zuloak eginda utzi dizkiete landatzera doazenei. Eguraldiak zeresan handia izango du; hortaz, oso eskasa eginez gero bertan behera geldituko da landaketa; eta hala bada, Naturgintzako langileek sartuko dituzte zuhaitzok, ezin delako gehiago atzeratu.

## Comenius proiektuarekin alemaniarrak Arizmendin

Alemaniako Alice-Salomon ikastetxetik etorritako 25 ikasle eta bi irakasleren bisita jaso dute astean Arizmendi ikastolan. Kirol irakasle ikasketak egiten dabiltza alemaniarrak, eta HUHEZINn eta Arizmendiko Lanbide Heziketan kirolaren gaineko ikasketak egiten dabiltzan ikasleekin elkartu dira. Comenius proiektuak ekarri ditu eta 15 egun pasatuko dituzte gurean.

Martitzenean egindako aurkezpen ekitaldian, Arizmendiko zuzendari Txaro Iraetak lan bisita probetxugarria opa egin zien.



M.A.

**POLITIKA**

## Batasunaren proposamen politikoaren aurkezpena

**M.A.** > ARETXABALETA

Berbaldia antolatu du Aretxabaletako Batasunak apirilaren 6rako, eguena. *Orain herria, orain bakea* proposamen politikoaren berri eman gura dute, eta Kurtzebarri eskolan izango da ekitaldia, 19:00etan.

**GATAZKA GAINDITZEKO GAKOAK**

Momentu politiko garrantzitsua bizi dugula uste du Aretxabaletako Batasunak, eta lehentasuna gatazkaren konponbideak duela. Hori horrela, *Orain herria, orain bakea* proposamenean murgilduta dabil azken hilabeteotan. Gatazka gainditzeko bi gako nagusi daudela iritzi diote: autodeterminazioa eta lurraldetasuna. Eta horiek bultzatu eta aurrera eramateko bi hitzarmenetan oinarritutako prozesuak abiarazi behar direla uste du: batetik, Euskal Herriko eragileen arteko hitzarmena, eta bestetik, ETAren eta Espainiako eta Frantziako estatuen artekoa.

Hori guztia eta gehiago argituko du apirilaren 6an berbaldia egingo duen mahai nazionaleko kideak.

> GIZARTEA

### Sahararrak hartzeko izenemate epea martxoaren 30 arte

Saharako umeek udako oporrak gure artean pasatzeko familiei laguntza eskatu diete Udalak eta Nubi elkarteak. Aretxabaletan lau ume hartu gura dituzte, uztailaren 6tik irailaren 6ra bitartean. Eskaerak martxoaren 30era arte egin daitezke Nubi elkartean. Hain zuzen, berbaldia egin du astean Nubik argibideak emateko; zalantzarik izanez gero bertara deitu besterik ez dago: 685 72 48 16, 685 72 48 17 edo 685 72 48 18.



ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA
Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

Martin
erloju-denda
Viceroy Fashion eta Lotus Style
Mitarte 16, Tel.: 943 79 01 72 - ARETXABALETA


mingainari tiraka

Meritxell Serrato > Kilima, haurdunendako eta umeendako arropa denda

# "Neuk diseinatutakoak saldu gura nituzke"

MIRARI ALTUBE> ARETXABALETA

**Moda diseinu eta estilismo ikasketak egin zituen. Arropak diseinatu eta josten ibili da, baina orain denda zabaltzea erabaki du. Haurdun dauden emakumeendako eta umeendako arropak dauzka Kilima dendan.**



**Orain arte arropak diseinatzen ibili zara?**

Ikasketak bukatu berritan Donostiako denda baterako egin nituen arropak beste kide batekin, eta gero, Aretxabaletan, jendeak eskatuta egin izan ditut.

**Moda erakustaldiren baten izan zara?**

Bai, Bartzelonako Gaudin izan nintzen bi urtean estilista lanak egiten. Mutilen arropa marka batekin joan nintzen, eta irakaslearekin batera modelo bakoitzarendako arropak aukeratzen nituen eta janzten lagundu.

**Zergatik erabaki duzu denda zabaltzea?**

Beti izan dut gogoan neure denda izatea, eta bertan neuk diseinatutako arropa saltzea. Momentuz ez dut diseinatuko, baina ea aurrerago ahal dudan.

**Eta zergatik haurdun daudenendako eta umeendako arropa?**

Haurdun egon nintzenean konturatu nintzen ez dela batere samurra arropa egokia aurkitzea, eta horrexegatik. Horiendakoekin batera umeendakoa ere ekarri dut.

**Umeen arropak erosten lehen baino diru gehiago gastatzen dugu?**

Ez dut uste. Geu umeak ginenean ere beti izaten genuen arropa ona, domeketarako-edo, eta nik gogoan dut sarri joaten nintzela Gasteizera erostera.

**Herrietako komertzioa hilda dagoela diote, eta zuk denda zabaldu...**

Bai, zuzen-zuzen igerilekura salto egitea pentsatu dut... Dena dela, uste dut herritik alde egiten dugula erosterakoan aukera txikia aurkitzen dugulako herrian.

**Zelako arropa dator udaberri eta udarako umeendako?**

Marka bakoitzak bere estiloa dauka, baina nagusien arropen antza dutenak datoz gero eta gehiago umeendako.

## Ipuinak, idazleen kontuak eta beste, literatura hurreratzeko

Astean egin dute Literatura Astea Kurtzebarri eskolan, eta ekitaldi ugari izan dituzte haur eta lehen hezkuntzetako ikasleek literaturara hurreratzeko. Maite Franko ipuin kontalariak Nu-nu izeneko fokaren istorio goxoarekin harrapatuta eduki zituen txikienak. Patxi Zubizarreta idazlea, ostera, nagusienen galderak erantzutera etortzekoa zen. Eta bitartean ikasleen lantxoak zituzten ikusgai eskolara hurreratutako guztiek.

Ohiturari jarraituz irakur maratoiarekin eman zioten atzo bukaera asteari. Eskolako aretora hainbat ikasle, irakasle, eta guraso ziren hurreratzekoak maratoian parte hartzeko.



M.A.

Zenbaki
• Kontabilitatea
• Fiskalitatea
• Lana
• Juridikoa
Aholkularitza
Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

BENGOA URDAITEGIA
Bertako okelak eta mortzilak
Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

> ANTZERKIA

### Bernardo Atxagaren 'Asto bat hipodromoan' martxoaren 29an

Bernardo Atxagak idatzitako *Asto bat hipodromoan* ipuina antzeztuko dute martxoaren 29an, eguaztena, 17:00etan, Kurtzebarri eskolako aretoan. Lasartevich herrira datozen zaldi eta jockeyekin Maurizio asto morroia agertuko da, morroi benetan berezia.

Zortzi urtetik gorako ume eta gaztetxoendako gomendatutako antzezlana da eta 45 minutu irauten du. Kutxak sustatu eta finantzaturiko jarduera da.

> TXOTXONGILOAK

### Bihar taldearen 'Ipuin magikoak' emanaldia eguenean

Bihar antzerki taldeak *Ipuin magikoak* txotxongilo emanaldia eskainiko die herriko umeei martxoaren 30ean, eguena, 17:00etan. Udal Liburutegiak sarri antolatzen ditu ipuin kontaketak liburuekiko zaletasuna pizteko; horregatik, hantxe izango da emanaldia. Sestaoko taldeak magiaz betetako ikuskizuna eskainiko du, txotxongiloek sortzen duten magiaz betetakoa, eta 4 eta 6 urte bitarteko umeendako da egokia.

> BERBALDIA

### Kuba eta Venezuelako egoera berbagai martxoaren 30ean

Kuba eta Venezuelako bizilagunak hurreratuko dira udaletxe zaharrera martxoaren 30ean, 19:30ean, berbaldia egitera. Mundukidek bideratutako Truke programarekin etorritako kideak dira, eta han eta hemen dabiltza Euskal Herriko proiektuak ezagutzen. Ezagutu bai, baina euren herrietako egoeraren berri ere eman gura diete Debagoieneko herritarrei, eta horregatik hainbat berbaldi antolatu dituzte.

> KIROLA

### UDAko egutegiaren saria Bixente Unamunorendako

Aretxabaleta Kirol Elkarteak, UDAk, negu partean saldu zituen egutegiek zekarten sariaren zozketa egin zuen joan zen astean. 600 euroko saria zen eta Bergarako Bixente Unamunok zeukan saritutako zenbakia. Zapatuan bertan eman zizkion 600 euroak UDAko presidente Jokin Antxiak.

Ohitura du UDAk egutegiak saltzea eta etxean jokatzen duten partiduetan zozketak egitea.

# GOIENKARIA e-posta berriak

Aldatu egin ditugu posta elektronikoak. Hauek dira berriak:

| | |
|---|---|
| **Goienkaria** | goienkaria@goiena.com |
| **Asteleheneko Goienkaria** | astelehena@goiena.com |
| **Kultura** | kultura@goiena.com |
| **Arrasate** | arrasate@goiena.com |
| **Bergara** | bergara@goiena.com |
| **Oñati** | oinati@goiena.com |
| **Aretxabaleta** | aretxabaleta@goiena.com |
| **Eskoriatza** | eskoriatza@goiena.com |
| **Antzuola** | antzuola@goiena.com |
| **Aramaio** | aramaio@goiena.com |
| **Elgeta** | elgeta@goiena.com |

**Hartu kontuan!**



**ALDAKETARIK EZ** Udalak eta Arizmendik egingo duten hitzarmenak ez du aldatuko Jose Arana gunean 0 eta 3 urte artekoei ematen dieten zerbitzua. IKER BARANDIARAN

**OSOKO BILKURA** > EZOHIKO OSOKO BILKURA EGIN ZUTEN

# Haur Hezkuntza, txakurrak eta tranbiari alegazioak berbagai

Eguenean ezohiko osoko bilkura egin zuten, zain zituzten gaiak erabakitzeko

Txakurren gaineko legedia indarrean jartzeko aldaketak

Tranbiaren proiektuari egin beharreko alegazioak berretsita

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Eguenean ezohiko osoko bilkura egin zuten. Ez zituzten garrantzi handiko gaiak eztabaidatu, baina ez zuten hilaren bukaerara itxaron gura.

Lehenik eta behin, txakurren gaineko legedia izan zuten berbagai. Orain dela gutxi jarri dute indarrean Jaurlaritzak onartutako legedia. Horren arabera, hirigunean txakurrek lotuta joan beharko dute. Horrez gain, Udaltzaingoa ibili da arriskutsuak izan daitezkeen txakur arrazen azterketa eta errolda egiten. Udaltzainen esanetan, herrian arriskutsuak izan daitezkeen zazpi txakur daude, eta horietako gehienak pitbull eta rotweilerrak dira. Hala ere, udaltzainek honako hau azpimarratu dute: "Berez ez dira txakur arriskutsuak, baina Jaurlaritzak uste du horietako batzuk arriskutsuak izan daitezkeela. Prebentzio kontua da horiek zerrendatzea".

Legedia indarrean jartzearekin batera, Udalak txakurren gaineko tasak aldatu ditu. Horrekin batera, Eudelek eta Aldundiak etxeko laguntzen zerbitzuari egindako aldaketei Udalak hasierako onarpena egin dio. Araudi berriak zehazten du zenbat ordu egin daitezkeen lan.

**ARIZMENDIREKIN HITZARMENA**

Udalak eta Arizmendik hitzarmena egitea adostu du udalbatzarrak. Arizmendiren Jose Arana guneak 0 eta 3 urte bitartekoei udal zerbitzua ematen die 2000. urtea ezkero. Orain, Jaurlaritzaren eskaera bat dela medio, Arizmendik zerbitzu hori emateko baimen administratiboa Udalaren esku jarri beharko du. Hala ere, Jose Arana gunean udal zerbitzu hori ematen jarraituko dute, hari ez diolako eragiten.

**ALEGAZIOAK BERRETSI**

Bestalde, udalbatzarrak Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko tranbiaren ibilbideari Hirigintza Sailak egindako alegazioak berretsi zituen. EBk ez zuen aldeko botoa eman. Honako hauek dira alegazioak: Torrebason geltoki bat jartzea, Torrebasoko biribilgunea mantentzea, Intxaurtxuetan biadukturik ez egitea, Gorosarriko inguruaren azterketa egitea, eta ibilbidea pasatzea Santa Ana eta Santa Marina auzoetatik, besteak beste.

LABURREAN

**> TXAKUR ARRISKUTSUAK**

Udaltzaingoak arriskutsuak izan daitezkeen txakurren zerrenda egin du prebentzio modura.

Arriskutsuak izan daitezkeen arrazetako zazpi txakur zenbatu dituzte udalerrian.

**> TRANBIARI ALEGAZIOAK**

Udalbatzarrak, EBren boto barik, Jaurlaritzaren tranbia proiektuari egindako alegazioak berretsi zituen.

Torrebason geltokia jartzea eskatu dute, biaduktua ez egitea eta herri barruko ibilbidea Santa Ana eta Santa Marinatik egitea, besteak beste.

**> HAUR HEZKUNTZA**

Jaurlaritzak hala eskatuta, Arizmendik 0 eta 3 urte artekoei udal zerbitzua emateko daukan baimena Udalari utziko dio.

DE LA TORRE
igeltserotza

*Erreformak orokorrean*
*Gremioen koordinazioa*

Intxaurtxueta 7 2-D
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 71 52 64 / 639 76 29 27

**AUZOAK**

## Auzotarren elkartea eratzeko bidean dira

Intxaurtxueta eta San Pedroko bizilagunak ordezkatzeko gailua

**I.B.** > ESKORIATZA

Intxaurtxueta eta San Pedroko bizilagunak gogoz dabiltza bi auzoak batuko dituen elkartea eratu guran.

Astelehenean berbaldia egin zuten Ibarraundin. Durangoko bi auzo elkarteetako ordezkariak gonbidatu zituzten, eta haiek elkartea sortzeko pausoak zeintzuk diren azaldu zizkieten: elkartea legeztatzea, estatutuak, Jaurlaritzan aurkeztu beharreko dokumentazioa...

**AUZOTARREI GALDEKETA**

Egunotan, bi auzoetako atarietako arduradunek etxebizitza guztietan galdetegi bat zabaltzen dihardute; hain zuzen, auzotarren iritzia jaso eta elkartean esku hartzeko gonbidapena egiteko.

**AZPIEGITURAK**

## Bidegik eta Udalak elkarrizketa eten dute

**I.B.** > ESKORIATZA

Joan den eguaztenean Udalak eta Bidegik autobidearen gaineko batzarra egin zuten, aspaldiko partez. Zoritxarrez, batzarra hasi eta denbora gutxira eztabaida piztu zen Aldundiko ordezkari eta Udaleko ordezkari batzuen artean, eta Bidegiko arduradun Nestor Aranak batzarra bukatutzat eman zuen.

Itxuraz konponbide zaila dauka Eskoriatzan autobidearen gaineko arazoak. Udalak eta kaltetuek denbora daramate lan egiten, proiektu horrek ahalik eta kalte txikienak eragin ditzan.

Bidegik, berriz, hasieran ondo hartu zituen auzotarren eta udal batzordearen proposamenak eta hainbat aldaketa egin zituen proiektuan, baina azkenaldian batzarrak egiteari oztopoak jartzen dihardu.

Ondorioz, ezinegona da bi aldeen partetik, eta batzarrak egin ezean konponbide zaila dauka arazoak.

AISIALDIA > ERRETIRATUENDAKO ZERBITZUAK

# Erretiratuentzat ortu gehiago egingo dituzte Torrebason

Beste 17 partzela egingo dituzte maiatz aurretik; horrez gainera, nekazaritza ekologikoaren gaineko ikastaroa egingo dute



NORBERARENDAKO Ortuetan jasotzen dituzten elikagaiak ezin dituzte saldu, norberarendako izan behar dute. I.B.

I.B. > ESKORIATZA

Udalak erretiratuendako ortu gehiago egin gura ditu Torrebason. Asmoa da maiatz aurretik bukatuta egotea. Guztira, 22 ortu eta horiei dagozkien zerbitzuak jarriko dituzte.

Gaur egun 17 ortu daude Torrebason, Almen eskolaren gainean. 2004ko apirilean abiarazi zituzten, Ezker Batuak bultzatutako ekimen baten bitartez.

Ortu horiek erretiratuek erabil ditzaten eginak daude. Interesatuen artean zozketa egin zuten eta bakoitzak 60 metro koadroko partzela dauka erabilgarri, ezer ordaindu barik. Horrez gain, ur biltegiak eta gauzak gordetzeko txabola komuna ere erabiltzeko aukera daukate.

**INTERESATUEN ARTEAN ZOZKETA**

Udalaren asmoa da ortuak maiatzerako egitea, eta horren aurretik izenematea zabaltzea. Izena emateko baldintzak honako hauek dira: Eskoriatzan erroldatuta egotea eta erretiratuta egotea, aurretik erretiratua egotea edo 55 urtetik gorako langabea izatea, hain zuzen ere.

Izena ematen duten guztien artean zozketa egingo dute, eta interesatuak kanpoan geratuko balira, itxaronzerrendan geratuko lirateke, hurrengo zozketetan lehentasuna izateko.

Erabiltzaileek gehienez 5 urtean erabili ahal izango dituzte ortuok. Horrez gain, ezingo dituzte ortuak eraldatu, ezta lan edo konponketarik egin. Horren ordez, bere horretan zaindu eta utzi beharko dituzte.

Bestalde, ortuek autoz joateko sarbidea dute.

**NEKAZARITZA EKOLOGIKOA**

Ortu gehiago egiteaz gain, Udalaren asmoa da erretiratuek eta bestelako erabiltzaileek ongarri kimikorik ez erabiltzea. Hori ekiditeko nekazaritza ekologikoaren gaineko ikastaro praktikoa antolatu behar dute. Ikastaroa herritar guztiei zabalik egongo da, nahiz eta, besteak beste, ortuen erabiltzaileei zuzenduta egon. Besteak beste, konpostajea egiten erakutsiko dute. Udalak data zehaztu bezain laster jakinaraziko dizuegu.

argazki zaharra



## Arlabango errepidea zabaltzen ibili zirenekoa

Oraingoan, Arlabango errepidea zabaltzen ibili zireneko talde-argazki bat ekarri digute, 1952koa. Eskoriatza eta Leintz Gatzagako hainbat lagun errepideko 86. kilometrotik 90. kilometrora ibili ziren errepidea zabaltzen. Argazkia Mikeleteen etxe zaharraren alboan eginda dago, eta langileek egin zuten atsedenaldi bat erakusten du.

Ezkerretik eskumara, zutik, honako hauek daude: Pedro Mari Zubillaga, Santiago Zubillaga, Jesus Aldanondo, Alejandro Martinez, Jose Andres Urtzelai, Ignazio Arana, Mariano Agirregabiria, Pablo Urdinguio eta Lorenzo Etxabe, hain zuzen ere.

Eta ezkerretik eskumara, jarrita, beste hauek agertzen dira: Gregorio Urrutia, Jesus Bares, Sebastian Altuna, Agustin Larrea, Jorge Altuna, Juanito Kerexeta eta Asensio Berasaluze.

**Argazkia:** Asensio Berasaluze.
**Informazioa:** Asensio Berasaluze.
**Urtea:** 1952ko iraila.

LITERATURA > IPUIN KONTALARIAK

# Datorren astean ipuin kontalarien bi saio egingo dituzte

Eguenean Bibliotekan umeendako ipuin kontaketa izango da, eta egubakoitzean helduendako emanaldia HUHEZIn

I.B.> ESKORIATZA

Azken bi urteotan, Bibliotekak hileko azken eguenetarako umeendako ipuin kontakizunak antolatzen ditu. 3 urtetik gorako eta 5 urtetik gorako emanaldiak txandakatzen dituzte, eta kontaketek oso harrera ona izaten dute. Batez beste 50 lagunetik gora izaten dira.

Eguenean, hilaren 30ean, Maite Franco idazle eta aktoreak 3 urtetik gorakoendako ipuin kontaketa egingo du euskaraz, Bibliotekan, 18:00etan.

Bibliotekako arduradunak emakume kontalariak eramateko ahaleginak egiten dabiltza, eta ia beti euskarazko emanaldiak egiten dituztela jakinarazi digute.

**CADIZKO PEPE MAESTRO**

Egubakoitzean, hilaren 31n, beste ipuin kontaketa bat egingo dute HUHEZIn. Cadizko Pepe Maestrok helduendako kontaketa egingo du, gazteleraz, 22:30ean.

Maestrok izen handia dauka kontalarien artean, eta hark asmatutako edo bizi izandako pasarte eta ipuinak kontatzen ditu. Espainiako Estatuan asko bidaiatu du eta leku askotan egin ditu emanaldiak. Daukan umore bizia nabarmendu dute behin baino gehiagotan.

**UMEENDAKO FILMAK ETENDA**

Bestalde, Udaleko Euskara Sailak jakinarazi digu umeendako euskarazko film emanaldiak eten egingo dituztela azarora arte. Hain zuzen ere, azaroan berriro ekingo diete, 2007ko martxora bitartean.

Oso pozik daude emanaldiek izan duten harrerarekin. Batez beste 60 ikusle izan dituzte.



AURKEZPENA Alkateak, ahaldun nagusiak eta Errepideetako zuzendariak aurkeztu zituzten proiektuak. I.A.

**HIRIGINTZA** > GIZARTE-KULTURA ETXEAREN AURREPROIEKTUA AURKEZTU DUTE

# Udan hasi nahi dituzte gizarte etxearen lanak

## Mendebaldeko sarrera hobetzeko egin nahi dituzten lanen berri ere eman du Foru Aldundiko Errepideetako zuzendariak udaletxean

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Astelehenean aurkeztu zuen Udalak Sagastiko zelaian eraikiko duten kultura eta gizarte etxearen aurreproiektua. Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako ahaldun nagusia izan zen aurkezpenean. Ekitaldi berean, Josu Arrizabalaga Foru Aldundiko Errepideetako zuzendariak mendebaldeko sarreraren proiektua aurkeztu zuen.

**HIRU SOLAIRU**

Maristen aretoa bota zutela eta, eraikin berria haren ordezko izango dela adierazi zuen alkateak: "Kultura eta gizarte etxeak balio askotariko zentro izan nahi du".

Beheko solairuan areto nagusia egongo da eta aldamenean liburutegi handi bat. Lehenengo solairuan erretiratuendako egoitza eta eguneko zentroa jarriko dituzte. Goian, berriz, zaintzapeko bost etxebizitza.

Eraikinak guztira 1.700 metro koadro izango ditu eta aurrekontua ia 2.000.000 euro da. Izartu programatik dirulaguntza jasoko dute eta baita Aldunditik ere; gainontzekoa mailegu baten bidez ordainduko dute.

Ondo bidean, proiektuaren prozesu guztia amaituta, udan hasi nahi dituzte gizarte etxea egiteko lanak. Izan ere, oraindik proiektua lantzen dihardute eta asmoa da bi hilabete baino lehen udalbatzarrean aurkeztea.

Gonzalez Txabarrik zera esan zuen: "Aldundiak gizarte, kultura eta nekazaritza arloak batera-tzen dituzten proiektuak bultzatu nahi ditu. Zentro horretan hiru arloetako zerbitzuak eskaini dituzte leku bakarrean. Orain Bergarara jo behar da, eta gero zerbitzu horiek herrian bertan aurkituko dituzte antzuolarrek".

ERREPIDEAK

### Herrirako sarrera Uzarragako zubitik

Bergaratik herri barrura sartu nahi duten gidarien arazoa saihesteko mendebaldeko sarreran egin behar duten lanen berri ere eman zuten. Etorkizunean Uzarragarako zubia izango da herrirako sarrera Bergaratik datozenendako. Handik San Joxepera egingo du bideak, Zurrategi pasa eta Kalebarrengo zubiraino. Irailerako esleitu nahi dituzte lan horiek. Uzarragatik Lizarragarako bidea, berriz, ekainerako amaitzea espero dute. Gonzalez Txabarrik esan zuenez, "herriari itxura modernoa emango diote lan horiek". Bestalde, jakinarazi zuen ekialdeko sarreran, Goizper aurrekoan, bigarren fasean egingo dituztela egokitzapenak.

> ERRETIRATUAK

### Urteko batzarra apirilaren 1ean egingo dute

Erretiratuen elkarteak urteko batzar orokorra egingo du datorren apirilaren 1ean, zapatuan. Bilera 18:00etan izango da elkartean bertan. Batzarrean iazko balantze ekonomikoaren berri emango dute; baita 2005ean egindako ekintzen gaineko informazioa azaldu ere. Bestalde, aurten egin daitezkeen ekintzak ere proposatuko dituzte ondoren 2006rako egutegia gertatzeko. Zalantzak argitzeko aukera ere izango da. 320 bazkide ditu elkarteak, eta guztiak daude gonbidatuta.

> ANTZERKIA

### Umeendako 'Asto bat hipodromoan' lana domekan Olaranen

Domekan, martxoaren 26an, umeendako antzerkia egongo da, 18:00etan, Olaranen. Gorringo taldeak *Asto bat hipodromoan* lana eskainiko die Antzuolako umeei zein eurekin joaten diren helduei. Bernardo Atxagaren ipuin batean oinarritutako antzezlana da. Hipodromoa dagoen Lasartevich herrira zaldiz betetako trena iritsiko da udan; eta baita herriko bizimodua aldatuko duen morroia ere. Ikuskizunerako sarrera doan da.

> EKONOMIA

### Euskadiko Kutxako kutxazainak euskara erabiltzaile gehien

Kutxazain automatikoek aukera eskaintzen dute eragiketak euskaraz zein gaztelaniaz egiteko. Euskadiko Kutxak barne buletin batean eman ditu aditzera kutxazainetako hizkuntza erabileraren datuak. Datu horien arabera, Antzuolako kutxazaina da Gipuzkoan euskara erabiltzaile gehien dituena (%41,60); Euskal Herrian bigarrena da Etxarri-Aranatzen atzetik (%43,89).

bere ustez



Mikel Larrea

## Udal aurrekontuei 'planto'

Udalbatzarrak 2006ko aurrekontuak onartu zituen martxoaren 10ean. Nire lanarengatik gertutik jarraitu dut aurrekontuen egitura eta onespena.

Aurrekontuak irekiak diren batzordeetan landu dira eta nik dakidanez, ez da egon proposatutako gastuen aurkako azalpenik.

Ez nuen espero Udal aretoa betetzea aurrekontuen gaia eztabaidatzeko. Publikoan, bi pertsona bakarrik, eta hauek alkateak gonbidatuta: Kutxako ordezkaria eta

**"Harridura handiagoa hartu nuen GOIENKARIAn 'plantoa' azaldu zutenean"**

Antzuolako Udal Etxegintzak Izartu programa kudeatzeko kontratatutako aholkularia. Biek 2006rako Izartu programaren inbertsio eta finantzaketaz hitz egin zuten.

Espero nuen Gertu Gaeko ordezkariak han izatea gaiak eztabaidatzeko. Zinegotziak harriturik zeuden ez agertzearekin, eta uste zuten astean izandako egoera politikoarengatik zela "plantoa". Harridura handiagoa hartu nuen, aurreko asteko GOIENKARIAn "plantoa" azaldu zutenean.

Hainbeste aldarrikatu udaletxeko ateak zabalik izatea, eta guztiz irekiak dituztenean, prentsaren bidez azaltzen dituzte beraien kexak, Udalbatzarrean edo batzordeetan egin beharrean. Hau da zuen ekarpena?

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak
Eta orain....
GREMIOEN KOORDINAZIOA

**ETXEBIZITZAK** > BABES OFIZIALEKO ETXEAK

# Hasi dira urbanizazio lanak egiten Torrealdean

Urtea amaitu aurretik urbanizazio lanak bukatuta egotea nahi dute; bitartean, ezingo da gune hartan autorik laga

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA

Atzerapenen ostean, makinak hasi dira jadanik lanean Torrealdean. Han eraikitzen diharduten Etxebizitza libreak ere amaitzear daude, eta ingurua urbanizatzeari ekin diote orain.

Lanok, ordea, zenbait oztopo eragingo dizkiete Torrealdeko bizilagunei. Izan ere, autoak ezin dituzte etxe pareraino sartu; hori dela eta, euren kexa azaldu dute bizilagunek Udalean. Bada, Udalean esan digute arazo horri irtenbideren bat ematen saiatuko direla, baina ez dela batere erraza. "Besterik ez bada, zamalanetarako tarte bat laga dezakegu, baina oraindik erabakitzeke dago eta aztertzen dihardugu zer egin lanek irauten duten bitartean", esan digu alkateak.

**ETXEAK DATORREN URTERAKO**

Urbanizazio lanak urtea amaitu baino lehen bukatuta izango direla jakinarazi digu alkateak. Babes ofizialeko etxeak eraikitzeko, berriz, 18 hilabeteko epea dago; beraz, irail edo urrirako gertu izatea espero dute.

Hain zuzen ere, apirilaren 3an amaituko da epea babes ofizialeko etxeetarako izena eman eta onartu ez dituztenek erreklamazioak aurkezteko. Ondoren, maiatzean edo ekainean egingo dute zozketa.

Alkateak esan digunez, "oso garrantzitsua da lanak hastea, jendea etxeen zain baitago".

Aralarkoak ere poztu dira lanak hasteagatik, baina euren esanetan, "epeak luzatu egin dira babes ofizialeko etxeen zain daudenendako; Udalak espero baino 60.000 euro gutxiago jasoko ditu. Etxebizitza libreetan bizi izateko baimena emateko epea ere atzeratuko da; kredituak eskatuta dituzte eta atzerapenak ez die onik egin".

Bestalde, eskatu dute bide bat egokitzeko Torrealdeko bizilagunendako; eta inguruko baserrietarako bidea egokitzea lanak bukatu orduko.



**GARAIO** Bizikletaz 11 kilometroko ibilbidea egin zuten hainbat elgetarrek Garaio inguruan martxoaren 19an. GOIENKARIA

**KIROLA** > EGOKI TALDEAREN EKINTZAK

# Apirilean bolo txapelketa izango da, Egoki taldeak antolatuta

Uztailera bitartean mendi eta bizikleta irteerak eta pilota txapelketa egingo dituzte

**I.A.** > ELGETA

Otsailean aurkeztu zuten Egoki taldea eta ordutik hona zenbait kirol ekintza antolatu dituzte herritarrendako; eta elgetarren parte-hartzea handia izan da ekintza horietan.

Martxoaren hasierarako zegoen iragarrita Urbiako irteera eta eguraldiarengatik hilaren 12ra atzeratu zuten; orduan ere eguraldia ez zen batere ongi portatu elgetarrekin, baina 12 lagun ausartu ziren euriari aurre egin eta Urbiaraino joaten.

**BIZIKLETA**

Martxoaren 19an, bestalde, Landako urtegira joan zen lagun talde bat bizikletan ibiltzera. Gogorrenak, zortzi lagun, bizikletan itzuli ziren Elgetara, 4-5 orduko ibilbidea eginda. Gainontzekoek Garaion 11 kilometroko buelta egin zuten. Lokaztuta baina pozik ibili zirela esan digute.

**DATOZEN EKINTZAK**

Iragarritako ekintzen erdiak egin ostean, uztailera bitartean beste zenbait ditu Egoki taldeak: apirilean bolo txapelketa umeendako eta helduendako; maiatza eta ekaina bitartean 16 urtetik gorakoendako mendi irteera Pirinioetara; ekainaren 11n mendi bizikleta irteera Leitzaranera; eta ekaina eta uztaila bitartean pilota txapelketa eskola umeendako.

Horiez gainera, lau t'erdiko txapelketa, mendi kriteriuma eta horrekin lotuta txirrindularitzako argazkien erakusketa ere antolatuko dituzte.

## Kaleak garbi makina berriarekin

Udalak kaleak garbitzeko makina erosi du. Orain arteko erratzari eta gurditxoari hartuko die lekukoa makinak. Izan ere, kale, plaza eta industrialde berriak egin ahala garbitzaileen lana ere ugaritu egin da. Makinarekin herria hobeto eta azkarrago garbitzea da asmoa. Astelehenetan, herriko txoko gehienak garbituko dituzte goizez, eta arratsaldez plaza. Barikuetan, berriz, herriko erdialde inguruan egingo dute garbiketa makinarekin. Industrialdea noiz garbitu erabakitzeke dago. Makinak urez hoztutako diesel motorra, 750 litroko tobera, bi eskuila, bideokamera eta irratia ditu; eta 68.585 euro kostatu zaio Udalari.




I.A.

> JAIA

### Atzegi elkarteak eskualdeko jaia egingo du maiatzaren 27an Udal Pilotalekuan

Atzegik, adimen urritasuna duten pertsonen aldeko Gipuzkoako erakundeak, eskualdeko jaia maiatzaren 27an egingo du herrian. Egun horretan adimen urritasuna dutenak eta euren senitartekoak elkartuko dira euren arazoen gainean berba egin ostean jai giroan ospatzeko. Udal Pilotalekuan bazkaria izango dute eta baita dantzaldia ere. Urtero, ibarreko herri baten egin izan dute Atzegi Eguna, eta ibarreko gainontzeko herrietan egin ostean, jaia aurten egingo dute lehen aldiz Elgetan. Jai horren helburuetariko bat da egunerokotasunetik aparte adimen urritasuna dutenen eta euren senideen arteko harremanak zabaltzea.

> ERAKUSKETA

### Surfaren gaineko argazkiak ipiniko ditu ikusgai Gari Garaialde argazkilariak Espaloian

Gari Garaialde argazkilari hondarribiarrak *Ametsak besarkatuz* izenburupean surfaren gaineko argazkiak batu ditu erakusketa batean. Erakusketa ikusteko aukera izango da apirilaren 4ra bitartean Espaloian. Itziartik hasi eta Donibane Lohitzunera bitarteko hondartzetan atera ditu argazkiak eta horietako batzuk aukeratu ditu erakusketarako. Surfarekin kolore biziak lotzen baditugu ere, Gairaialdek zuri-beltzezko argazkiak erakutsiko ditu. Paisaiak dira guztiak, baina irudi guztietan pertsonaren bat agertzen da. Espaloiko hurrengo erakusketa Maria Dolores Lonbideren margolanez osatutakoa izango da.

**TEKNOLOGIA** > WI-FI SISTEMA

# Kultura etxean wi-fi sistema ipiniko dute Aste Santu ingururako

Inolako kable barik Internet erabiltzen lagatzen du sistema horrek, doan

Kultura etxera doan edozeinek erabili ahal du, baina mugatu egingo dute erabilera

**UBANE MADERA** > ARAMAIO

SPRIk kultura etxean wi-fi sistema ipin dezan beharrezko dirulaguntza osoa emango dio Udalari: 3.000 euro inguru. Eta Udaleko teknikari Xabier Arriolabengoak jakinarazi digunez, halaxe egingo du Udalak, aurreikuspenen arabera, Aste Santua baino lehen. Bilboko Conversa enpresak egingo ditu lanok.

**EDOZEINEK INTERNET ERABILTZEKO**

Lehen esandako moduan, wi-fi sistema da Internetera sartzeko sistema, ordenagailu eramangarriendako; izan ere, kable bako sistema da. Hala azaldu digu Arriolabengoak: "Liburutegira edo kultura etxera doan edozeinek Internet erabil dezan ipiniko dugu". Gaineratu digu oraingoz ez dutela zeharo konfiguratu zelako zerbitzua eskainiko duten, baina argi dute kultura etxean lokala duten elkarteek zein erretiratuen egoitzakoek baldintza barik erabili ahal izango dutela wi-fi sistema. "Gainerakoek, edo kultura etxeko gainerako lekuetan, seguru aski, mugatutako erabilera izango dute, liburutegian emango duten txartel baten bitartez mugatutaedo. Esaterako, norbait baldin badator liburutegira lan bat egitera eta Internet behar badu, bada, mugatutako denbora duen IP helbidedun txartela emango diote liburutegian". Edozelan ere, esandako moduan, hori guztia zehaztu beharrean dago.

**ADSL LINEAREKIN ETA DOAN**

Internet guztion eskura ahalik eta errazen ipintzeaz gainera, Udaleko teknikariak jakinarazi digu zerbitzu azkarra izango dela, ADSL sistema erabiliko duelako. Gainera, doan izango da: "Gero, jendearen erabilera motaren eta erabilera kopuruaren arabera, banda hobetu behar dugun edo ez aztertuko dugu".

**LEHEN ERAIKIN PUBLIKOA**

Orain arte Aramaion bazen wi-fi sistema, baina udaletxeko langileendako eta beste zenbait aramaioarrek modu pribatuan ipinitakoa. Orain, berriz, erabilera publikoa izan dezan ipiniko dute wi-fi sistema kultura etxean. Muga bako sarbidea duten guneetan argazkitxoan ikusten duzuen moduko plakak ipiniko dituzte, seinaleztatzeko.

Bestalde, aurrera begira, wi-fi sistema herrira zabaltzeko aukera aztertzen dabiltza. "Udala beharrezko guztia egiten dabil zerbitzu hori ibar guztian eman ahal izateko". Modu horretan, gaur egun kablea baserriraino iristeko zailtasuna duten lekuetan ere erabili ahal izango lukete Internet. Horren harira, jakinarazi digute Euskaltelekin dabiltzala aztertzen hori zela egin dezaketen.



**INTERNET** Edozeinek erabili ahal izango du Internet kultura etxean I. L. DE BERGARA




Halako plakak ipiniko dituzte. UDALA

**EUSKARA** > LEHIAKETA

# 'Berbakiniela' izeneko lehiaketa abian

Txirritola Euskara Elkarteak antolatu du lehiaketa, ia erabiltzen ez diren Aramaioko berbak berreskuratzen laguntzeko

**U.M.** > ARAMAIO

Hilean behin argitaratuko dugu Txirritolaren lehiaketa hori. *Berbakiniela* izena ipini diote, kiniela baten formatua eman diotelako. Hau da, lehiaketaren funtsa da ezkerrean agertzen den berbaren edo esamoldearen esanahia zein den asmatzea eskumako aukeren artean. Kiniela egin ostean, liburutegira eraman beharra dago eta han egongo den kutxan bota. 15 egun izango dira horretarako.

**ALTXORRA GORDETZEKO**

Aramaioko euskaran berba batzuk ia erabiltzen ez direla-eta abiarazi du Txirritola Euskara Elkarteak lehiaketa: "Berba batzuk adin batetik gorakoek erabiltzen dituzte, baina hortik beherakoek ez. Guk herritarren interesa piztu nahi dugu, berba horiek geure altxorra direlako, geureak direlako eta ezagutu beharrekoak direla uste dugulako". Hala adierazi digu Txirritolako presidente Txema Abarrategik.

**1batXixe2bi**

Aramaixoko berben **berbakinielie**

1. ZENBAKIE

| | | |
|---|---|---|
| **Kiña jota egon** | **1** | Hagiñetako miñez |
| | **X** | Burutik eginda |
| | **2** | Lur jota egon |
| **Karapaixue** | **1** | Mokotza |
| | **X** | Lelo arpegixe |
| | **2** | Koadernue |
| **Ganbelue** | **1** | Kamellue |
| | **X** | Gañe illune |
| | **2** | Ganorabakue |
| **Ipurtxintxurre** | **1** | Intxaur ahundixe |
| | **X** | Ipurdi puntako hezurre |
| | **2** | Katamixarra |

| | | |
|---|---|---|
| **Tentaixe** | **1** | Arbola haundixe |
| | **X** | Tonto akabera bakue |
| | **2** | Tentalarixe |
| **Turtukiñe** | **1** | Uso tortolie |
| | **X** | Alue |
| | **2** | Turkiarra |
| **Satza** | **1** | Satorra |
| | **X** | Saltsie |
| | **2** | Pertsona loixe |
| **Afoñue** | **1** | Haize umela |
| | **X** | Tronpetie |
| | **2** | Afiziñue |

**Asmatzaillien artien zozketatuko ditugu:** Aramaixoko eztixe, sagardaue eta gaztaie! Zorte on!

Txirritola Euskara Elkartea Aramaio

Aukeratu erantzuak, moztu txartela eta ekarri Aramaioko Liburutegira, APIRILAREN 7RAKO.

Izen-deiturak: .......................................... Telefonue: ..........................

**GIZARTE ZERBITZUAK**

# Egoitzan aldi baterako egoteko

**U.M.** > ARAMAIO

Adineko elbarri fisiko edo psikikoek egoitzan egonaldiak egiteko eskaeren epea zabaldu dute. Hain zuzen ere, uztail, abuztu eta irailerako eskabideak egiteko epea zabaldu dute, apirilaren 12ra arte. Interesa duenak udaletxeko oinarrizko gizarte zerbitzuetara jo beharko du.

**BALDINTZAK**

Lau baldintza bete behar dira: 60 urte beteta izatea, Arabako egoiliarra izatea eta lurralde historikoko erroldan sartuta egotea; elbarritasun larriren bat izatea eta horren ondorioz, beste pertsona baten laguntza behar izatea eta eskariak Adinekoen Arloko Balioztatze batzordearen aldeko txostena jasotzea.

**INGURUMENA** > UDABERRIARI ONGIETORRIA

# Loratei inguruak garbituko dituzte bihar, gero loreak landatzeko


**LORATEGIAK** Herriko hainbat txoko garbitu eta txukunduko dituzte, gero loreak landatzeko. M.A.

Gurel elkarteak deitutako eta Udalak lagundutako ekimenak guraso eta umeak batuko ditu bihar herriko berdeguneak garbitzeko

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Udaberriari ongietorria antolatu du Gurel guraso elkarteak herriko lorategi, berdegune eta lore-ontziak txukunduaz, itxura dotoreagoa emateko herriari. Udalarekin batera egingo du lan, eta lehenengo gertatu egin beharko dituzte berdeguneok gero loreak landatzeko.

**GARBITU ETA ITXARON**

10:00ak inguruan elkartuko dira guraso eta umeak bihar, zapatua, herriko plazan. Lanerako tresnak eskuan hartu eta herriko lorategi guztietatik pasatuko dira garbiketa lanak egiten: belar txarrak kendu, lur berria bota eta baztegrrak txukundu.

Bihar egingo duten ekimenaren helburua da ondoren lore eta zuhaixkak landatzea. Horretarako, baina, aste batzuk itxaron beharko dituzte: "Belarrak kendu eta lurra botatakoan astebete gutxienez itxaron egin behar da, edo beharbada aste bi. Gainera, loreak landatzeko oraindik goiz da", dio Jon Sasiain Kultura zinegotziak.

Orain dela urte batzuk jardinera edo lore-ontzi luzeak jarri zituzten herriko hainbat kaletan, baina sekula ez da egin udaberriari ongietorririk. Hala dio Txema Fernandezek: "Nik ez dut ezagutu halako ekimenik herrian". Hortaz, lehenengo aldiz txukunduko dute herria ume eta gurasoek elkarlanean. Gurelekoek zuhaitzak landatzea aipatu zuten azken batzarrean, baina oraingoz ez dute halakorik egingo.

**URBASARA IRTEERA**

Apirilaren 1ean, bestalde, irteera egingo dute Gureleko kideek. Urbasara joango dira egun-pasa, eta Santa Marina izeneko ermitaren inguruan dagoen ibilbidea ezagutuko dute. Santa Marina 1.055 metroko mendixka da eta dolmen bat ere badauka. "Oraindik ez dugu erabaki autobusean joango garen edo norberaren automobilean", dio Itsaso Egino elkarteko presidenteak. Eta gaineratu du: "Lehenbailehen erabakiko dugu eta asteburuan emango dugu horren berri ohiko lekuetan kartelak jarrita". Hortaz, zain geratuko dira kideak txartelak hartu edo ez jakiteko.



EDORTA ARANA

## Kantuan egin eta ederto ibili ziren 24 lagun sagardotegian

Gatzagako lagun talde polita joan zen aurreko zapatuan sagardotegira. Hainbat koadrilatako kideak ziren eta urtarril inguruan pentsatutako irteera egin zuten. Izena emandakoen artetik, azken orduan bi lagunek ezetza eman zuten; hala ere, 24 herritar elkartu eta Legorretarako bidea hartu zuten autobusean.

Sagardotegi giroko afari bikaina izan zuten; sagardoarekin barrua busti eta umore onaren laguntzarekin kantuan jardun zuten gau guztian. Halaxe kontatu digu Legorretan izan zen Rosa Urretak: "Oso-oso ondo pasatu genuen. Kantu batean ibili ginen eta giro bikaina sortu genuen guztion artean".

**GARRAIOA**

## Aldundiak emandako erantzuna jaso dute

Taxi-busa abian egon arren beste proposamen baten zain dago batzordea

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Otsailaren 13an elkartu zen Joxerra Perez alkatea Lurralde Antolamenduko diputatu Koldo Azkoitiarekin. Herritarren kezkak azaldu zizkion orduan, eta Garraio batzordeko kideek egindako idatzia eman. Hala, hilabetez egon dira berrien zain Gatzagan, eta orain heldu zaie Aldundiaren erantzuna.

Alkateak bitartekari lanak egin ditu Aldundiarekin eta Garraio batzordeko kideei erantzuna emateko konpromisoa hartu zuen. Hala, batzarra ziren egitekoak atzo, eguena. Taxi-busak abian jarraitzen du Gatzagan, baina, batzordeko kideen esanetan, Aldunditik beste proposamenen bat etortzea gurako lukete.

ITOITZ ARMENDARIZ > MUSHERRA

# “Arnesak ikustearekin batera txakurrak aztoratu egiten dira”

Espainiako Txapelketan bosgarren sailkatu da Itoitz Armendariz eskoriatzarra

Joan den urtean 19.a izan zen Pirena proba ezagunean, eta aurten laguntzaile lanetan ibili da

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Itoitz Armendarizek (1979) hamar urte baino gehiago daramatza txakur lasterketetan esku hartzen, bai lur gainekoetan eta baita elurretako probetan ere: “Arrasateko Iban Guridiri erosi nion lehenengo txakurra, eta harekin joan nintzen lehenengo lasterketetara”. Itoitzek hainbat txakur izan ditu, baina orain, Iker Ozkoidi lagun nafarraren txakurrekin lehiatzen da: “Hemen oso gaitza da txakurrak izatea. Lekua behar da, eta txakur asko izanez gero, ondokoek berehala egiten dute protesta. Ikerrek, berriz, 40 txakur ditu eta hara joaten naiz asteburuetan, txakurrekin ibili, edozertan lagundu...”.

**ESPAINIAKO TXAPELKETAN**

Joan den martxoaren 12an egin zuten Espainiako Txapelketarekin amaitu dute aurtengo denboraldia. Hemezortzi lagunen artean Itoitz bosgarren sailkatu zen, sei txakurreko kategorian. Espainiako Txapelketarekin batera, Pirenan ere ibili dira: “Azkeneko lau urteotan hartu dut esku Pirena proban. Horietako hirutan laguntzaile lanetan ibili naiz, baina joan den urtean gidari lanetan ibili nintzen, eta 40 taldetatik 19.a sailkatu nintzen”. Laguntzaile lanetan ibili denean, baina, ez da aspertu: “Azkenean, auto lasterketetan kopilotua dagoen moduan, txakur lasterketetan laguntzaileak daude. Lasterketan zehar laguntzaileak hainbat lan egin behar ditu, eta proba amaitutakoan, gidariak atseden hartzen duen bitartean txakurrei arnesak kendu, jaten eman... Ikusten ez den lana egiten du laguntzaileak, baina beharrezkoa dena”.

**AURTEN EZIN GIDARI LANA EGIN**

Pena izan da, aurten Itoitzek ezin izan du-eta Pirenan lera (trineoa) gidatu: “Ikerrek txakur mordoa ditu, bi talde egiteko adina, eta hori zen gure asmoa. Pirena baino hilabete lehenago, baina, Txekian ibili zen lehian, eta ezusteko batean zazpi txakurrek min hartu zuten. Ahalegindu ginen txakur horiek errekuperatzen, baina denbora luzeagoa behar zuten lesioa gainditzeko, eta talde bakarra osatzeko txakurrak genituen. Hala, laguntzaile lanetan ibili naiz aurten. Eguraldi ona egiten zuenean sekulako inbidia ematen zidan Ikerrek; eguraldi txarra egiten zuenean, ez horrenbestekoa”. (Barre)

Pirinioetan hamazazpi egunean egiten duten probaren gainean egin dugu berba: “Pirena oso berezia da, txakur lasterketako Paris-Dakar proba da. Alpeetan badaude hiru eguneko proba ikusgarriagoak, baina Pirenak 15 etapa ditu, eta hori berezia da”. Talde bakoitza hamalau txakurrek eta bi lagunek osatzen dute, eta aurten 38 talde izan dira. Dena dela, proba garrantzitsuak badaude ere, *mushing*-ak ez du bizi izateko ematen: “Inor ez da horretatik bizi. Ikerrek, adibidez, babesleak ditu, besteak beste txakurrendako janaria ematen dietenak. Hortik aurrera, baina, nork bere poltsikotik ordaindu behar du guztia. Pirena irabazi duenak, adibidez, 6.000 euro irabazi ditu. Baina urtean zehar 12.000 euro gastatuko genituen”.

**"Hasieran, hamalau txakur tiraka ikusterakoan normala da beldurtzea"**

**"Musher batek sekula ere ez du bere txakur onena salduko; neuk, behintzat, ez nuke egingo"**

**TXAKURREKIN MAITEMINDUTA**

Txakurrak gustuko izatea da kirol horrek eskatzen duen lehenengo gauza: “Jendeak pentsa dezake txakurrek sufritu egiten dutela, baina arnesa erakusterakoan aztoratu egiten dira. Kirolariak dira, ondo zaindu behar dira eta, pertsonei gertatzen zaigun moduan, gehiegikeriak eginez gero sufritu egiten dute. Baina tira egiteko zoratzen egoten dira”. Eta lera gainean joateko lehenengo ikasgaia ere eman digu Itoitzek: “Hamalau txakur tiraka ikusterakoan normala da hasieran beldurtzea. Lera gainean lasai joatea komeni da, tentsio handiegia izanez gero erraza da-eta irauli egitea. Lerari dagokionez, eskiatzea modukoa da; hori bai, aldapa gora denean, korrika egin behar da”.

Arrazari dagokionez, azken urteotan dezente aldatu dira gauzak: “Orain, arrazari baino gehiago, txakurraren curriculumari begiratzen diote: zenbat proba irabazi dituen, haren gurasoek zein lorpen egin zituzten...”. Txakur on batengatik 16.000 euro ordaindu izan dute: “Neu ez naiz horren aldeko, musher batek sekula ere ez du-eta bere txakur onena salduko. Neuk, behintzat, ez nuke horrelakorik egingo”.



**LASTERKA** Itoitz txakurrekin, joan den urteko Pirena proban (19. postuan sailkatu zen). ITOITZ





**Ford-Mugarri Mikel Galdosekin**

Mugarrik Mikel Galdos aretxabaletarraren aldeko apustua egin nahi du. Mikel Galdos ibarreko lehenengo golf jokalari profesionala da, eta Sevillan jokatutako lehen txapelketa profesionalean 8. amaitu du. Ford-Mugarri Arrasateko saskibaloi eta eskubaloi taldeen laguntzailea da.

**TXIRRINDULARITZA** > TROPELA, MARTXAN

# Gorla eta Uzarragako probak aste bukaeran

23 urtetik azpiko 110 bat txirrindularik hartuko dute parte domekan Gorlako Igoeran

Junior mailako Uzarragako Igoeraren 31. ekitaldia jokatuko da zapatuan Antzuolan




**ESKALATZAILEAK** Aldapan gora ondo moldatzen direnak izan dira irabazle Gorlan. Azkena, Alberto Fdez. de la Puebla. AG

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Gorlako Txirrindulari Igoera jokatuko da domekan. Aurtengoa 32. ekitaldia izango da eta 23 urtetik azpiko 110 bat txirrindularik hartuko dute parte. Denboraldiko zazpigarren proba izango da eta sasoi punturik onenean nortzuk dauden jakiteko proba interesgarria izaten da Gorlakoa.

Txirrindulari denboraldiaren hasieran zaila izaten da faboritoak aurreratzea. Hala ere, orain arte ikusitakoaren arabera, ematen du Caja Rural, Seguros Bilbao, Wurth eta Bidelan-Kirolgi direla talderik indartsuenak.

**DEBAGOIENEKO PARTAIDETZA**

Domekan Debagoieneko bost lagun izango dira irteeran: Azpiru Inmobiliaria taldeko Unai Arantzabal bergararra, Joseba Itziar oñatiarra, Gurutz Larrea antzuolarra eta Eddy Perez arrasatearra eta Bidelan Kirolgin dabilen Kepa Varela bergararra. Ander Nafarratek (Azpiru) ezin izango du parte hartu: aurreko zapatuan erorikoa izan zuen Lizartzako proban eta erradioa apurtu zuen. Pare bat hilabeterako baja izango du arrasatearrak.

Iker Amutxastegi Azpiruko zuzendaria pozik dago bere txirrindulariek orain arte erakutsitakoarekin: "Itxura ona ematen ari gara eta ilusioz ikusten ditut mutilak. Gauzak egiteko ona da hori. Hala ere, oraindik ez gaude sasoirik onenean eta zaila izango dugu domekan zerbait lortzea. Baina ihesaldietan sartzen ahaleginduko gara. Amateur mailari puntua hartzeko lasterketa egokia da Gorla". Zapatuan Laukizen izango dira Azpirukoak. Bestalde, Unai Arantzabalek parte hartu zuen Gipuzkoako selekzioarekin Waregeneko Sari Nagusian, Belgikan, eguaztenean, 23 urtetik azpikoen elite mailako proban.

**BI ALDIZ GORLATIK**

Ibilbideari dagokionez, 2002. urtea ezkero ez da igoera soilik jokatzen. Domekan 92 kilometro bete beharko dituzte eta bi aldiz igaroko dira Gorlatik, 41. kilometroan eta amaieran. Irteera 10:00etan egingo da Bergarako San Martin plazatik eta Zubillagaraino joan ondoren, Gorlatik igaroko dira (11:00ak aldera), Elosuatik Zumarragara joango dira, Deskarga igoko dute (11:50ak aldera) eta Bergaratik pasatuko dira berriz, azken igoerari ekin aurretik. Lasterketa 12:25ak aldera amaituko dela zehaztu dute antolatzaileek.

Lokatzako 50 lagun inguru arituko dira lanean domekan. Horren harira, laguntzaile lanetan ibiltzeko gertu daudenei dei egiten diete domekan San Martin plazan izateko, 09:00etan.

**UZARRAGAKO IGOERA ANTZUOLAN**

Bestalde, Uzarragako Igoeraren 31. ekitaldia jokatuko da bihar, zapatua, Antzuolan. Junior mailako txirrindulariak lehiatuko dira, eta, Debagoieneko partaidetzari dagokionez, Lokatza, Aloña Mendi eta Dorletako Ama taldeetako gazteek hartuko dute parte. Ehun bat txirrindulari izango dira lehian. 81 kilometroko ibilbidea prestatu du Aiastui Txirrindulari Elkarteak. Lasterketa 16:00etan hasiko da eta Antzuolatik eta Zubillagara hiru joan-etorri egin ostean, Uzarragako igoerari ekingo diote txirrindulariek. 18:00ak inguruan amaituko da zapatuko proba.

GORLAKO IGOERAREN 32. EKITALDIA

## Faborito argirik ez domekarako

Caja Ruraleko Vicente Toribio eta Gorka Lizeaga, Bidelan Kirolgiko Iker Aramendia eta Jon Uriarte eta Seguros Bilbao taldeko Ruben Palacios eta Beñat Intxausti azaltzen dira domekarako pronostikoetan. Hala ere, ikusteko dago zeinek hartzen dion errelebua Fernandez de la Puebla azken irabazleari. Kontuak kontu, lehen planora itzuli da Gorlako Igoera. 1990eko hamarkadako azkenetan partaidetzak behera egin zuen: espezialista gutxi batzuendako proba zen. Lokatzakoek ibilbidea aldatu zuten 2002an, partaidetza handitze aldera, eta apustua ondo atera zaie.



## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Gazte mailako Euskadiko Liga**
Aloña Mendi - Dep. Alaves
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

**Preferente maila**
Mondra - Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Atxabalpe.
Hondarribia - Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Hondarribia.

**Lehen erregionala**
Bergara - Lagun Onak
Zapatua. 16:15. Agorrosin.

**Bigarren erregionala, igoera fasea**
Aretxabaleta - Landetxa
Domeka. 16:30. Ibarra.
Antzuola - Soraluze
Zapatua. 16:30. Estala.

**Ohorezko mailako gazteak**
Mondra - Herrerako Sport.
Zapatua. 12:00. Atxabalpe.
Zarautz - Aretxabaleta
Domeka. 16:30. Zarautz.
Zumaiako - Bergara
Zapatua. 18:00. Zumaia.

**Lehen mailako gazteak**
Bergara - Zestoa
Zapatua. 18:15. Ipintza.
Aretxabaleta - Oiartzun
Zapatua. 11:30. Ibarra.
Herrerako Sport. - Antzuola
Zapatua. 15:30. Herrera.

**Bigarren mailako gazteak**
Sanpedrotarra - Arrasate
Zapatua. 15:30. Trintxerpe.

**Kadeteen ohorezko maila**
Aloña Mendi - Bergara
Zapatua. 12:15. Ibarra.

**Kadeteen lehenenego maila**
Urola - Arizmendi Aretx.
Zapatua. 18:00. Argixao.
Idiazabal - Arrasate
Zapatua. 11:00. Arizkorreta.

**Kadeteen bigarren maila**
Zestoa - Arizmendi Aretx.
Zapatua. 11:00. Zubiaurre.
Intxurre - Bergara
Zapatua. 11:00. Alegia.

**Ohorezko mailako infantilak**
Añorga - Aloña Mendi
Domeka. 10:00. Rezola.
Arizmendi Aretx.- Kostkas
Domeka. 12:00. Ibarra.

**Infantilen lehenengo maila (igoera fasea)**
Herrerako Sport. - Arrasate
Zapatua. 11:30. Herrera.
Vasconia - Bergara
Zapatua. 12:30. Martutene.

**Infantil txiki (txapeldunen fasea)**
Vasconia - Arizmendi Aretx.
Zapatua. 10:00. Martutene.

**Emakumezkoen Liga, igoera fasea**
Luberri - Bergara
Zapatua. 19:00. Herrera.

**Emakumezkoak, kadete maila F8**
Arizmendi Aretx. - Ordizia
Zapatua. 11:00. Eskoriatza.
Arizmendi Arrasate - Urki
Zapatua. 09:30. Almen.
Urola - Aloña Mendi
Zapatua. 12:30. Zumarraga.

**Alebin maila, bigarren fasea**
Antiguoko -Bergara
Domeka. 10:30. Berio.
Aretxabaleta - Zumaiako
Domeka. 10:30. Ibarra.
Aloña Mendi - San Martzial
Domeka. 10:30. Ibarra.

**ARETO FUTBOLA**

**Nazional B maila**
Elorrioko - Eskoriatza
Zapatua. 18:45. Elorrio.

**Gazteen nazional maila**
Aloña Mendi - AD San Juan
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako liga**
Oiartzun - Aloña Mendi
Domeka. 11:00. Elorsoro.

**Hirugarren maila**
Anoeta G.A - UDA Mercedes
Zapatua. 16:30. Tolosa.

**Gazte maila**
Eskoriatza - Urnieta
Domeka. 11:00. Intxaurtxuet.

**SASKIBALOIA**

**Lehen maila**
Urdaneta - Mugarri Alkesa
Zapatua. 18:00. Loiu.

**Gipuzkoako ligako bigarren maila (emakumezkoak)**
Astigarraga - Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Intxaurtxue.

**Gipuzkoako ligako senior maila (gizonezkoak)**
Candy BKE - STL Egaña
Zapatua. 19:15. Labegaraiet.
Aloña Mendi - Irun Basket
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

**Gipuzkoako ligako senior maila (emakumezkoak)**
Aloña Mendi - Alde zaharra
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako ligako junior maila (gizonezkoak)**
Erroibide - Aloña Mendi
Zapatua. 19:30. Irun
Mugarri Alkesa - Zarautz
Zapatua. 12:00. Musakola.

**Gipuzkoako ligako junior maila (emakumezkoak)**
Bera Bera - Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Donostia.
Aldapeta - Eskoriatza
Zapatua. 09:30. Donostia.

**Gipuzkoako ligako kadete maila (gizonezkoak)**
Easo - Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Donostia.
Mugarri Alkesa - La Salle
Zapatua. 10:00. Musakola.

**Gipuzkoako ligako kadete maila (emakumezkoak)**
Eskoriatza - Carnicas SS
Zapatua. 16:00. Intxaurtxu.
Bergara - Bera Bera Anoeta
Zapatua. 16:00. Mariaren La.

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko kadete maila (emakumezkoak)**
Verkol Aloña-IES Construcc.
Zapatua. 19:15. Zubikoa.

**Euskadiko Txapelketara, igoera fasea**
Ford Mugarri - Gusla Urduliz
Zapatua. 18:45. Iturripe.

**Lehenengo eta bigarren territorial maila, Kopa**
Arrasate - Leizaran
Zapatua. 17:15. Iturripe.
Arrikrutz Oñati - Urola
Domeka. 12:00. Zubikoa.
Bergara - Donibane
Domeka. 12:30. Labeg.

**Gazte mailako Gipuzkoako Txapelketa**
OET BKL - Gatz Museoa
Domeka. 11:00. Ormaiztegi.
Usurbil - Aloña Mendi
Gaur. 18:30. Oiardo.
Gatz Museoa - Elgoibar
Zapatua. 15:30. Iturripe.
Aloña Mendi - Zarautz
Domeka. 10:30. Zubikoa.
Bergara - Usurbil
Domeka. 11:00. Labeg.

**Kadete mailako Udaberri Txapelketa**
Tecnomeca - Gatz Museoa
Domeka. 09:30. Elgoibar.

**Gipuzkoako kadete mailako azken fasea**
Urola Azti - Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Zumarraga.

**Emakumezkoen gazte mailako Udaberri Txapelketa**
Urola Premank - Bergara
Domeka. 10:00. Zarautz.

**ERRUGBIA**

**Euskal Liga, igoera fasea**
Arrasate - Mungia
Zapatua. 16:30. Garagartza.



**Arrasate Errugbi Taldeak Mungia hartuko du**
Egunotan egin duen euriarekin, egoera onean egongo da Garagartzako zelaia... Kikilduko ote dira Mungiakoak.

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# Mondrak eta UDAk joaneko derbian emandako ikuskizuna errepikatzen badute, nahiko

Mondrarendako derbia irabazteak garrantzi handiagoa du, baina UDA da puntu beharrean dagoena, goiko postuei begira dago-eta



**BERDINKETA** Zaleek derbi entretenigarriaz gozatu zuten Aretxabaletan. J.A.

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Denboraldiko azken derbia jokatuko dute bihar Mondrak eta Aretxabaletak Atxabalpen (16:30). Baina jokoan dauden hiru puntuak, oraingoan, UDAkoendako dira garrantzitsuagoak.

Aurreikuspenek diote Mondrak ez duela mailari eusteko arazorik izango (39 puntu dituzte); Gordobilen mutilek lasai lo egiteko nahikoa dute geratzen diren bederatzi norgehiagoketatik beste partidu bat edo bi irabaztea, baina ez daude horrekin arduratuta. Hori bai, ez dute askoz ere gehiago egiteko denborarik, sailkapenean ahalik eta gorenean amaitzea dute helburu. Mondrako jokalarien buruan, baina, badago beste asmo bat: Aretxabaletaren kontrako derbia irabaztea. Horrekin batera, Mondrakoek atzean utzi gura dute Atxabalpeko bolada txarra, etxean jokatutako azken bi partiduak galdu egin dituzte-eta. Egia esateko, hortxe dago sailkapenaren erdialdean egotearen arrazoia, aurten etxean makal ibili direla.

**UDA-K EZ DU AMORE EMAN GURA**

Aretxabaletakoendako ere norgehiagoka berezia izango da biharkoa. Baina derbi kontuetan baino gehiago, sailkapenean dute burua. Aloñaren eta Ordiziaren atzetik, UDAkoek ez dute amorerik eman gura, eta garesti saldu gura dute 3. mailarako txartela. Geratzen diren norgehiagokak irabazi, eta aurrekoen akatsen zain daude Felix Recioren mutilak. Ez dirudi, baina, Oñatikoek kale egiteko itxura dutenik. 10. postuan dagoen Hondarribiaren zelaira joango dira Oruetaren mutilak.

Gogoratu Ordiziak atzeratutako norgehiagoka bat duela, Mondraren kontra. Ibarreko beste bi taldeei mesede egin ahal izango die Arrasateko taldeak.

> URPEKARITZA

### Ksub taldeak ikastaroa emango du Musakolan

Open Water Diver hastapeneko urpekaritza ikastaroa emango dute apirilaren 20an hasita. Arlo teorikoa bost saiotan landuko dute, eta Musakolako igerilekuan eta Getarian egingo dituzte saio praktikoak. Interesatuek apirilaren 18a baino lehen eman behar dute izena, Musakolan bertan.

> PILOTA

### Arabako Txapelketako finalaurrekoak Aramaion

Gaur eta bihar jokatuko dituzte partidu horiek. Gaur (20:00), Ariznabarretak eta Armendarizek jokatuko dute lehenengo norgehiagoka; bigarren partidua, berriz, eskuz binakakoa izango da: Barberito VI.a eta Larramendi Bengoetxearen eta Gorritiren kontra. Bihar, berriz, 22:00etan hasiko da pilota jaialdia.

LAN ESKAINTZA

**Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak**

**KAZETARIA**

**behar du GOIENKARIAn lan egiteko.**

Baldintzak:
- Euskaraz jakitea.
- Idazten trebea izatea.

Baloratuko da:
- Kazetari titulua izatea.
- Idatzizko hedabideetan esperientzia izatea.
- Internet, ofimatika, QuarkXPress... erabiltzen jakitea.

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE
edo posta elektronikoz: admi@goiena.com

Curriculumak aurkezteko azken eguna:
**2006ko apirilaren 5a**

Goiena Komunikazio Zerbitzuak



**> AKORDEOI ORKESTRA**
Aretxabaletako taldeak diskoa grabatuko du **> 45**



**> SOULFLY JAM ARETOAN**
Max Cavaleraren taldeak Jamen joko du gaur **> 45**

**> BEÑAT ZAMALLOA**
Geldiezina da Beñat. Antzezle paperarekin lotzen dugu gehienok, baina gidoigile, zuzendari, irakasle eta bestelako zereginetan ere ikusi dugu **> 50**



# Auster-en azken nobela euskaratu du Oskar Aranak

*Brooklyn follies* urtarrilean kaleratu zen AEBetan. Ia aldi berean iritsi da orain gaztelaniaz, galizieraz, katalanez eta euskaraz

*Brooklyngo erokeriak* liburuaren 1.500 ale kaleratu ditu Alberdaniak, ohi baino gehiago

Coetzeeren *Lotsaizuna* ondoren, Oskar Aranak itzultzen duen bigarren eleberria da

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

*"Hiltzeko leku lasai baten bila nenbilen. Baten batek Brooklyn gomendatu zidan, eta, hala, hurrengo goizean hara abiatu nintzen Westchester-etik, tokia ikuskatzera. Baziren berrogeita hamasei urte ez nintzela hara itzuli, eta ez nintzen ezertaz ere gogoratzen".* Horrela hasten da Paul Austerren azken eleberria, baina euskarazko hitzak Oskar Aranarenak dira (Aramaio, 1969). Hark itzuli du *Brooklyngo erokeriak* (Alberdania argitaletxea).

**ERRONKA HANDIA**

Gaur egungo idazlerik irakurrienetakoa da Paul Auster. *Brooklyn follies* urtarrilean kaleratu zen AEBetan. Eta ia aldi berean iritsi dira orain gaztelaniazko, galizierazko, katalanezko eta euskarazko bertsioak. *Brooklyngo erokeriak* liburuaren 1.500 ale kaleratu ditu Alberdaniak, ohi baino gehiago.

Oskar Aranarentzat erronka handia izan da Auster itzultzea. Bi hilabete eskas izan ditu lan horretarako: "Argitaletxekoak urri aldera zuzendu ziren nigana, baina orduan beste lan batzuk nituen esku artean eta urtarrilean ekin nion. Lantokian baimena eskatu eta egunero zortzi orduz aritu naiz itzulpenarekin, burubelarri. Itzulpenetan zenbat eta denbora luzeagoa izan orrazteko eta hobetzeko, ba hobeto. Oraingoan ez dut izan nahi besteko denbora horretarako eta distantzia bat hartzeko. Hala ere, Inazio Muxika editoreak asko lagundu zidan eta gustura geratu naiz emaitzarekin. Orain irakurleek esan behar…", dio Aranak.

Aurretik ez zu"en Auster askorik ezagutzen: "Bere libururen bat irakurri nuen aspaldi, ez dut gogoratzen zein. Eta akordatzen naiz *Smoke* filma izugarri gustatu zitzaidala. Baina ez dut behar bezain beste ezagutzen haren lana". Itzulpena egiterakoan ere ez du Paul Austerrekin hartu-emanik izan: "Susmoa daukat hura gizon irekia dela, baina ez naiz ausartu, egia esan. Ez naiz saiatu ere egin, ezta posta elektronikoz ere. Igual konplexua ere bai, lotsa apur bat… Ingeles maila neurtuko zidan eta igual utzi ez itzultzen...". (Barre)

Liburu mardula da *Brooklyngo erokeriak*, 356 orrialdekoa. Hiztegien eta senaren laguntzarekin, pasarteka, batasuna duten unitateak hartuta itzultzen saiatzen da Arana. "Hori da metodorik onena. Pasarte bat bukatu eta etentxoa egitea, jarraian irakurri ahal izateko gero. Oraingoan, berriz, ez nuen denbora luzerik, eta hasi eta amaitu behar izan dut. Normalean esaldiak birritan berrikusten dituzu, era batera edo bestera jarri… Ordenagailuak behin eta berriz zuzentzeko aukera ematen dizu. Esaldi bakoitzarekin gustura geratu arte. Nire buruarekin zorrotza naiz, perfekzio-zale samarra. Alde horretatik motela, *lentua*... Baina idazlearen asmoari xehetasunetan antzematen diozu eta literatura xehetasun edo ñabardura barik ez da ezer". Hiztegiei dagokienez, hauek erabili ditu: Euskal Hiztegia eta Zehazki (Sarasolarenak biak), Elhuyar eta Hiztegia 3000; ingelesa-ingeleserako, Oxford concise (CD edizioa), Merriam

(44. orrialdean jarraitzen du)




**PAUL AUSTER EUSKARAZ** Oskar Arana itzultzailea, *Brooklyngo erokeriak* eskuetan duela.

## Auster-en azken nobela euskaratu du Oskar Aranak

(43. orrialdetik dator)
Webster (*on line*), Cambridge Unabridged (paperezko edizioa) eta, azkenik, Oxford (CD edizioa, ingelesa-espainiera).

**KONTATZAILE BIKAINA**
Biriketako minbiziari aurre egin behar dio Nathanek, liburuko protagonistak, bere haurtzaroko Brooklynen. Eta, hain zuzen, bakarrik dagoen Tom iloba eta Harry, Tomen ugazaba, dira hirukote protagonista osatzen dutenak.

Oskar Aranak azpimarratzen duenez, "lagunarteko hizkera, erregistroa da nagusi: beste erregistro jasoagoak erazagoak izaten dira itzultzeko, neutroagoak izaten direlako. Lagunarteko erregistroak zailtasunak ditu ñabarduretan, ironietan, hitz jokoetan… Alde horretatik lan dezente eman dit itzulpenak. Hala ere, ez nuke esango itzultzeko idazle zaila denik. Kontatzailea da eta kontakizunean guztiz trebea da Auster. Badauka doinu bat, estilo propio bat, baina oreka dauka kontakizunaren eta kontatzeko moduaren artean. Beste batzuk estilistagoak izaten dira, hizkuntzarekin jolasteko zaleak… Baliabide estilistikoak eta formalak kontakizunaren mesederako erabiltzen ditu Austerrek. Beste batzuk hizkuntzarekin maisuak dira eta estilo ariketak egiten dituzte istorio onik ez daukatelako. Aukeran, istorio onak kontatzen dituztenak nahiago ditut".

**BIZIPOZAREN ALDEKO ISTORIOA**
Aurreko eleberrietan istorio ilunagoak kontatu ditu Paul Austerrek. Oraingo hau alaiagoa, arinagoa, argiagoa dela diosku Aranak. "Hark nahita hala idatzi izan duen susmoa daukat. Arin asko irakurtzen da liburua eta ironia fina eta zorrotza dauka. Umorea ere bai. Asko gustatu zait alde horretatik… Pertsonaia tipoak edo ereduak erabili ditue-la irakurri dut kritikaren baten. Nik uste dut asmatu egin duela idazleak bere hasierako asmoa gauzatzeko orduan. Sakona izateko era asko dago; ez dago amodio istorio handirik, baina pertsonaien arteko amodio txikiak sakontasun handiz eta alaitasunez kontatuta daude. Badago apologia bat egoera mikatzen aurrean bizitzaren alderdi alaiei begiratzekoa. Bizipozaren eta afektu txikien aldeko istorioa da *Brooklyngo erokeriak*".

IDAZLE HANDIAK ITZULTZEN

## Idazle handien itzultzaile

Oskar Aranak Zuzenbide ikasketak egin zituen eta 2001eko otsaila ezkero HAEEn (IVAP) ari da lanean, Gasteizen. *Brooklyngo erokeriak* horren aurretik, Coetzee Nobel saridunaren *Lotsaizuna* (Elkar) itzuli zuen, Jokin Zaitegi bekari esker. Ekain aldera, berriz, *1984* Orwellen maisulanetako bat emango du argitara. "Egunerokotasun itzela duen liburua da. Orwellek asmatu egin zuen gizakien barruan eta gizartearen joera dinamiketan askatasuna itotzeko zein arrisku egon daitekeen azaltzean, boterearen gehiegikeriak eta manipulazioa erakustean. Gaurko gizartearekin paralelotasun asko dago", dio Aranak.



*Lotsaizuna*, Coetzee-rena.


BORROKA-ARTEA Musika eta dantza nahasten dituen mugimendu erritmikoz osatutako borroka-artea da capoeira. EZPELETA

**IKASTAROA** > ESKORIATZAN ETA ARRASATEN EGINGO DUTE ETA IZENEMATEA ZABALIK DAGO

# Capoeira erakustaldia eta ikastaroa asteburuan

Senzala taldekoekin batera Pedro Gatuno eta Julio Sanhaço irakasle brasildarrek hartuko dute parte erakustaldian, eta sarrera doan da

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE
Debagoieneko Senzala Euskadi taldeko kideek antolatuta, capoeira eta maculele erakustaldia izango da gaur, egubakoitza, Arrasateko 3.60 aretoan, gauerdian. Senzala taldekoekin batera, Pedro Gatuno eta Julio Sanhaço irakasle brasildarrek hartuko dute parte.

Esan bezala, capoeiraz gain, maculelearekin gozatzeko aukera izango dute bertaratuek: "Capoeirarekin gertatzen den antzera, maculeleari buruzko askotariko ideiak daude: batzuek diote Afrikatik datorren ospakizun dantza dela, besteek Brasilgo esklaboek sortutako dantza bat dela… Kontuak kontu, izugarrizko energia ematen duen dantza da, bi makilaren laguntzarekin egiten dena", diosku Igor Ezpeletak, Senzalako kideak.

**IKASTAROA GAUR ETA BIHAR**
Era berean, bi irakasle brasildarrek ikastaroa emango dute asteburuan: gaur Eskoriatzako pilotalekuan, 18:30etik 21:30era, eta bihar, zapatua, 16:30etik 20:30era, Arrasateko San Viator ikastetxean. Parte hartzeko interesa dutenek bertara azaldu baino ez dute egin behar. Prezioak hauek dira: egun bateko saioa 25 euro ikasle eta langabeendako (30 euro langileek) eta bi egunak, berriz, 35 euro (45 euro langileentzat).

Capoeirak gero eta jarraitzaile gehiago ditu gurean. Senzalak antolatutako ikastaroetan 30 lagun inguru dabiltza: Debagoieneko herri guztietakoak gainera. Eskoriatzan 5-12 urte bitartekoei zuzendutako ikastaroa hasi berri dute eta 10 bat neska-mutiko ari dira. Catherine Morrish eskoziarra dabil eskolak ematen, Kepa Azkue aretxabaletarraren laguntzarekin.

Ekainean, berriz, Euskal Herriko I. Capoeira Topaketa egingo da hilaren 22tik 26ra eta topalekuetako bat Aretxabaleta izango da. Argibideak: *www.goiena.net/blogak/capoeira*.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
ATE IREKIKO JARDUNALDIAK
2006-2007

| EGUNA | ORDUA | LEKUA | TITULUEN INGURUKO INFORMAZIOA |
|---|---|---|---|
| 2006.03.29 | 18:00 | 5001 | • Mekanizatze Bidezko Ekoizpena. • Proiektu Mekanikoen Garapena. • Industri Ekipoaren Mantenketa. |
| 2006.04.26 | 18:00 | 5001 | • Sistema Informatikoen Administrazioa. • Informatika-Aplikazioen Garapena • Telekomunikazio eta Informatika Sistemak. • Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak. |
| 2006.05.24 | 18:00 | 5001 | Guztiak |

• Eskola presentzialak tailer eta laborategietan parte-hartze praktiko altuarekin.
• Praktikak enpresetan (400 ordu).
• Enpresek ondo baloratutako tituluak.
• Lan-insertsio maila altua: >%98
• Mondragon Unibertsitateko 7 Ingeniaritza Teknikotan sarrera zuzena.



agorosabel@eps.mondragon.edu
Tel: 943 73 96 30
www.eps.mondragon.edu



**MUSIKA** > 19 AKORDEOI JOTZAILEK ETA HIRU PERKUSIO JOTZAILEK GRABATUKO DUTE DISKOA

# Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak diskoa grabatuko du

Akordeoi Orkestra diru premian dago, eta azken 14 urteotako lanaren bilduma grabatuko du, CD bat kaleratu eta salgai jartzeko

**IKER BARANDIARAN** > ARETXABALETA
Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak izen handia hartu du 14 urteko ibilbidean. Sari garrantzitsuak irabazi ditu Euskal Herrian zein nazioartean, eta uneoroko erronka berriak betetzen dabil.

Orkestraren lehenengo diskoa prestatzen dabiltza. Errepertorioa zehaztuta daukate, grabaketa egiteko Tx enpresarekin akordioa egin dute eta lekua zehaztea falta zaie. Zuzenean grabatzeko asmoa daukate, antzoki baten, hain zuzen ere. 19 akordeoi jotzailek eta hiru perkusio jotzailek grabatuko dute diskoa.

**FINANTZAKETA ARAZOEKIN**

Zuzendari Juanjo Orobengoak jakinarazi digu orain dela bi urte bira baten ez zizkietela gastuak ordaindu, eta galerak izan zituztela. Horrez gain, urtero jaietan txosna jartzen zuten, baina dagoeneko lokal hori ez dago eskuragarri. "Txosna hori zen gure finantzaketa iturri nagusia".

**ERREPERTORIO ZABALA**

Diskoak ordubete pasatxo iraungo du. Honako piezak aukeratu dituzte: Tomas Aragüesen *El triptico vasco* (euskal doinuak); Astor Piazzolaren *Violentango* (tango berritzailea); Gustav Holst-en *Marte* eta *Jupiter*; Adolf Götz-en *Danzas dalmatas* (Balkanetako folklorea); eta Hardimann-en *Lord of the dance*. Gustav Holsten piezak Aitor Furundarenak egokitu ditu eta orain arte ez ditu inork grabatu.

Diskoa kaleratu ostean, Galiziara joko dute txapelketa batera, eta 2007an Mexikora joateko gonbidapena jaso dute.



**GAZTEAK** Aretxabaletako akordeoilariek 14 eta 27 urte artean dituzte. GOIENKARIA

**MUSIKA** > SOULFLY TALDEAK KONTZERTUA ESKAINIKO DU GAUR

# Sepulturaren oinordekoak eta gaztelaniazko rocka Jamen

Max Cavaleraren Soulfly taldeak Brasilen ditu sustraiak

Gitarrek garrantzi handia dute Sonotonek egiten duen rockean

**I.B.** > BERGARA
Gaur, egubakoitza, Sepultura taldearen sortzaile Max Cavaleraren Soulflyk kontzertua egingo du Jam aretoan 20:00etan.

Brasilgo Sepultura izan zen metalaren mugak apurtu zituen taldea, eta Max Cavalerak zeresan handia izan zuen horretan. Baina 1996an taldea utzi eta Soulfly sortu zuenetik, Sepultura ez da gauza bera izan, eta Soulfly ere ez da inoiz Sepultura izan zenaren parean jarri. Hala ere, Brasilen sustraiak dituen metal indartsua egiten dute. Horrez gain, luxuzko gonbidatuak izango dituzte: metal berria gordintasunez plazaratzen duen XKRude talde andaluziarra, hain zuzen ere.

**STONES ETA LOS ENEMIGOS GOGOAN**

Zapatuan, berriz, Madrilgo Sonotones taldeak Rolling Stones eta Los Enemigos-en tankerako rocka egingo du gaztelaniaz. Sarreraren truke CDa opari egingo diote ikusle bakoitzari. 22:00etan hasiko da.

*GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA*
Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
*Boni Laskurain 3 BERGARA*
**943 76 35 71**
ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA



Zelulitisa eta mokor buelta kendu egin daitezke

Badira urte batzuk hanketan eta ipurmasailean zelulitisa daukadala eta mokor buelta ederra daukadala. Kendu egin nahiko nuke, posible ikusten baduzu, behintzat. Lotsa ematen dit joateak; hilabete baten gutxiago jan dut, baina ez dut ezer ere igarri. Zer egin dezaket? Mari Jose.

Mari Jose, gutxi janda ez duzu ezer lortuko; egin behar duzuna da ondo jan, elikadura zure beharretara egokitu. Zure kasuan TRATAMENDU espezifiko eta konkretua egin behar da. Gogoa izanda, ZURE ARAZOAREN ZATI HANDIENA KONPONDU DEZAKEGU. Jar zaitez nire eskuetan, zure gorputza ikertuko dugu lehenengo eta gero zure arazoari irtenbidea aurkituko diogu.

Zelulitisa eta mokor buelta kentzeko gutxi gora-beherako tratamendu bat aurreratuko dizut (dena dela, lehen esan bezala, tratamendu hori gutxi gorabeherakoa da).

Lehen urratsa: PISATU, NEURTU eta METABOLISMOaren proba bat egin zure gorputza zertaz osatuta dagoen jakiteko. Horrela, azken emaitza zein izan daitekeen jakin genezake.

Bigarren urratsa: zelulitis nukleoak eta koipea (hori baldin bada mokor buelta eragiten dizuna) DISOLBATU.

Hirugarren urratsa: aurrez disolbatutako hondakinak guztiz desagertzeko bide naturaletara ERAMAN (azala, pixa, kaka).

Laugarren urratsa: azala eta ehunak BERRINDARTU ondo egon daitezen.

Bosgarren urratsa: ESKUZKO DRAINATZE LINFATIKOA, hondakinak garraiatzen dituzten kanalak (LINFA) garbitzeko.

Prozesu hau egin ondoren koipe eta zelulitis geruza bat kendu dugu dagoeneko; ondoren, prozesua berriro egingo dugu, zuk nahi duzun emaitza lortu arte.

Ez dut aipatu ze aparailu eta produktu LIPOLITIKO erabiliko ditudan, koipearen eta zelulitisaren sakontasunaren araberakoa izango da-eta. Dena dela, tratamenduarekin aurrera goazen heinean aldaketak egingo ditugu aparailuetan eta tratamenduan.

**Giartzu Zentroaren lan ordutegia:**
Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 22:00etara jarraian
Larunbatetan: 10:00etatik 13:00etara (udaberriko ordutegia)



**Maria Isabel Hurtado**
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
- Duplexa. Masterreka. 180 m².
- Duplexa. Ortuibar. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 66 m². Oso ondo.
- Ibargarai 106 m². Oso ondo.
- Espoloia 156 m². Oso ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- K. Eleizalde 90 m² + teilatu azpia.
- S. Pedro 78 m². Ganbara. Berrituta.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- T. Aranzadi 140 m². Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Garajea.
- Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
- Fraiskozuri 104 m². Oso ondo.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Iparragirre 76 m². Ondo.
- Zubiaurre 80 m². Ondo.
- Artekale 74 m². Ondo.

Antzuola:
- Eguzki auzoa 84 m². Eguzkitsua.
- Duplexa. Erdialdea. Oso ondo.
- Sagasti 90 m². Eguzkitsua.

Elgeta:
- San Roke. Ondo.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

BERGARA:
- Bidekurutzeta 55 m². Oso ondo.
- San Anton Abad, 75 m². Oso ondo.
- Erdialdea 110 m². Oso ondo.
- Aranerreka 75 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
- Matxiategi 80m². Ondo.
- Martoko 60 m². Berritzeko.
- Ibargarai 106 m². Berria.
- Iparragirre 165 m². Berritzeko.
- Artekale 74 m². Ondo.
- Bolu 84 m². Oso ondo.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Martoko 45 m². Ondo.
- Simon Arrieta 89 m². Berritzeko.
- Ozaeta 74 m². Ondo.

ELGETA:
- 70 m². Berritzeko.

SORALUZE:
- Gipuzkoa etorb. 80 m². Oso ondo.

ANTZUOLA:
- Duplex berria erdialdean.

ENTORNOS INMOBILIARIOS URBANISTICOS
INMOBILIARIA
T:943 698404

BERGARA:
- 109m2 , 3 logela.
- 97 m2 ,3 logela, 2002. urtekoa
- 65 m2, 3 logela, 217.675 euro
- Duplexa,105 m2, 3 logela, garajea
- 82 m2, 3 logela, berrituta
- 104 m2, 4 logela, egongela haundia, 366.617 euro

ARETXABALETA
- 60 m2 , Berrituta, 2 logela,
- 85 m2, 3 logela, jantzita

ARASATE
- 109m2 , 4 logela, terraza,2 komun

ANTZUOLA
- 51 m2, 2 logela, berrituta, 167.000 euro
- 90 m2, 3 logela, terraza, 2002. urtekoa
- 77 m2, 4 logela, berrituta, 217.674 euro

ANGIOZAR
Baserria

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

DEBAGOIENA
Jatetxea-Taberna ematen da errentan ezin atenditzeagatik. Bezero propioak ditu.
675 23 30 65

ANTZUOLA
Zerbitzaria behar da astebukuetan lan egiteko.
630 03 51 84

ARAMAIO
Zerbitzaria behar da astebukuetan lan egiteko.
690 85 52 25

BERGARA
Esperientziadun zerbitzaria behar da egubakoitz gauetarako eta zapatu arratsaldeetarako eta gauetarako.
943 76 15 59 (Bittor)

ARETXABALETA
Zerbitzaria behar da jatetxe batean lan egiteko.
943 71 43 45

ANGIOZAR
Ortzi erretegia alokatzen da.
943 78 22 80
665 72 24 46

LORAMENDI KIROLAK
Neska bat behar dugu dendan lan egiteko.
Kirolaria eta arduratsua.
Euskaraz jakitea ezinbestekoa.
Interesatuok ekarri datuak
Arrasateko San Andresko dendara.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Angiozar.** Baserria salgai. 626 35 60 89.

**Antzuola.** Duplexa salgai. Eraikuntza berria. Garaje haundia. 666 72 47 12.

**Antzuola.** Etxebizitza ia berria. 90m2. Hiru gela, egongela-jangela, sukaldea, bi bainugela, hall, despentsa eta bi balkoi. Trastelekua. Erdi jantzita. Eguzkitsua. 665 70 97 14.

**Antzuola.** Sagasti auzoa. 90 m2. Hiru logela, bi balkoi. Garaje itxia. Erdi jantzia. 607 63 48 88 edo 630 51 78 05.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai. Ia berria (10 urte ditu). 85 metro koadro. Hiru logela, egongela-jangela, bi komun, bi autorendako garajea eta trastelekua. 635 75 13 66.

**Arrasate.** Erdiko kalean. Ekonomikoa. 659 59 71 21.

**Arrasate.** Etxea salgai. Prezioa negoziagarria. 649 55 48 10.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Zerrajera kalean. 110 metro koadro. Hego-mendebaldera begira. Bi garaje ditu. 660 70 13 80.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. 60 metro koadro. Bi logela, sukaldea, egongela, komuna, bi balkoi eta ganbara. Berritua. 639 84 71 73.

**Arrasate.** Uribarri kalea. Hiru logela. Bi bainugela. Jantzia. 625 47 61 62.

**Bergara.** 75 metro koadro. Hiru logela, egongela terrazarekin, komuna eta sukaldea. Txokoa eta bi aparkaleku ere baditu. 600 46 58 02.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Cruz Gallastegi kalean. Eraikin berria. 39 metro koadro. Trastelekua eta garajea ditu. 605 77 54 89.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Martokon. 93 m2. Egongela, hiru logela, sukaldea, komuna eta ganbara. Gela guztiek kanpora ematen dute. 619 28 60 32 edo 943 76 52 86.

**Bergara.** Koldo Eleizalden: hiru gela, bi komun, kalefakzioa, garajea eta trastelekua. Eguzkitsua. Bista ederrak ditu. 943 76 27 68 edo 655 72 04 12.

**Bergara.** Martokon etxea salgai. 83 metro koadro. Guztiz berritua eta jantzia, altzariekin. Berogailua, igogailua eta trastelekua ditu. 619 28 37 93 edo 661 80 00 46.

**Bergara.** Mugertza kalean. Hiru logela eta oso eguzkitsua. Berritzeke. 651 70 81 70.

**Bergara.** Zabalotegin 79 m2-ko etxea salgai. Gela guztiek kanpora ematen dute. Oso eguzkitsua. Lau logela. Egongela handia. 675 70 79 54.

**Elgeta.** Bi gela, egongela, sukaldea, bainugela eta ganbara. Igogailua ere badu. Prezio ona. 645 71 76 25.

**Legazpi.** 105 m2. Ganbara. Igogailua. Berogailua. Gela guztiek kanpora ematen dute. 680 44 91 60.

**Oñati.** Atzeko kalean. Sukaldea, lau logela, egongela, bi bainugela. Etxe agentziok ez deitu. Telefonoa: 646 95 80 62 edo 943 78 06 72.

### 102. EROSI

**Antzuola-Bergara.** Baserria erosiko nuke. 676 20 74 35 edo 620 61 07 24.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Ferrerias kalean. Hiru logela, sukaldea, bainugela eta egongela ditu. 629 50 76 40.

**Arrasate.** Unibertsitatetik gertu. Hiru logela. 652 77 13 77.

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan. Hondartzatik gertu. Guztiz jantzia. 630 41 84 65.

**Cambrils.** Apartamentua ematen da errentan. Hondartzatik gertu. Igerilekua eta lorategia ditu. 610 79 47 29.

**Capbreton (Landak).** Homemobile bat errentan ematen da. Bi logela dauzka. Hondartzatik gertu. Guztiz jantzita, terraza eta lorategia. Aste Santurako, Pazko asterako eta udarako. Ekonomikoa. La Civelle campinga (3 izar). 665 73 40 09 edo 943 77 18 49.

**Costa Sancti Petri-Chiclana** (Cadiz). Apartamentua errentan, La Barrosa hondartzatik oso-oso gertu. Deitu gauez. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**Vera (Almería).** Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza alokatzen da. Guztiz jantzita. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan. 665 70 10 57.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Oskar. 651 59 64 55.

**Arrasate.** Logela bat alokatzen da. Sukaldea erabiltzeko aukera. 400 euro hilean. Dorleta. 696 11 01 94.

### 106. BESTELAKOAK

**Arrasate.** Pablo Uranga kalean logela bat ematen da errentan. Iñigo. 675 71 57 03.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia saldu edo emango nuke errentan. Erdialdean. Ekonomikoa. 685 72 16 52 edo 943 77 18 49.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Garaje itxia ematen da errentan. Erdialdean. 609 76 16 86.

**Arrasate.** Arimazubi plazan. Garaje bikoitza. Iñigo. 675 71 57 03.

**Bergara.** Ibargarai kalean garajea ematen dut errentan. Nerea. 678 36 23 57.

**Bergara.** Ibargarai kalean. 18 m2. 943 76 37 09.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Garajea hartuko nuke errentan. 699 92 18 60.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxe batean lan egiteko 07:00etatik 10:30era. Euskaraz jakitea baloratu egingo da. 943 03 89 23 edo 615 77 05 18.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu umeak edo adineko pertsonak zaintzeko. Telefonoa: 659 82 85 18.

**Arrasate.** Emakume euskalduna umeak edo adineko pertsonak zaintzeko gertu. 659 82 75 18.

**Atariak** eta bestelakoak garbituko nituzke. Bergara eta inguruan. 675 70 89 38.

**Bergara.** Bi neska gertu daude denetariko lanak egiteko: garbiketa, etxeko lanak, nagusiak zaindu, tabernetan... 659 84 72 92 edo 605 70 63 82.

**Debagoiena.** Emakume bat taberna edo jatetxe baten lan egiteko gertu. Esperientzia. 676 87 99 48.

**Debagoiena.** Emakumea gertu adinekoak zaintzeko (baita gauez ere) edo garbiketa lanak egiteko. Estela. 650 00 58 88.

**Debagoiena.** Etxeko lanak egin eta haurrak edo nagusiak zaintzeko gertu. Daysi. 699 75 72 02.

**Debagoiena.** Haurrak edota pertsona nagusiak zainduko nituzke. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. 699 75 72 02.

**Hiru emakume** gertu daude pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo zerbitzari jarduteko. 686 56 42 63 edo 690 84 72 92.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Gaztelaniazko eskolak hartuko nituzke zapatu arratsaldeetan. Nina. 690 37 75 63.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeles eskolak ematen dira. 943 79 03 83.

**Aretxabaleta.** Ingeles eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

**Arrasate.** DBH eta OHOko eskolak ematen ditut. 619 88 07 79.

**Bergara.** DBHko eskola partikularrak ematen ditut. 675 70 17 63.

**Bergara** Neska euskalduna prest umeak zaintzeko, astelehenetik eguenera, goizez edo arratsaldez. 647 09 26 16.

**Goi mailako** ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu.

Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, elektrizitatea... Maila guztiak. Esperientzia handia. 630 71 35 83.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**BMW 318 I** autoa salgai. 145 ZP. Bilstein motelgailuak. Ihes-hodi eta errubera berriak. Aire-zakua, aire girogailua, ispilu elektrikoak eta termikoak. 8.000 euro. 635 71 04 55.

**Ford Escort.** Kolore zuria, SS-AC matrikuladuna. 600 euro. Ondo zaindua. 943 78 17 14.

**Gas Gas** motorra salgai. 250 cm3. 2002koa. Matrikulatua. Egoera onean. 2.800 euro. 669 50 03 89.

**Golf** IV 1.4 16 v autoa salgai. 47.000 kilometro ditu. 680 23 72 30.

**Mercedes** Vito 112 salgai. 68.000 Km. 620 17 80 47.

**Opel Corsa DTI.** 30.000 km. Aire-egokitu, CDa... 665 74 91 28.

**Opel Corsa** 1.7 DI autoa. 2002. urtekoa. 6.300 euro. (Juan Luis). 637 83 76 64.

**Opel Corsa** autoa salgai. 600 euro. 943 71 50 72.

**Opel** Astra familiarra. 1.7 TD. 85 ZP. 1994koa. Osagarriak. 2.500 euro. Egoera onean. Telefonoa: 615 73 33 20.

**Renault** Scenic Fairway autoa salgai. 1.4. 95 ZP. 2002koa. Oso egoera onean. Familientzat egokia. 653 70 62 17.

**Rieju RR** motor urdina salgai. Tailerrean egon berria. 686 67 97 01.

**Toyota Celica** 1600 STI autoa salgai. 130 ZP. Koni motelgailuak. 2.500 euro. 635 71 04 55.

### 602. EROSI

**Ford** Focus (1. belaunaldia) beltza erosiko nuke. 645 72 25 24.

### 603. ALOKATU

**Autokarabana.** Sei lagunendakoa. Egokitua. Ismael. 658 72 11 49 edo 657 79 09 58.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Garbigailua** salgai. Goiko aldetik sartzen da arropa. Egoera onean. 635 75 35 29.

**Gurpil bi salgai.** Errepideko bizikletentzako, Mavic Cosmos markakoak. Ondo daude. 661 33 85 63.

**Gurpil-azalak** salgai. Peugeot 205 autoarendako. 17565R13E58 erreferentzia. Berri-berriak. 686 67 97 01.

**Moto-kroserako** peto osoa salgai. Hebo marka. M neurria. 110 euro. 645 72 25 24.

**Motozerra,** ardiei ilea mozteko makina eta ortua lantzeko makina salgai. Still markakoak. 652 70 01 19.

**Solarium** horizontala salgai. Prezio interesgarria. 15:00etatik 22:00etara deitu. Telefonoa: 943 79 18 36.

### 802. EROSI

**Bankuko billete eta txanpon** zaharrak erosten ditut. 945 44 50 44.

**Bizikleta.** Errepideko bizikleta erosiko nuke, oso zaharra ez dena eta egoera onean dagoena. 670 26 34 01.

### 806. GALDU

**Urkulu** edo Arrasateko San Andres auzo inguruan sakeleko telefonoa galdu dut, artilezko funda batean bilduta zegoena. Aurkituko bazenu, MESEDEZ, Arrasateko Udalean utzi tarjeta eta funda, besterik ez bada. Garrantzia handiko kontua da. Mila esker.



Garbi S.L.
PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
649 84 67 09 (BERGARA)
943 33 18 37 (HERNANI)

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

ENPRESAK SORTZEKO ON-LINE IKASTAROA

HELBURUAK
- Pertsona ekintzaileak trebatzea, euren enpresa ideia aztertu ahal izateko.
- Nork bere enpresa sortzeko beharrezko ezagutzak eskaintzea.

EDUKIAK
- Sustatzailea eta ideia.
- Merkatuaren azterketa.
- Enpresaren bilakaera. AMIA analisia.
- Estrategiak.
- MIX marketineko estrategiak.
- Antolakuntza eta giza baliabideak.
- Legeztatzea eta abiaraztea.
- Bideragarritasun finantzarioaren azterketa.

NORENTZAT
Hainbat arrazoirengatik, bertaratzea eskatzen duten ikastaroetara joateko zailtasunak dituzten enpresa-sustatzaileentzat.

BALDINTZAK
Ordenagailu pertsonala eta Interneterako konexioa edukitzea.

HASIERA ETA AMAIERA DATAK
Kurtsoa 2006ko apirilaren 3an hasiko da eta ekainaren 25ean bukatu.

IZENEMATEA
Doan
**Tel.: 943 79 30 90**
Debagoieneko Mankomunitatea-Garapen Ekonomikorako Agentzia www.debagoiena.com

EUROPAR BATASUNA
Europako gizarte fondoa
Garapen
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

Inguralderen laguntzarekin

KOMUNIKAZIO ENPRESA BATEK ERREDAKZIO-BURUA ETA KOMERTZIALA BEHAR DITU

ESKATZEN DA
- Euskaraz ondo jakitea.
- Dagokion arloan gutxienez 2 urteko esperientzia.
- Autoa eta gidabaimena.

BALORATUKO DA
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Euskarazko tokiko hedabideen ezagutza.
- Arloko ezagutza akademikoak.

Curriculuma honako helbidera bidali martxoaren 31 baino lehen:
Herri komunikabideak Koop. Elk.
Erreferentzia: (lanpostuaren izena)
Arlozabal 8 bis, 1-C
48220 Abadiño
herri.komunikabideak@topagunea.com
Informazio zabalagoa: 94 621 57 80



**Javi Gil** eta **Angel Irure** gaur, martxoak 24, ezkonduko dira Aretxabaletako udaletxean. Gero Baster-alde jatetxean egingo dute afaria lagun eta senideekin. "Zorionak eta desiorik onenak zuentzat, Aralarreko lagunen partetik. Eutsi zuen ausardiari, umoreari eta bizi-pozari".

## hildakoak

- **Benito Lizarralde Urkia.** Oñatin, martxoaren 16an. 82 urte.
- **Margarita Elortza Azkoaga .** Bergaran, martxoaren 16an. 88 urte.
- **Juliana Bilbatua Elortza.** Elgeta, martxoaren 18an. 78 urte.
- **Esperanza Blazquez Nuñez.** Arrasaten, martxoaren 19an. 83 urte.
- **Mari Paz Urtatza Villar.** Oñatin, martxoaren 19an. 73 urte.
- **Ines Hidalgo Trejo.** Arrasaten, martxoaren 19an. 52 urte.
- **Maria Santos Gonzalez Gomez.** Arrasaten, martxoaren 21ean. 81 urte.
- **Soledad Fernandez Vidales.** Aretxabaletan, martxoaren 21ean. 91 urte.
- **Bizenta Bengoa Goitia.** Oñatin, martxoaren 22an. 87 urte.

URTEURRENA

## Antonio Etxezarreta Etxeberria

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 26an, 11:30ean, Antzuolako Errukizko Amaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Rafaela Etxaurre Zeziaga

Karlos Errasti Larrañagaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilaren 2an, 12:00etan, Arrasateko Uribarriko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Felix Trojaola Jauregi

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 26an, 12:00etan, Arrasateko Gesalibarko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Avelina Larrad Crespo

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 26an, 12:30ean, Arrasateko parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Encarna Chinchurreta Goenaga

Lehen urteurreneko meza zapatuan, martxoaren 25ean, 19:00etan, Mikel Goiaingeruaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Aritz Azpiazu Bengoa

Lehen urteurreneko meza zapatuan, martxoaren 25ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

MEZA

## Lucia Barandalla Lopez

Antzin (Nafarroa) hil zen 2006ko martxoaren 2an, 77 urte zituela.

Bere aldeko meza zapatuan, martxoaren 25ean, 20:00etan, Bergarako San Lorentzoko ermitan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Tomas Lasa Diaz de Mendibil

Gasteizcn hil zen 2006ko martxoaren 12an, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko martxoaren 24an.

ESKER ONA

## Roman Elkoro-iribe Lazpiur

Donostian hil zen 2006ko martxoaren 15ean, 77 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko martxoaren 24an.

ESKER ONA

## Margarita Elorza Azkoaga

Pedro Mujikaren alarguna

Bergaran hil zen 2006ko martxoaren 16an, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko martxoaren 24an.



Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAren ordezkaritzetako batera.

GOIENKARIA

Astero 18.500 etxetan.

Eskelen prezioa: 85 €.

## bila bila 7





## hitz gezidunak



Talka, topekada
Igandea (bizkaieraz)
Adore handiko
IRUDIKO HERRIA
Karrikak
Karranka
Arrisku
Bat-batean, supituki
Elementu kimikoa
Joz, jotzen
Ordu, garai
Abesti
Daude
Pare bat
Kolpearen onomatopeia
Panpox, lirain
Iparretarrak
Garoa, iratzea
Ez eme
Zalantza partikula
Objektu, zer
Itsas ugaztuna
Area
Suitzako ibaia

LUMA



## umore giroan

Kike Amonarriz

### Hauteskundeak Korsikan

Korsikako kostaldeko hiri ederrenetako bat da Solenzara eta gaur, uharte guztian bezala, hauteskunde eguna da bertan.

Korsikan ohikoa den legez, arratsaldeko 7etan itxiko dira hauteskunde-mahaiak. Laster jakingo dira emaitzak.

Segundo batzuk besterik ez da falta zazpiak jotzeko. Une horretan, Pasquale estu eta larri sartu da berari dagokion hauteskunde-mahaia dagoen eskolara, boza emateko asmoz:

- Beranduegi al da botoa emateko? —galdetu dio mahaiko presidenteari—.

- Hori... Nori eman behar diozun botoa...

## sudoku

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 9 | | | | 2 | 8 | |
| 4 | | | | 8 | 1 | | | 5 |
| 8 | | 3 | | | | | | 4 |
| 5 | 6 | | | | 3 | | | |
| | | | 1 | 6 | 4 | | | |
| | | | 2 | | | | 1 | 7 |
| 2 | | | | | | 5 | | 6 |
| 6 | | | 7 | 4 | | | | 2 |
| | 4 | 5 | | | | 8 | | |

## jeroglifikoa

Jolasean




## hizki salda

Athletic-eko bost jokalari

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I | S | T | U | L | E | A | T | Y |
| R | O | L | O | D | A | M | E | E |
| A | S | U | R | Z | A | I | Z | K |
| D | U | L | B | A | N | A | R | T |
| A | L | K | A | R | A | N | K | A |
| D | I | D | I | R | A | O | L | A |
| R | E | M | Z | E | T | S | E | Y |
| I | T | U | R | R | B | A | L | A |
| M | E | L | U | K | A | L | K | M |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | | T | | H | | K |
| | | | D | O | M | E | K | A |
| | | | | P | E | R | I | L |
| | S | | T | E | N | O | R | E |
| J | O | K | A | | D | I | R | A |
| | D | A | N | B | A | | I | K |
| P | I | N | P | I | R | I | N | |
| | O | T | E | | O | R | K | A |
| G | A | U | Z | A | | A | A | R |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 5 | 9 | 4 | 3 | 6 | 2 | 8 | 1 |
| 4 | 2 | 6 | 9 | 8 | 1 | 7 | 3 | 5 |
| 8 | 1 | 3 | 5 | 2 | 7 | 9 | 6 | 4 |
| 5 | 6 | 1 | 8 | 7 | 3 | 4 | 2 | 9 |
| 9 | 7 | 2 | 1 | 6 | 4 | 3 | 5 | 8 |
| 3 | 8 | 4 | 2 | 5 | 9 | 6 | 1 | 7 |
| 2 | 9 | 7 | 3 | 1 | 8 | 5 | 4 | 6 |
| 6 | 3 | 8 | 7 | 4 | 5 | 1 | 9 | 2 |
| 1 | 4 | 5 | 6 | 9 | 2 | 8 | 7 | 3 |

**Jeroglifikoa:** Pilotan.
Pi lotan


| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I | S | T | U | L | E | A | T | Y |
| R | O | L | O | D | A | M | E | E |
| A | S | U | R | Z | A | I | Z | K |
| D | U | L | B | A | N | A | R | T |
| A | L | K | A | R | A | N | K | A |
| D | I | D | I | R | A | O | L | A |
| R | E | M | Z | E | T | S | E | Y |
| I | T | U | R | R | B | A | L | A |
| M | E | L | U | K | A | L | K | M |


## bono fotoa



## Galdera: Zein auzotan dago Debagoieneko Ospitalea?

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta.

Super BM

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA ..........................................................
..........................................................
IZEN-DEITURAK ..........................................................
TELEFONOA..........................................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**San Miguel garagardoa**
33 cl-ko lata

**0,43 €** 72 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**
**ANDER ARETXAGA**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
**Galderaren erantzun zuzena: Kurtzebaltz.**

# Tailer eta zerbitzu teknikoa

- Mekanika / Karrozeria
- Autoak eskuz eta kanpotik zein barrutik garbitzeko zerbitzua
- Esku libreko kita (Bluetooth) 175 €-tik aurrera (BEZa eta kitaren jartze lanak barne)

**Astelehenetik ostiralera**
08:00-13:00 / 15:00-19:00

**Zapatuetan zerbitzu berria (aurrez deituta)**
- Enpresa eta langile autonomoei bideratutako mantentze-lan zerbitzua

Zure moduko batek bakarrik
izan ditzake horrelako eskaintzak.
**Hilabete honetan:**

CITROËN BERLINGO **8.160€*** TIK AURRERA+BEZa
PREVER PLANA BARNE

CITROËN JUMPY DESDE **11.440€*** TIK AURRERA+BEZa
PREVER PLANA BARNE

CITROËN JUMPER DESDE **12.700€*** TIK AURRERA+BEZa
PREVER PLANA BARNE




*BEZik gabeko salneurri gomendatua (garraioa, eskaintza promozionala eta Prever Plana barne). Eskaintza ez metagarriak. Hil amaiera arte baliagarria stockean dauden automobilentzat. Penintsula eta Balear Uharteetako bezero partikularrentzat. Operazioan parte hartzen duten saltokietan baliagarria. Argazkietan aurkeztutako modeloa: Belingo Multivolumen, Jumpy Combi Club eta Jumper Combi Club.

www.citroen.es
Citroën Informazioa: 902 44 55 66

ETOR ZAITEZ:

**TALLERES CHAPIME S.C.L.** Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala.
San Andres Auzoa 5 – Tel.: 943 79 45 22 ARRASATE

CITROËN


# Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

## ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

## BIDEO EKOIZPENAK

**ISLADA MULTIMEDIA**
BERGARA / Telleria 17 A05 (Labegaraieta ind.)
T/F: 943 76 33 56
islada@isladamedia.com

## AHOLKULARITZAK

**AIERDI AHOLKULARITZA**
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

## ARKITEKTO TEKNIKOAK

**DORLETA EGUIARA FDEZ-RIVERA**
ARRASATE / Arrasate Pasealekua 16 - 1D
T: 636 38 69 87 / 943 79 58 80
deguiara@yahoo.es

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

**JUAN MARI OSINAGA**
ARRASATE / Zerkaosteta 17, behea
T: 943 79 67 78
F: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

## ASEGURUAK

**GOIENA ASEGURU ARTEKARITZA**
ARRASATE / Antso Abarca 6
T: 943 79 59 81
BERGARA / Zurradero 2
T: 943 76 97 65

## DISEINU GRAFIKOA

**ISLADA MULTIMEDIA**
BERGARA / Telleria 17 A05 (Labegaraieta ind.)
T/F: 943 76 33 56
islada@isladamedia.com

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgoe@telefonica.net

## GESTORIAK

**EGUREN**
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

## PROKURADOREAK

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

**Beñat Zamalloa** > Antzezlea

# "Ikastaro baten jenderik ez zutelako hasi nintzen, eta ordutik hona dihardut"

Beñat Zamalloa geldiezina da. Bere burua esparru zehatz baten lerrokatuta egon ez dadin eta denetatik probatu gura duenez, hainbat gauza egiten dihardu. Antzezle paperarekin lotzen dugu gehienok, baina gidoigile, zuzendari, irakasle eta bestelako zereginetan ere ikusi dugu. Daukan pasio handiena ikus-entzunezkoak eta kazetaritza dira.

**IKER BARANDIARAN** > ARETXABALETA

**Beñat Zamalloa aretxabaletarra antzerkian murgildu zen orain dela urte gutxi eta dagoeneko hainbat lanetan esku hartu du. Hala ere, bere pasio nagusiak kazetaritza eta ikus-entzunezkoak dira, eta horiek ikasten dihardu. Edozelan ere, ez du bere burua gauza bakarrean kokatu gura, eta hainbat saltsatan sartuta dabil.**

**Txikitan zer izan gura zenuen?**

Ume guztien antzera. Dentista, mediku, kazetari..., momentuaren arabera. Baina kazetaritza eta ikus-entzunezkoak beti izan dira nire pasioak.

**Antzerkigintza ere oso gustuko daukazu...**

Bai, baina orain dela gutxi konturatu nintzen, oharkabean, ikastaro baten hasi nintzenean. Ez neukan asmorik, baina jendea behar zuten eta izena eman nuen. Oso gustura ibili nintzen Jurgi Etxeberria irakaslearekin, eta ordutik hona ez dut antzerkia utzi. Azken hiru urteotan Euskararen Egunean ikuskizunak egin ditugu, gidoiak idazten dihardugu...

**Antzerkiaren gainean ikasten jarraitu duzu?**

Aurreko ikuskizuna egin ondoren, nahiz eta gustura gelditu, konturatu ginen hainbat gauza ikasi eta aldatu behar genituela. Hortaz, hiru liburu erosi nituen gai hauek lantzeko: ahotsa, gorputz espresioa eta nerbioak. Horrez gain, sarritan antzezlanak ikustera joaten naiz lagunekin, eta asko ikasten dugu.

**Trikimailu taldearekin herrian lan handia egiten dihardezue antzerkiaren alde...**

Ahalegina egiten dugu. Azken hiru Euskararen Eguneko herribazkarietan Aretxabaletarekin lotutako ikuskizunak egin ditugu, gutaz eta herriko kontuez barre egiteko. Horrez gain, *Singing euripean* antzezlana sortu eta lau alditan eskaini genuen. Trikimailu hainbat lagunek osatzen dugu, eta talde irekia da.

**Beti Aretxabaletan bizi izan zara?**

Beti, joan den ikasturtean izan ezik. Bilbora jo nuen Kimika Ingeniaritza ikastera. Ordurako oso gustuko nituen kazetaritza eta ikus-entzunezkoak, baina pentsatu nuen ikasketa horiek geroago egingo nituela. Kontua da ez nuela ingeniaritza ikasteko motibaziorik izan, eta uztea erabaki nuen. Hala ere, oso esperientzia berezia izan zen Bilbon bizi izatea, ahaztezina.









IKER BARANDIARAN

PERTSONALA

**Herrria:** Aretxabaleta. **Adina:** 20 urte. **Ikasketak:** Ikus-entzunezkoen komunikazioa. **Zaletasunak:** Antzerkia eta mendia. **Zelan ikusten duzu zure burua 30 urte barru?** Pozik, gauza asko probatuta eta gehiago probatzeko gogoarekin. **Zer gorroto duzu?** Traizioa eta gezurra. **Gizateriaren aurrerapen handiena?** Komunikazioa, nahiz eta galtzen doan. **Jendea harrituta uzten dut...** Hasieran serioa naizela uste dutelako, eta baita alderantziz ere. **Aktore bat?** Candido Uranga. **Ikasgai gustukoena?** Harreman publikoa.

**Eta zer da Aretxabaletak daukan onena eta txarrena?**

Daukan onena aretxabaletarrak dira. Niri, adibidez, ingurukoek asko lagundu didate bultzatu ditudan proiektuetan. Inoiz entzun dut aretxabaletarrak ez direla kanpora irteten, baina ez da egia. Egia da, berriz, kanpotarrendako itxi samarrak garela.

Herriak daukan txarrena da kultura arloan gabezia izugarria daukala. Herriak ez dauka erreferenterik, eta, adibidez, aproposa izan daiteke Elgetak egin duen moduan kultura indartzea.

Udalak arriskatu egin beharko luke, dirua gastatu beharko luke kultura eskaintza ona eta desberdina ekartzen.

**Orain dela gutxi antzerki tailerra ematen hasi zara...**

Bai.Entzun genuen gazte batzuek antzerkia ikasi gura zutela, eta justu Euskararen Eguneko ikuskizunerako ere behar dugu jendea. Hortaz, deialdia egin eta lanean hasi ginen. Nik 16 urtetik gorako ikasleak dauzkat taldean, eta oinarrizkoena irakatsi gura diet.

**Zer moduz HUHEZIn ikus-entzunezkoak ikasten?**

Oso ondo. Lehenengo mailan nabil. Asko ikasten nabil eta oraindik asko daukat ikasteko. Gainera, irakasle batzuk oso onak dira.

**Eta ikus-entzunezkoen alorrean non ikusten duzu zure burua lanean?**

Telebistan kamera aurrean ez dut nire burua ikusten, baina zeinek daki! Irratian goizetan oso gustura egingo nuke lan. Nik egunero pizten dut irratia jaikitzen naizenean eta uste dut une oso berezia dela. Hala ere, telebistan, irratian, prentsan... Horietako edozeinetan egingo nuke lan gustura.

**Eta dagoeneko hasi zara lanean, ezta?**

Bai, Arizmendin komunikazio lana egiteko eskaintza egin zidaten, eta baiezkoa eman nien. Asko ikasten nabil, eta enpresa arloa niretzat berria da. Hala ere, bulego lana da.

**Atzegirendako film labur baten ere lan egin duzu...**

Bai, baina ez naiz gustura gelditu emaitzarekin.




**AURPEGI EZAGUNAK** Helena Resano, Mamen Mendizabal eta El Gran Wyoming dira aurkezleetako batzuk. GOIENKARIA

**TELEBISTA** > HASIERAN, EZ DA DEBAGOIENEAN IKUSIKO

# La Sexta: astelehenean hasiko ditu emisioak telebista kate berriak

Argiñanoren Bainet TV produkzio-etxea da bazkideetako bat; Globomedia, Mediapro, El Terrat, Drive ekoizpen-etxeak eta Mexikoko Televisa ere tartean dira

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

La Sexta telebista kate berriaren emisioak hasiko dira astelehenean, martxoaren 27an. Eva Argiñano izango da pantailan azaldu-ko den lehen aurpegia, 13:00etan. Hain zuzen ere, Karlos Argiñanoren Bainet TV produkzio-etxea da kate berriaren bazkideetako bat; Globomedia, Mediapro, El Terrat, Drive produkzio-etxeak eta Mexikoko Televisa ere tartean dira. Emilo Aragon da La Sextako presidentea.

Oraindik ere programazioa guztiz osatzeke dago. Jose Miguel Contreras La Sextako kontseilari delegatuaren arabera, 2006ko bigarren sei hilabetekoan zehar saio berriak etorriko dira: "Informatiboen eta Espainiako telesailen aldeko apustu garbia egingo dugu aurrerago. Telesailetako batzuk martxan dira, baina hurrengo hilabeteotan joango dira ateratzen".

**AURPEGI EZAGUN MORDOA**

La Sextako bazkideek 491 milioi euroko inbertsioa egingo dute 2010. urtea bitartean. Hasiera baten, Espainiako Estatuko lurraldearen %30era iritsiko da eta handitzen joango da portzentaje hori, gehienez, lizentzia ematean zehazten den %70era iritsi arte. 20 milioi euro inbertituko dituzte hedapen txikiko tokietan antenak egokitzeko.

La Sextako aurpegiei dagokienez, informatiboak Mamen Mendizabalek eta Helena Resanok gidatuko dituzte; Olga Vizak elkarrizketa saio bat egingo du eta El Gran Wyoming, Florentino Fernandez eta Patricia Condek umorezko saioen ardura izango dute.

**AEB-ETAKO TELESAILAK**

AEBetako telesailak (*Surface*, *Ley y orden* edota *Los Soprano*) dira programazioaren oinarrietako bat eta ekainean Munduko Futbol Txapelketako partiduak eskainiko dituzte. Bestalde, *prime-time* delakoa 22:00etatik 21:00etara aurreratuko dute. Horrela, 23:00etara bitartean eguneroko eskaintza haurrek eta nagusiek ikusi ahal izatea da helburua. *www.lasexta.com*

## teknologia berriak

> ARGAZKILARITZA

### Edozein lekutan gordetzeko eta bidaietan erabiltzeko moduko diapositiba proiektorea

Panasonic etxeko PT-P1SD proiektore berria benetan arina da: kilo bat eta 300 gramo besterik ez du pisatzen. Edozein lekutan gordetzeko modukoa eta bidaietan erabiltzeko aproposa.

Diapositibak erakuts ditzake SD txartelak erabilita eta aurkezpenak egiteko PCa ez da derrigorrezkoa. Pantailaren bereizmena 800x600 pixelekoa da eta bereizmen handiko irudiak ere trata ditzake. Lanparak 1.500 lumeneko distira dauka.



Panasonic etxeko PT-P1SD proiektore berria benetan arina da: kilo bat eta 300 gramo.

> TELEBISTA

### Hitachi etxearen telebista berriak gehienezko kalitatea: 1.080 pixeleko bereizmena

Historikoki, Munduko Futbol Txapelketa hurbiltzen den bakoitzean, hainbat markak produktu berriak ateratzen dituzte, salmentek gora egingo duten itxaropenarekin.

Hitachi etxearen 42PD9700 pantaila 42 hazbetekoa da eta 1.080 pixeleko bereizmena eskaintzen du. Urtean zehar helduko diren Blu-Ray eta HD-DVD diskoekin lor daitekeen gehienezko kalitatea da Hitachi etxeak eskaintzen duena.



Hitachi etxearen 42PD9700 pantaila 42 hazbetekoa da.

> BIDEOA

### Abentura-kirolak egiten dituztenei zuzendutako bideo kamera aurkeztu du Samsungek

Aurreko astean CeBIT feria egin zuten Alemanian, Hannoverren. Informatika eta teknologia feria handiena da eta 20. ekitaldian 2.200 enpresa inguruk hartu zuten parte. Hala ere, Sony eta Philips etxeen hutsunea nabaritu dute antolatzaileek aurten.

Samsung etxeak bereziki abentura-kirolak egiten dituztenei zuzendutako bideo kamera aurkeztu zuen: VP-X210WL kamerari lente estra bat jartzeko aukera dago, hainbat angelutatik grabatu ahal izateko.




Samsung etxeko kamera berriak 4 GBko memoria dauka eta modu errazean erabil daiteke.

## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

**www.goiena.net-eko blog komertzialak**

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

**Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:**
**www.goiena.net/blogak ·**
**azabarte@goiena.com ·**
**943 76 92 70**

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

**www.goiena.net/blogak**

/4quattro4 /argi-plastik /arregi /atai /azkarate
/joseba /BZ-sistemas /dragon-oriental /ezkutuorly
/gallastegi /garaia /guztizeder /irudisport /korozabaleta
/merkeopari /multiopticas /ohiak /okipark /vitoria
/pando /udalatx /udalaitz /gorkataxi /elejalde
/maulanda /mayte /ganesha

**Eta baita ere:**
**www.aizue.com**
**www.lilura.com**
**www.baster-alde.com**
**www.ehmff.com.**



## berriak

> PROGRAMAZIOA

### ETAren su-etenak aldaketak eragin zituen programazioan

Martxoaren 22an ETAk iragarritako su-eten iraunkorrak aldaketak eragin zituen GOITBko programazioan. Hain zuzen ere, 14:00etan 45 minutuko saio berezia egin zuten informatiboetako lantaldekoek. Lokarri taldeko Jose Ramon Elortza gonbidatu zuten ETAren agiriaren gainean berba egiteko.

Eguenean, berriz, mahai inguru berezia egin zuten Goiena Telebistan.

> PUBLIZITATEA

### Udalaitz auto etxeak babestuko ditu kirolak albistegietan

Ibarreko gero eta enpresa gehiagok GOITB aukeratzen dute. Oraingo astean hasi da albistegietako kirol tartea babesten Arrasateko Udalaitz auto etxea. Horrela, Skoda autoen iragarkia ikusiko dugu aurrerantzean.

Kontua da debagoiendar askok ikusten dituztela gure albistegiak. Hain zuzen ere, CIESko datuak kontuan izanda, egunero sei mila lagun inguruk ikusten dute GOITB.

ARRASATE IRRATIA

### Hasier Etxeberria idazle eta kazetaria 107.7an

Asteon, idazle artean ibili da 107.7ko autobusa, Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean izan den bekatuen gaineko literatura astea aitzakia hartuta.

Hasier Etxeberria elgoibartarra martitzenean izan zen gurean, sabelkeria (gula) berbagai hartuta. Kazetaritza eta euskal kulturaren gainean ere jardun zuen. Astebururan izango duzue berriz ere entzuteko aukera.

> DATORREN ASTEAN

### ETAren su-eten iraunkorra berbagai Arrasate Irratian

Eguaztenean jasotako berriak norabide zehatza markatu dio Arrasate Irratiko autobusari. Biharamun egunean lehen balorazioak jaso genituen. Asteburuan izango dituzue berriz ere entzungai.

Datorren asteko ibilbideetan ere, iritzi bila jarraituko dugu; Debagoienean eta baita atzerrian ere. Baina entzuleen iritzia ere jaso gura dugu. Hortaz, idatz egiguzue, bada, helbide honetara: *irratia@goiena.com.*

**'ILUNPEAN'** > EGUBAKOITZA, 22:15

# Paddy Rekalde idazle bizkaitarra biluztuko dugu

'Ilunpean' saioan Oihana Elortzak Paddy Rekalderi eginiko elkarrizketa ikusteko aukera izango da

**GOIENKARIA** > BERGARA

Narrazioa, nobela eta poesia jorratu ditu Paddy Rekalde idazle bizkaitarrak orain dela bederatzi urte ibilbide literarioa abiatu zuenetik hona.

Deustuan jaio zen, 1964an, eta 1997an aurreneko narrazioa argitaratu zuen: *Aizu Paddy!* Azken urteotan ere zenbait nobela eta poesia bilduma kaleratu ditu. Besteak beste: *Rebel Mayo Colorao* eta *Bilbo dub kronikak* Txalapartarekin eta Susarekin. *Ilunpean* saioan bere ibilbidea izango du mintzagai, baina ez hori bakarrik. Bere bizitzako sekretuak ere kontatuko dizkigu.



**PADDY REKALDE** Idazle bizkaitarra *Ilunpean*-en ikusiko dugu. GOIENKARIA

**'BEHAZULO' SAIOAN, ALERGIA** > EGUBAKOITZA, 21:15

# Udaberrian horrenbeste arazo sortzen dituzten alergiak aztergai

**GOIENKARIA** > BERGARA

Martxoaren 20an egin genion ongietorria udaberriari; urtaro polita izaten bada ere, askok alergia arazoak izaten dituzte eta horrek ezinegona eragiten die. Kontua da oraingo astean *Behazulo* saioan alergiak izango direla aztergai. Horretarako, *Behazulo*-ko lantaldea Gasteizko Santiago ospitalera abiatu da eta handik egingo du saioa. Programaren zuzendari eta aurkezle Goiatz Aranak espezialista bat elkarrizketatuko du eta alergiari aurre egiteko gomendioak emango dituzte. Zalantzarik gabe gai interesgarria da oraingo astean *Behazulo*-k jorratuko duena. Kontuan izan behar da gaur egungo estimazioen arabera, Euskal Herrian bost pertsonatik batek gaixotasun alergikoren bat daukala eta azken urteotan gaitzak jotakoen kopuruak %30 egin duela gora. Udaberrian alergiek ikaragarrizko *loraldia* izaten dutenez, espezialistek haiei aurre egiten lagunduko diguten gomendioak emango dizkigute.

## telebegi

**Leire Kortabarria**

## 'CSI'-ren aztarnen atzetik

Hemengo ikusleoi fikzioa *made in USA* gustatzen zaigu. AEBetatik datozen produktuen artean, Euskal Herrian ere arrakastatsu jarraitzen du *CSI*-k. Pozten naiz, telesail hori oso kuttuna dudalako. Produktu berriagoetan ikusten da, gainera, *CSI*-k telebista egiteko estilo berri bat sortu duelako.

Hala, profesionalen telesailak eta, horien barruan, ikertzaile mota jakin baten inguruko telesailak iristen hasi dira. Dagoeneko ez dira polizia soilak, ez: pertsona desagertuen kasuetan espezialistak, *medium*-ak, edo matematiketako jeinuak dira (eta ziur bateren bat kanpoan utzi dudala). Istorioak lehengo telesailetan baino dinamikoagoak dira, eta irudi aldetik, ikusgarriagoak eta inpaktua erabiltzen dutenak.

Neu *Numbers* (Antena 3) delakora engantxatu naiz, aipatutako matematikoaren gainekoa. Planteamendu bitxia eta interesgarria dauka, eta jakin-mina nuen *Alaskako doktore* hura, Rob Morrow, zertan ibiliko ote zen hamar urte igaro eta gero, eta hara non aurkitu dudan, FBIko kide bihurtuta! Telebista, ezusteen kutxa.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Hasier Etxeberria, idazle eta kazetaria; ETAren su-eten iraunkorraren gaineko iritziak; Juanjo Gabiña, Arrasate Iraunkorra proiektuko arduraduna; lorategiaren geltokian, jaunartzerako apaingarriak berbagai; Gaizka Vitoria, udaberriko diskoen aurkezpena,...

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Meteorologiaren geltokia (Pello Zabala)
Elkarrizketak
Lorategiaren geltokia
Ibili Munduan geltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 24**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15** Musika saioa. **14:30** M1: Eguraldia eta zerbitzuak. **14:35** Gezi-bideak. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Iparrorratza. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak **16:45** Albisteak **17:00** Berbaire **17:30** Eltze beroa **17:45** Gaurkoak **17:47** Ilunpean **18:15** Teknopolis **18:45** Albisteak. **19:00** Klipak. **19:15** Jazz mintegia. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak **20:45** Albisteak **21:15** Behazulo: Alergiak, udaberriko mehatxua **21:45** Berriak **22:15** Ilunpean: Paddy Rekalde **22:45** Albisteak **23:15** 16 mm. **23:45** Berriak **00:15** Amaiera.

**Zapatua, 25**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak bilduma **11:00** Behazulo. **11:30** Ilunpean **12:00** Eltze beroa: Gazta tarta **12:15** 16 mm **12:45** Jaun ta jabe **13:45** Didjeridu. **14:15** Klip@. Musika taldeen bideoklipak **14:45** Astekoak **15:00** Jazz Mintegia **15:30** MKT. **15:45** Ikuskizuna **16:15** 16 mm **16:45** Erreportajea **17:15** Didjeridu **17:45** Marrazki bizidunak **19:15** Eltze beroa. **19:30** 16 mm. **20:00** Behazulo **20:30** Astekoak **20:45** Ilunpean **21:15** Teknopolis. **21:45** Berbaire: Mahai ingurua. **22:15** Elkartasun bideak. **22:45** 16 mm. **23:15** Erreportajea **23:45** Emisio amaiera.

**Domeka, 26**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak bilduma. **11:00** Klip bilduma. **11:30** Iparrorratza. Venezuela. **12:00** Didjeridu. **12:30** Eltze beroa. **12:45** 16 mm **13:15** Munduari bueltaka: Nepal **13:45** Klip@ **14:00** Marrazki bizidunak. **15:00** ikuskizuna **15:30** Ilunpean **16:00** Astekoak **16:15** Behazulo. **16:45** 16mm. **17:15** Eltze beroa **17:30** Marrazki bizidunak **18:45** Klip@ bi saio **19:15** Iparrorratza: Venezuela **19:45** Behazulo. **20:15** Zera dio eta Motzean. **20:30** Ilunpean **21:00** ikuskizuna. **21:30** 16 mm. **22:00** Berbaire. **22:30** Didjeridu. **23:00** Behazulo. **23:30** Astekoak **23:45** Emisio amaiera.

**Astelehena, 27**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Behazulo. **14:15** Eltze beroa. **14:30** M1. **14:35** Gezi-bideak **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Munduari bueltaka:Nepal **15:30** M1. Eguraldia eta burtsa tartea. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Ilunpean. **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Didjeridu. **17:30** Motzean. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Berbaire. **18:15** Jaun ta jabe. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klipak. **19:15** 16 mm. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Albisteak. **21:15** Harmailatik **21:45** Berriak. **22:15** Harmailatik. **22:45** Albisteak. **23:15** Jazz zikloa: Elgetako gauak **23:45** Berriak. **00:15** Emisio amaiera.

**Martitzena, 28**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Jazz mintegia: **14:15** Zera dio. **14:30** M1. **14:35** Gezi-bideak. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Elkartasun bideak. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Harmailatik. **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak. **16:45** Albisteak. **17:00** Jazz. **17:30** Danbaka. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Erreportajea: Angel Manterolak 100 urte. **18:15** Munduari bueltaka: Nepal **18:45** Albisteak **19:00** Klipak. **19:15** Harmailatik. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Albisteak. **21:15** Ilunpean. **21:45** Berriak. **22:15** Berbaire. **22:45** Albisteak. **23:15** Behazulo. **23:45** Berriak. **00:15** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 29**
**13:15** Emisio hasiera **13:20** Marrazki bizidunak **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire **14:15** Musika saioa **14:30** M1 **14:35** Gezi-bideak **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Teknopolis. **15:30** M1 **15:35** Sendabelarrak **15:45** Gaurkoak **15:47** Behazulo **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Berbaire. **17:30** Zera dio eta Motzean: Txaro Arteaga eta Abraham Olano. **17:45** Gaurkoak. **17:47** 16 mm **18:15** Teknopolis **18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klipak **19:15** Didjeridu **19:45** Berriak. **20:15** Marrazkiak. **20:45** Albisteak. **21:15** Teknopolis. **21:45** Berriak. **22:15** 16 mm: Koldo Almandozen 'Amuak' **22:45** Albisteak **23:15** Erreportajea **23:45** Berriak. **00:15** Amaiera.

**Eguena, 30**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Erreportajea. **14:15** Motzean. **14:30** M1. **14:35** Gezi-bideak **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Jaun ta Jabe. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Jazz mintegia.Elgetako gauak **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak. **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** 16 mm. **17:30** MKT musika. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Elkartasun bideak. **18:15** Iparrorratza: Venezuela **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klipak. **19:15** Erreportajea. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Albisteak. **21:15** Jaun ta jabe. **21:45** Berriak. **22:15** Didjeridu: Itoitz Armendariz eskoriatzarra. **22:45** Albisteak. **23:00** Berbaire. **23:45** Berriak **00:15** Amaiera.




| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J. Carlos Guerra 1<br>Tel.: 943 79 29 95<br>**ARRASATE** | Ibargarai 16<br>Tel.: 943 76 15 75<br>**BERGARA** | Bidebarrieta 2<br>Tel.: 943 20 05 22<br>**EIBAR** | C/ Nueva 15 - GROS<br>Tel.: 943 32 66 49<br>**DONOSTIA** | Koldo Mitxelena, 7<br>Tel.: 943 51 78 11<br>**ERRENTERIA** | Mendibil M. G.<br>Tel.: 943 63 99 01<br>**IRUN** | J.M. Barandiaran Enp.<br>Tel.: 943 88 99 88<br>**ORDIZIA** | San Frantzisko 23<br>Tel. 943 69 84 70<br>**TOLOSA** |

**smsoinu**
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

**5767** zenbakira

Deiaren prezioa: **1,2 € + BEZa**

## Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

### ABESTIAK POLIFOIKOAK (sms 1) — Abestiaren izena (Abeslaria) I KODEA

**Himnoak**
Eibar I EIBAR
Athletic Club I BILBAO
Osasuna I OSASUNA
Reala I REAL
Real Union I UNION

**Pop-Rock**
Aitormena (Hertzainak) I AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) I AIZKO
Amore amore (Karidadeko benta) I AMORE
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) I ASKATA
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) I BEGIAK
Bi Minutuero (Hertzainak) I BIMINU
Dub manifest (Fermin Muguruza) I DUB
Egunero (Hertzainak) I EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) I SUKAR
Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) I ELLOS
Enamorado de la muerte (RIP) I ENAMO
Entzuidazu (Aterking's) I ENTZU
Etorkizuna (Etsaiak) I ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken7) I EZER
Gora Herria (Negu Gorriak) I GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) I BELAIR
Haizea (Ken7) I HAIZEA
Hegal egiten (Itoiz) I HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) I IKUSI
Ilargia (Ken 7) I KEN
Inpernuen ate joka (Gatibu) I INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) I JOKIN
Kaixo (Urtz) I KAIXO
Lau Teilatu (Itoiz) I ITOIZLAU
Laztana (Latzen) I LAZTA
Lotuta egon arren (Kokein) I LOTUTA
Loretxoa (EXKIXU) I LORE
Marea Gora (Itoiz) I MAREA
Musturrek sartunde (Gatibu) I MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) I NICA
No time for love (Hertzainak) I NOTIME
Salve (La Polla) I SALVE
Sarri Sarri (Kortatu) I SARRI
Sorginen leizean (Exkixu) I SORGIN
Txatxo (Zarama) I TXATXO1
Txus (La Polla) I TXUS

**Trikitixa**
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) I BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) I BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapia) I HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) I ITSAS
Kupela (Epelde eta Larrañaga) I KUPELA
Mila galdera (Alaitz / Maider) I MILAI
Nirekin (Gozategi) I GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) I HIRA
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) I TXANPON

**Folk**
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) I SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) I BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) I BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) I BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) I EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) I EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) I EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) I POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) I FURRA
Galiziara noa (Oskorri) I GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) I GERNIKA1
Haika Mutil (Mikel Laboa) I HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lete) I IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxoa/Peio) I LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bele) I MARINE
Nere herriko neskatxa maite (B.Lertxundi) I NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) I NON
Oi! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) I OIAMA
Tirauki (Oskorri) I TIRA
Txatxamatxalinatxu (Mikel Urdangarin) I TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) I TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) I ZAINDU

**Herrikoia**
Bagare I BAGARE
Desde Santurce a Bilbao I DESDE
Ikusi Mendizaleak I MENDI
Pintxo-pintxo I PINTXO
San Simon eta San Judas I SAN

**Jaietakoak**
Artillero dale fuego I ARTILLERO
Marijaia (Kepa Junkera) I JAIA
San Fermin I FERMIN
San Martzialetako alardea I SAN MARTZIAL

SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES Y EDITORES

### SOINUAK (2 sms)
1,2,3,4...Real!! I REAL
Alboka I ALBOKA
Athletic Iuep!! I IEUP
Buztan bertsoa I BERTSO
Hartu...Aitaren ta semea.. I AITAREN
Hartu...Ansar I ANSAR
Hartu...Argentinarra I ARGEN
Hartu...Mexikarra I MEXIKO
Hartu...Miamol! I MIAMOL
Independentzia! I INDEPEN
Irrintzia I IRRINTZI
Jotake irabazi arte! I JOTAKE
Milazu! (pilota) I MILAZU
Suprinua I SUPRINU
Tobera I TOBERA
Txalaparta I TXALA
Txanbela I TXANBERA
Txoootx I TXOTX

### JOKUAK (sms1)
MAFIA
BARON ROJO
SUDOKU
PARCHIS

### LOGOAK (sms1)
LAU1
LAU3
NUKLEAR
ARRANO 1
REAL.IZENA. ZENBAKIA
SORGIN
BILBAO.IZENA. ZENBAKIA
ANOETA1
OSAUNA.IZENA. ZENBAKIA
ARCO

### OHARRAK
**1.BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: **www.smsoinu.com/bateragarri**
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.

**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: **smsoinu@smsoinu.com** / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.

**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

...ASKOZ GEHIAGO GURE WEBGUNEAN www.smsoinu.com

# Martxoak 24-31

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 01** • Faxa: **943 25 05 13**

## Sonotones taldea zuzenean



BERGARA

**> Sonotones taldeak 'Sin argumentos' delako diskoa aurkeztuko du**

Sonotones taldeak kontzertua egingo du bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan. Melodia eta gitarra indartsuekin, entzuteko moduko zuzenekoa egiten dute. Arrasando Zepas taldeak ere joko du gau horretan.

## Umeendako bi emanaldi



ARETXABALETA

**> Umeendako txotxongilo eta ipuin kontaketa emanaldiak egongo dira**

Eguaztenean, hilak 29, *Asto bat hipodromoan* ipuina kontatuko dute Kurtzebarri eskolan, 17:00etan; eta eguenean, 30, Bihar taldeak *Ipuin magikoak* txotxongilo saioa (argazkian) egingo du kultura etxean, 17:00etan.

## Haitirekin elkartasun afaria



OÑATI

**> Elkartasun afaria antolatu dute gaurko, Haitin biltegi bat eraikitzeko**

Elkartasun afaria antolatu du parrokiako Misio Taldeak gaurko, egubakoitza, Bidaurretako fraideetan, 20:30ean. Tortilla eta letxuga jango dute. Sarrera doan da, baina borondatez jasotzen dutena Haitiri laguntzeko izango da.

## Musika

OÑATI

**> Piztiak taldeak kontzertu akustikoa egingo du**

Piztiak taldeak kontzertu akustikoa egingo du. *Euriaren zain* diskoa aurkeztuko dute. 4 euro da.

Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.

BERGARA

**> Asteburuko musika emanaldiak Ziripot tabernan**

Honako emanaldiak egongo dira: DJ Seti, DJ Redna eta DJ Belas disko jartzaileekin, hardcore musika, gaur, egubakoitza; eta Elektroparty saioa DJ Lalas legazpiarrarekin bihar, zapatua.

Bi emanaldiak 22:00etan hasiko dira.

BERGARA

**> Soulfly taldeak kontzertua egingo du Jam aretoan**

Max Cavaleraren Soulfly taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 21:00etan. Dark Ages izeneko diskoa kaleratu zuten iaz. Xkrude taldeak ere joko du.

Sarrera, 19 euro aldez aurretik erosita, 20 txarteldegian.

ARRASATE

**> II. Udaberriko Musikaldiaren barnean, hiru emanaldi**

II. Udaberriko Musikaldiaren egitarauaren barnean, honako emanaldiak izango dira: Oñatiko Ganbara Abesbatzarena (gaur, egubakoitza, parrokian) eta Sakanako Haize Berri musika bandarena (bihar, zapatua, Amaia antzokian).

Bi emanaldiak 20:00etan. Datorren asteburuan, Haizea taldearen kontzertua.

OÑATI

**> Punk-oi estiloko hiru talde, horietako bi debagoiendarrak**

Punk-oi estiloko Des-kontrol, Never Surrender eta Crashed Out taldeek kontzertua egingo dute.

Bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean.

## Erakusketak

ARRASATE

**> Debagoieneko bi artista gazteren artelanak**

Iraia Artzamendi eta Ane Miren Agirre artista gazte debagoiendarren erakusketa dago Harresi aretoan. Artzamendik hamar bat serigrafia eta lumatxoz eta tintaz egindako 40 bat lan batu ditu, eta Agirrek hiruzpalau eskultura. Iñaki Bastarrikak poemak idatzi ditu erakusketa horretarako. Etzi, domeka, da azkeneko eguna.

Gaur, egubakoitza: 18:00-20:00; asteburuan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

ELGETA

**> Gari Garaialdek surf argazkiak ipini ditu erakusketan**

Gari Garaialde argazkilariak surfaren gaineko argazki erakusketa dauka Espaloia antzokia.

Apirilaren 4ra arte egongo da erakusketa ikusteko aukera.

BERGARA

**> Menchu Gal margolariaren erakusketa Aroztegi aretoan**

Menchu Gal margolari irundarraren lanen erakusketa egongo da Aroztegi aretoan apiril bukaeraraino.

Ordutegia: astegunetan, 18:30-21:00; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:30-21:00; domeketan: 12:00-14:00.

BERGARA

**> Pilar Antsoategi arrasatearraren margolanak**

Pilar Antsoategi margolari arrasatearrak loreen gaineko 18 margolan ditu erakusketan martxo bukaerara arte.

Masterreka kaleko Nahikari tabernan. Informazioa: *www.nahikari.com*.

OÑATI

**> Josune Bereziarturen ibilbidearen gaineko erakusketa**

*Hatz puntak* izeneko argazki erakusketa antolatu dute Josune Bereziartuk eta Rikardo Otegik. Bereziarturen ibilbide profesionala aintzat hartuta, eskaladaren gaineko argazkiak batzen ditu.

Aste osoan zabalik kultura etxean, 18:30-20:30 ordutegian.

ARRASATE

**> Aitor Sarasketaren margolanen erakusketa**

Aitor Sarasketa eibartar gaztearen lanak daude Arrasateko Arregi markoztatze dendan apirilaren 7ra arte. Dozenaka erakusketa egin ditu Sarasketak Euskal Herrian eta Espainian. Lerro bertikal eta horizontalak erabiltzen ditu sakontasuna eta geruzak irudikatzeko.

Arregi markoztatze dendan apirilaren 7ra arte.

## Ikuskizunak

ARAMAIO

**> Patagoniaren gaineko diapositibak emango dituzte**

*Marron* mendizale ataundarrak Patagonian ateratako diapositibak emango ditu.

Eguenean, hilak 30, kultura etxean, 19:00etan.

## Antzerkia

ESKORIATZA

**> Umeendako ipuin kontaketa saioa egongo da**

Maite Franco kontalariak ipuinak kontatuko dizkie 3 urtetik gorako umeei.

Eguenean, hilak 30, liburutegian, 18:00etan.

## Lehiaketak

ARRASATE

**> Diseinu industrial lehiaketa antolatu dute Fagorrek eta MUk**

I. Jump diseinu industrial arloko lehiaketa antolatu dute Fagor Elektratresnek eta Mondragon Unibertsitateak. Munduko diseinu industrial eta arkitektura ikasle guztiek parte har dezakete. Internetez egingo da. Hiru lan berritzaile eta originalenak 3.000 eurorekin sarituko ditu. Mugaeguna ekainaren 30a da.

Argibide gehiago eta lanak ikusteko aukera, *www.fagorjump.com* webgunean.

BERGARA

**> Jaietako egitarauko azala aukeratzeko lehiaketa**

Mendekoste jaietako egitarauko azala aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. Bergaran bizi edo erroldatutako edozeinek parte har dezake. Irudia 46x61 zentimetrokoa izango da, eta bertikala. Derrigorrezko testua hauxe da: *Pentekoste jaiak 2006 Bergara*. Lanak Bergarako kultura etxera eraman behar dira apirilaren 28a baino lehen.

600 euroko saria emango dute.

OÑATI

**> Arrantzaren gaineko argazki lehiaketa antolatu dute**

Arrantzaren gaineko argazki lehiaketa antolatu dute. Lanak Alzu dendan utzi edo *iarrese@hotmail.com* helbidera bidali behar dira. Arrantza-material sari bat emango dute, eta lanekin erakusketa ipiniko dute.

Mugaeguna: maiatzak 20.

PROPOSAMENA

OÑATI, BERGARA

**> Debagoieneko hainbat taldek joko dute asteburuan**

Ibarreko taldeen asteburua da, bihar, zapatua, Oñatin eta Bergaran egongo diren bi kontzertutan.

Oñatiko gaztelekuan, Des-kontrol (argazkian) eta Never Surrender arrasatearrek eta Erresuma Batuko Crashed Out taldeak joko dute, kaskamotzen gauean.

Berriz, Bergaran, Supercools, The Bollocks eta Fly Shit debagoiendarrek joko dute; eta Mes que odi talde bartzelonarrak.

Oñatiko kontzertua, 22:30ean; Bergarakoa, 22:00etan.



## nire aukera



Lierni Altuna
Gazte Batzarreko kidea
Aramaio

### "Euskal Herrian turismoa egitea gustatzen zait"

Autoa hartu eta lagunekin Euskal Herrian turismoa egitea gustatzen zait: Nafarroan, Iparraldean… herri batzuk bisitatu eta hantxe lo egin. Gida eramaten dugu alboan eta hantxe begiratzen dugu lo egiteko leku egokiak. Gero, zapatu gauean parranda egiteko aukerarik baldin badugu, ba, hobe!

Irteera horiek ezin ditut astebururo egin –Aste Santuan, udako oporretan… egiten ditugu–, eta Aramaion geratzen naizenean, mendira joatea gustatzen zait.

**Lagunekin egindako zein irteera duzu gogoan?**
Joan den abuztuan Lesakara joan ginenekoa. Inguruko herri batzuk bisitatu genituen, eta Etxarrin jaiak zirenez, hantxe ibili ginen pozik.

**Debagoienetik irten barik, jai onenak, nongoak?**
Nire herrikoak esango ditut, Aramaiokoak!

**Aramaiora ekarriko zenukeen musika talde bat?**
Skalariak, adibidez.

**Zein CD entzuten ari zara egunotan?**
Aspaldian ez dut CDrik entzun, baina azkeneko entzun dudana, Chambaorena.

**Eguraldi txarra dagoenean, zein da zure asteburuko plana?**
Zinemara joatea, edo Aramaioko tabernaren baten lagunekin arratsalde pasa egitea kafea hartzen.

**Azkeneko irakurri duzun liburua?**
*Dracula.*

# Zinema

## ARRASATE
### AMAIA ANTZOKIA

**Munich**
Egubakoitza: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Las aventuras de Sharkboy y Lavagirl en 3D**
Domeka: 17:00.

## ELGETA
### ESPALOIA ANTZOKIA

**El grinch (espainolez)**
Domeka: 17:30.

**Clerks**
Eguaztena: 21:30.

## OÑATI
### KULTURA ETXEA

**Munich**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Rolo eta ilarraren sekretua**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

**Las llaves de casa**
Eguena: 20:00.

## EIBAR
### UNZAGA

**Tristán e Isolda**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

### RIALTO

**Transamérica**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

**Bambi 2**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

## GASTEIZ
### GURIDI

**La dama boba**
17:30, 20:00, 22:30.

**Destino final 3**
17:30, 20:00, 22:30.

**La pantera rosa**
17:30.

**Date movie**
17:30, 20:00, 22:30.

**La verdad oculta**
17:30, 20:00, 22:30.

**Sky high**
17:30.

**Truman Capote**
17:30, 20:00, 22:30.

**Crash**
17:30, 20:00, 22:30.

**Syriana**
20:00, 22:30.

### FLORIDA-GURIDI

**Tsotsi**
17:00, 19:45, 22:30.

**Buenas noches y buena suerte**
17:30, 22:30.

**Volver**
17:30, 20:00, 22:30.

**Los aires difíciles**
17:30, 20:00, 22:30.

**Transamérica**
20:00.

**The hidden blade**
17:00, 19:45, 22:30.

**Los productores**
17:00, 19:45, 22:30.

**Agua**
17:30, 20:00, 22:30.

### ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

**Mrs. Henderson presenta**
20:00, 22:10, 00:30.

**Thai dragon**
16:00, 18:10, 20:20, 22:20, 00:30.

**Gisaku**
16:10, 18:00, 20:00.

**Esta abuela es un peligro 2**
16:00, 18:00.

**Terror en la niebla**
22:20, 00:30.

**Dick y Jane, ladrones de risa**
16:00, 18:00.

**Hostel**
16:00, 18:10, 20:20, 22:20, 00:30.

**La pantera rosa**
16:00, 18:10, 20:20, 22:20, 00:30.

**Apostando al límite**
22:00, 00:30.

**Melissa P.**
16:00, 18:00, 20:00.

**Memorias de una geisha**
16:00, 19:00, 22:00.

**Underworld evolution**
20:00, 22:15, 00:30.

**En la cuerda floja**
16:30, 19:20, 22:00, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

**Date movie**
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**Firewall**
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

**Hostel**
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**La pantera rosa**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00.

**Buenas noches y buena suerte**
22:20, 00:00.

**Brokeback mountain**
18:50, 21:40, 00:30.

**Munich**
22:00.

**Memorias de una geisha**
21:50, 00:20.

**Crash**
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**Volver**
12:15, 15:30, 17:50, 20:10, 22:30, 00:50.

**Tristán e Isolda**
12:15, 16:45, 19:15, 21:45, 00:15.

**Zathura**
12:15, 15:40, 17:45, 19:50.

**El nuevo mundo**
12:15, 16:40, 19:20.

**Bambi 2**
12:15, 15:45, 17:15.

**Sky high**
12:15, 15:30, 17:30.

**Destino final 3**
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

**Los aires difíciles**
12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.

**Orgullo y prejuicio**
20:05, 22:25, 00:45.

**Syriana**
19:30, 22:05, 00:40.

**El castillo ambulante**
12:15, 15:35, 17:50.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

### ÁBACO BOULEVARD

**La pantera rosa**
12:10, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

**Bambi 2**
12:15, 17:05.

**Buenas noches y buena suerte**
20:00, 22:05, 00:30.

**Volver**
12:00, 17:00, 19:40, 22:10, 00:45.

**Syriana**
12:15, 17:00, 19:45, 22:15, 01:00.

**Munich**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 22:10.

**Sky high**
12:15, 16:10, 18:10.

**Brokeback mountain**
12:00, 17:00.

**Date movie**
12:10, 16:20, 18:25, 20:20, 22:25, 00:30.

**Crash**
20:10, 22:25, 00:45.

**Firewall**
12:15, 16:25, 18:20.

**Destino final 3**
12:00, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

**Tristán e Isolda**
12:10, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

**El nuevo mundo**
19:25, 22:10, 01:00.

**La verdad oculta**
12:10, 16:05, 18:10, 20:15, 22:25, 00:45.

**Zathura**
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:10, 20:20.
Domeka: 12:00, 16:00, 18:05, 20:10.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Truman Capote** ****
AEB, 2005. Zuzendaria: Bennett Miller. Aktoreak: Philip Seymour Hoffman, Catherine Keener.
110 min. Biografia, drama.
1959an, *Truman Capote* idazleak (Seymour Hoffman) *Clutter familia*-ren hilketaren berri jasotzen du, eta gertakizun horren gainean ikertu eta bere maisulana idatziko du. Aktore onenaren Oskar saria irabazi du Philip Seymour Hoffman-ek lan honengatik.

**La novia cadáver** ****
AEB-Erresuma Batua, 2005. Zuzendaria: Mike Johnson, Tim Burton.
76 min. Animaziozkoa.
XIX. mendea da. *Victor* gaztea infernura eramaten dute, eta han, *Emaztegai Hilotza*-rekin ezkontzen da. Bitartean, bere benetako emaztegaia, *Victoria*, zain dauka bizidunen munduan.

**Tristán e Isolda**
Erresuma Batua-Alemania-AEB, 2006. Zuzendaria: Kevin Reynolds. Aktoreak: James Franco, Sophia Myles, Rufus Sewell.
125 min. Akzioa, drama.
Erroma erorita, Ingalaterrako buruzagi militarrek mendean dute Irlandako erregea. Buruzagi horien zaldun garrantzitsuena *Tristán* (Franco) da. Baina *Tristán* larri zauritu zutenean, *Isolda* irlandar ederrak zaindu zuen…

**Munich** ****
AEB, 2005. Zuzendaria: Steven Spielberg. Aktoreak: Eric Bana, Daniel Craig, Ciaran Hinds.
164 min. Thrillerra.
Munichen, 1972ko Joko Olinpikoetan, Irail Beltza talde palestinarrak bi kirolari israeldar hil eta bederatzi bahitu zituen. Israelgo zerbitzu sekretuak hori zelan bizi izan zuen kontatzen da film honetan.

**Las llaves de casa** ****
Italia-Frantzia-Alemania, 2004. Zuzendaria: Gianni Amelio. Aktoreak: Kim Rossi Stuart, Andrea Rossi.
105 min. Drama.
*Gianni* -k (Rossi Stuart) *Paolo* (Rossi) 15 urteko semea ezagutu berri du. *Paolo* fisikoki gutxitua da. Filmak euren arteko harremana kontatzen du sentimentalismoan erori gabe, gordinean.

**Clerks**
AEB, 1994. Zuzendaria: Kevin Smith. Aktoreak: Dante Hicks, Randal Graves, Veronica Loughran.
92 min. Komedia.
*Dante* (Hicks) eta *Randal* (Graves) aldi baterako salmenta-leku bateko kutxako langileak dira. Filmak euren lanegun arrunt bat kontatzen du, etengabeko berriketa eta denbora-pasak.

**Date movie**
AEB, 2006. Zuzendaria: Aaron Seltzer. Aktoreak: Alyson Hannigan, Adam Campbell.
83 min. Komedia erromantikoa.
*Julia* (Hannigan) ameslariaren eta *Grant Folloatuhija*-ren (Campbell) arteko maitasun istorioaren bidez, azken urteotako komedia erromantiko batzuen parodia egiten du film honek.

**Gisaku**
Espainia, 2005, Zuzendaria: Baltasar Pedrosa.
78 min. Animaziozkoa, abenturak.
Samurai batek antzina emandako misio bat burutzeko zain dago: Izanagiko Giltza txarretik babestea.

**Destino final 3**
AEB, 2006. Zuzendaria: James Wong. Aktoreak: Mary Elizabeth Winstead, Ryan Merriman, Jesse Moss.
93 min. Suspentsea, beldurrezkoa.
*Wendy* (Winstead) eta lagunak graduazioa ospatzen ari dira jolas-parke baten. Denok errusiar mendiko istripu baten hilko diren bihozkada du neskak.

**La verdad oculta**
AEB, 2005. Zuzendaria: John Madden. Aktoreak: Gwyneth Paltrow, Anthony Hopkins.
99 min. Drama.
*Catherine* (Paltrow) gaztearen eta aitaren (Hopkins), matematiketako jeniu baten, arteko harremana kontatzen du, eta zelan horrek neskaren bizitza baldintzatzen duen.

**El rey escorpión**
AEB, 2002. Zuzendaria: Chuck Russell. Aktoreak: Dwayne Johnson The Rock, Michael Clarke.
99 min. Abenturak.
Agintari gaizto batek Egiptoko herriak mendean hartu nahi ditu. Defendatzeko, herriok *Mathayus* gerlaria kontratatzen dute.



## Volver ****

**Zuzendaria:** Pedro Almodovar.
**Aktoreak:** Penelope Cruz, Carmen Maura.
Espainia, 2005.
110 min. Komedia dramatikoa.

Pertsonaien begiradek zerikusi handia dute *Volver* filmak lortzen duen tonuan. Drama eta komedia batuak doaz. Pertsonaien intentsitatez beteriko begirada distiratsuek iraganaren itzalak pertsonaietara itsatsiak daudela adierazten dute. Errealitatearen alde dramatikoena, kostunbrismoa eta komediaren alde zoratuena eta burugabeena elkarturik doaz emakumeei buruzko istorio beltz honetan. Eta hor datza filmaren indarra: Almodovarrek iluntasunetik argia sortzen du.

Influentzia asko ikusten dira: Hollywoodeko melodramak (*Alma en suplicio, Escrito sobre el viento*), Italiako neorrealismoa (bizitzari aurre egiten dakiten emakume kementsuak), suspensea eta umorea erabiltzeko era Hitchcoken *Pero… ¿quién mató a Harry?* burura dakarkit. Honez gain, Almodovar bere beste filmeetara hurbiltzen da ere: *¿Qué he hecho yo para merecer esto?* (agertzen diren pertsonaiak, emakume eta gizonen arteko harremanak), *La mala educación* (tratu txarrak eta sexu-abusuak), *Tacones lejanos*… film originala eta sendoa lortzeko.

*Vover*-ren entzuten diren elkarrizketak eta horiek esateko moduak Almodovarren ukitua dute. Zuzendariak aktoreen lana asko zaintzen du, eta denek argi berezia lortzen dute. Agertzen diren pertsonaiak oso desberdinak dira eta bakoitzak toki bat du bere berezitasuna adierazteko. Penelope Cruz, Carmen Maura, Blanca Portillo eta beste guztiek distira berezi bat ematen diote film eder honi.

**Antonio Zabala**

ZINEMA MERKEAGO
Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu
www.cinesabaco.com
Promozio baliagarria 2006/04/30, astelehenetik ostiralera, jai egunetan eta bezperetan izan ezik. Ez da bateragarria beste promozioekin.
C.C. El Boulevard
C.C. Lakua
ÁBACO ZINEMA MAILA GORENEAN

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
132 posta-kutxa, Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2006-03-24

# Aste bukaera Las Vegasen

**ORDEZKARITZA** Bergarako zazpi lagunek hartuko dute parte Munduko Mahai Futbol Txapelketan, Las Vegasen

**PARTAIDETZA HANDIA** Txapelketa Riviera hotelean jokatutako da eta 500 lagun inguru izango dira lehian

**ITXAROPENA** Zerbait lortzeko itxaropenarekin joan dira bergararrak; 5.000 dolar dira irabazleentzat

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Kasinoen eta makina txanponjaleen paradisuan, Las Vegas hirian, mahai futbolei tartea egingo diete aste bukaeran. Domekara bitartean Munduko Txapelketa jokatuko da hantxe eta zazpi lagun joan dira Bergaratik txapelketan parte hartzera: Javi Guerrero *Txori*, Iñaki Jaso, Igor Alberdi, Iban Gartzia, Mikel Unanue, Karlos Lasa eta Ibon Larrañaga. Martitzen goizean abiatu ziren AEBetara.

Iñaki Jasok eta *Txori*-k Las Vegaserako bidaia irabazi zuten Ondarroan eta Bergaran jokatutako txapelketetan. Ondarroan 52 lagun izan ziren lehian, banaka, eta *Txori* nagusitu zen; Bergaran Iñaki Jaso lagunarekin batera lortu zuen garaipena, 18 bikoteren artean. Hamar partida irabazi eta bakarra galdu zuten. Finalean Ibon Larrañagari eta Iban Molinari irabazi zieten, 18-17. Las Vegaserako bidaia jokoan, futbol partidu handien emozioa eta tentsioa egon zen: *www.ehmff.com* helbidean ikus daitezke finaleko



**ILUSIOA** Iñaki Jaso, Karlos Lasa eta *Txori* Jaso astelehenean, Ollagorra tabernan, bidaiari ekin aurretik. E.M.

irudiak. Las Vegasen ere lehia handia izango da (500 lagun inguru arituko dira), baina zerbait lortzeko itxaropenarekin joan dira AEBetara. "Ea iaz Parisen baino zorte handiagoa dugun: 7. postuan geratu zen Luxenburgoko bikotearen aurka galdu genuen, 7-6. Irabazteko zorian egon ginen, baina...", diosku Jasok. 14 urte daramatzate elkarrekin jolasten eta ondo baino hobeto ezagutzen dute elkar: Jaso atzean eta *Txori* aurrelari aritzen da beti. Eider Beistegi *Txori*-ren neskalaguna ere joan da Las Vegasera.

**50.000 DOLAR SARITAN**

Txapelketa Riviera hotelean jokatutako da (*www.itsf.com*) eta 100 bat mahai futbol izango dira, *Tornado* markakoak, hemengoen ezberdinak. Saritan 50.000 dolar banatuko dituzte eta irabazleek 5.000 dolar eskuratuko dituzte. Girorik ez da faltako Las Vegasen. Zaila izango da partiduen atarian gure ordezkariak hotelean kontzentratuta geratzea; tentazio ugari dago Las Vegasen...

## ahobero

**"ETAk bere disoluzioa iragarri ez badu, argi dago nahi duela berrantolatu, ZP Gobernuaren traizioa aprobetxatu eta Espainiaren eraistea gidatu"**

**F. Jimenez Losantos** > Kazetaria

Lasai, gizona! Laga iezaiezu sozialistei arnasa hartzen eta euskal gizarteari erabakitzen.

## iturri onetik

### Caja de Ahorros de Navarra aurrezki kutxak bulegoa irekiko du Arrasaten

Arrasateko Garibai kalean bulegoa irekiko du Caja De Ahorros de Navarra (CAN) aurrezki kutxak. Nafarroako finantza erakundearen plan estrategikoan aurreikusten da datozen bi urteotan 50 bulego irekitzea Euskal Autonomia Erkidegoan. Gaur egun bat bera ere ez daukate. Arrasatekoa izan liteke Euskadin zabaltzen duten lehenengoetakoa, Donostiakoarekin eta Gasteizkoarekin batera.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Izena eta izana

Erakutsi ziguten izena duenak izana baduela, zerbaiti izena jartzean izana ematen zaiola jendaurrean. Baina jakituria zaharrak ez du argitzen izena aldatzeak nolako eragina duen izanean.

Duela urte batzuk hobetsi zuen Euskaltzaindiak, eta orain berretsi du, lehengo Deba Garaia izango zela Debagoiena eta Deba Behea, Debabarrena. Ildo beretik, Deba bailarak izen berria du: Debarroa. Xuxenek oraindik gorriz markatzen ditu izenok, eta Gipuzkoan jende asko ez da aldaketaz jabetu. Baina ibar goien honetan, esango nuke izen aldaketa finkatu dela dagoeneko.

Izena aldatzea aukera ona da izana gaurkotzeko. Eta Debagoienak behar luke eskualde izana hartu, eta landu estrategia propioa eta sendoa, aurrean dituen erronkak ganoraz gainditzeko.

## ai, ene!



### Buggy Rollin, hezurrak apurtzeko kirol berria

Gurpildun armadura bat jarri eta aldapan behera egin. Kaskoa ere jartzea komeni da, oraindik ez dakite nola frenatu-eta.

www.buggy-rollin.com





Zubiaga
Maalako errabala 5 ARRASATE
Kale barria 18 OÑATI